

MERINDADEAK

Nafarroako Historiako Gaiak
Bigarren Hezkuntzarako

2. UNITATE DIDAKTIKOAK. LEHEN ZIKLOA



MERINDADEAK

*Nafarroako Historiako Gaiak
Bigarren Hezkuntzarako*

2. Unitate Didaktikoak. Lehen zikloa

Román Felones Morrás
Fermín Miranda García

Izenburua: Merindadedeak.
Nafarroako Historiako Gaiak Bigarren Hezkuntzarako.
2. Unitate didaktikoak. Lehen zikloa.
Egileak: Román Felones Morrás eta Fermín Miranda García.
Azala: Mikel Melero.
Azaleko argazkia: Iruñeko Planetarioa.
Argitalpena: Nafarroako Gobernua. Hezkuntza eta Kultura Departamentua.
Fotokonposizioa: PRETEXTO. Estafeta, 60 - 31001 Iruña.
Inprimaketa: Digitalia.
Lege gordailua: NA-1785/99
I.S.B.N.: 84-235-1750-0

© NAFARROAKO GOBERNUA, Hezkuntza eta Kultura Departamentua

Bultzatzaile eta banatzaile: Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoa
Lehendakaritza Departamentua
Navas de Tolosa, 21
Teléfono eta Fax zk.a: 948 42 71 23
31002 Iruña

AURKEZPENA

Testu hau **Merindadeak** proiektuko ataletako bat da. Proiektu hori jarduketa proposamen bat da Nafarroari buruzko eduki historikoak Gizarte Zientzien, Geografia eta Historiaren arloko plan orokorrean sartzeko, Bigarren Hezkuntzaren esparruan. Beraz, testu hau, berriki argitaraturiko sintesi historikoarekin batera, eduki teorikoak eta aplikazio praktikoa metodologia aktiboaren bitartez uztartu nahi dituen proiektu baten berezko atala da.

Aurreko liburuaren aurkezpenean esaten genuen Nafarroari buruzko azterlan historiko ugari egon badaudela, baina lehen eta bigarren hezkuntzaren esparruari eskainitako zabalkunde mailako testuak, salbuespenak salbu, ez direla ez ugari eta ez bereziki onak. Baina kontua ez da hori bakarrik: eduki horiek garatzeko dauden proiektu orokorrak ere esku bateko hatzez konta daitezke. Dauden guztien artean, ondokoak dira funtsezkoenak: M.E. Guibertek koordinaturiko ekipoak *Guías didácticas para la enseñanza de la geografía, historia e instituciones de Navarra en E.G.B. (Prehistoria, Historia Antigua y Media de Navarra-Ciclo Superior)* lana kaleratu zuen; beste aldetik, zenbait argitaletxek lehen ziklorako aurreikusitako edukiei buruzko garapen oro har murriz eta zatikakoak plazaratu dituzte.

Agian, merezi du gogoratzea jarduketa proposamen honetan funtsean biltzen duguna. Hasi, egitate historikoekiko eta historialariekiko errespetutik hasten da testua -gure hautapen pertsonalaren ikuspegitik galbahetuak-, eta irizpide kronologikoa erabiltzen du hurbilpen historikoa egiteko tresna gisa. Horren ondorioz, lehen ziklo honetan, aha-lerin bereziak egin ditugu bilakaera historikoaren hiru une gakoei dagozkien eta haien oinarritzko ezaugarri diren funtsezko egitate eta arazoak aztertzeko: historiaurrea, erromanizazioa, eta erdi aroa; izan ere, horiexek dira lehen ziklorako aurreikusi den Gizarte Zientzien gaia ikasterakoan aztertu beharreko hiru aldiak.

Lan honen azken hartzaileak DBHko lehen zikloko ikasleak dira, inteligentzia zehatzaren eta poliki-poliki bideak urratzen hasi den inteligentzia abstraktuaren bitarteko garapen kognitiboa dutenak adin horretan. Hori dela eta, planteatzen diren jarduerak hiru zailtasun-maila dituzte: gutxieneko helburuak besterik erdiesteko gauza ez diren ikasleei zuzendutakoa -ez da ahaztu behar derrigorrezko hezkuntzaz ari garela-; erdi mailako ikasleen maila arrunta -hari begira egin dira proposamen gehienak-; eta zabaltzeko jarduerak behar dituzten ikasleak, indarrean den ulermenaren bidezko ikasketaren tesuinguruan normalean alde batera utzitakoak.

Aurkezten dugun proposamenean -egin litezkeenetatik bat besterik ez dena- ikasleentzako pentsatutako langai errazak ekarri nahi ditugu, hezkuntza administrazio-

ak ikastetxeen irispidean jartzen dituenak. Hori dela eta, diseinua eta maketazioa egiterakoan, txukuntasuna, argitasuna eta ekonomia izan dira, gehien bat, erabili diren irizpideak.

Merindadeak proiektuak, bere osoan, sintesi bat eta hiru lan koaderno biltzen ditu. Orain arte argitaratutakoa, erdia doi-doi, azpimarratu beharreko berme batez sortu da: aldeaz aurretik esperimentatu da. 97-98 ikasturtean zehar, «Tierra Estella» BHIko DBHko bigarren mailako ikasleek hasierako proposamen gehienak ikasi eta ebaluatu zituzten, María Victoria Izal eta Javier Zúñiga irakasleek zuzenduta. Haien lanak aukera eman digu hasierako gure planteamendua berresteko, elementu batzuk alde batera uzteko eta aurreikusita ez genituen beste elementu batzuk sartzeko. Beraz, haiek ere proiektu honen egileak dira, neurri batean.

Baina lan hau behin-behinekoa baino ez da. Nafarroako ikastetxe guztietako DBHko lehen zikloko irakasle eta ikasle guztien eskuetan, bere egiazko xede diren horien eskuetan, jarriko da orain. Soilik haien balorazioa positiboa bada, gai hauek behin betiko onartuta geratuko dira. Halaber, uste izatekoa da onarpen horrek berekin ekartzea, ezinbestean, proiektuarekin aurrera jarraitzeko modua.

Testuek eta egileok zor berezia dugu Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiarekin. Funtzionario askotan laidoztatu eta beste askotan azpibaloratuek osaturiko administrazio esparrua den horretan, gure kasuan –argi gera bedi– funtzionario eredu bati eska dakiokeen guztia jarri dute: kompetentzia, azkartasuna eta maitasuna. Eskerrik asko horiei guztiei.

AURKIBIDEA

MERINDADEAK PROIEKTUA NAFARROA BIGARREN HEZKUNTZAN

1. Historia irakastea, gaurkotasuna duen gaia	11
2. Irakaskuntzaren arian sorturiko proiektua	12
3. 1983-1997 aldiari buruzko ebaluazioa	13
4. Nafarroa DBHko eta batxilergoaren curriculumean	14
5. Jarduteko proposamena	16
5.1. Inspirazio printzipioak	16
5.2. <i>Merindadeak</i> proiektua	17
5.3. Lan taldea eta aurreikusitako egutegia	20
6. Unitate didaktikoak: planteamendu orokorra	20
6.1. Kontzeptuen eskema	21
6.2. Lanerako proposamenak	21
6.3. Baliabide didaktikoak	22
7. Oinarritzko bibliografia	23

1. UNITATE DIDAKTIKOA BIZIMODU ZAILA: EHIZATZEA, BILTZEA, PRODUZITZEA

1. Kontzeptuen eskema	26
2. Lanerako proposamenak	26
2.1. Sintesi historikoa: ulertuzko irakurketa	26
2.2. Bizirik irauteko borroka: ehiza eta bilketa	27
2.3. Bizimodu berriak: nekazaritza eta artzaintza	28
2.4. Historiaurreko gizakien lanabes eta erremintak	30
2.5. Lehen hiri asentamenduak	31
2.6. Euskara	34
2.7. Hiru aukera ikasgelaz kanporako	35
2.8. Sintesi pertsonala	37
3. Baliabide didaktikoak	38
3.1. Mapak	38
3.2. Bilakaera kronologikoa	42
3.3. Hiztegia	43
3.4. Zenbait liburu lagungarri	43

2. UNITATE DIDAKTIKOA
BASKOIAK ETA ERROMANIZAZIOA

1. Kontzeptuen eskema	48
2. Lanerako proposamenak	48
2.1. Sintesi historikoa: azpimarraketa	48
2.2. Baskoiak	49
2.3. Erromanizazio prozesua	50
2.4. Lurraldearen antolamendua. Hiriak eta bideak	52
2.5. Nekazari herrietako bizitza	55
2.6. Arte erromatarra Nafarroan	56
2.7. Erromanitatearen krisia. Kristautzea. Baskoiak eta bisigodoak	57
2.8. Hiru aukera ikasgelaz kanporako	60
2.9. Sintesi personala	63
3. Baliabide didaktikoak	64
3.1. Mapak	64
3.2. Bilakaera kronologikoa	66
3.3. Hiztegia	67
3.4. Zenbait liburu lagungarri	67

3. UNITATE DIDAKTIKOA
BEREZKO NORTASUNA: IRUÑEKO ERRESUMATIK NAFARROAKO ERRESUMARA

1. Kontzeptuen eskema	70
2. Lanerako proposamenak	70
2.1. Sintesi historikoa: eskema	70
2.2. Lurraldea eta kanpoko mehatxuak (VIII-X mendeak)	71
2.3. Iruñeko erresumatik Nafarroako erresumara (XI-XII mendeak)	72
2.4. Goiz Erdi Aroan Nafarroan bizi eta hiltzea	74
2.5. Burgoak eta burgesak: hiriko bizitzaren hasiera	76
2.6. Nafarrak agerian: Aymeric Picauden deskribapena	77
2.7. Gizarte anitz bat: hizkuntzak, erlijioak, kulturak	78
2.8. Hiru aukera ikasgelaz kanporako	79
3. Baliabide didaktikoak	84
3.1. Mapak	84
3.2. Bilakaera kronologikoa	90
3.3. Hiztegia	92
3.4. Zenbait liburu lagungarri	93

4. UNITATE DIDAKTIKOA
ERROMANIKOA ETA DONE JAKUE BIDEA

1. Kontzeptuen eskema	96
2. Lanerako proposamenak	96
2.1. Sintesi historikoa: laburpena	96
2.2. Done Jakue Bidea Nafarroan: ikuspegi orokorra	97
2.3. Erromesa	99
2.4. Erromanikoa Nafarroan: ikuspegi orokorra	100
2.5. Arkitektura erromanikoaren ezaugarriak	102
2.6. Done Jakue Bidea eta erromanikoa Nafarroan	103
2.7. Nafarroako erromanikoari buruzko laburpen-gida	104
2.8. Hiru aukera ikasgelaz kanporako	105

3.	Baliabide didaktikoak	113
3.1.	Mapak	113
3.2.	Bilakaera kronologikoa	116
3.3.	Hiztegia	117
3.4.	Zenbait liburu lagungarri	118

5. UNITATE DIDAKTIKOA

BITARTE MEHARREAN SARTURIKO ERRESUMA, HANDIEN GOGOKOA

1.	Kontzeptuen eskema	122
2.	Lanerako proposamenak	122
2.1.	Sintesi historikoa: prozedurak, aplikazio praktikoa	122
2.2.	Nafarroako errege-erreginak, nafar jatorria?	123
2.3.	Erresumaren egitura eta mugak Berant Erdi Aroan	124
2.4.	Erresumako erakundeak	125
2.5.	Populazioa eta gizartea XIV. mendeko Nafarroan	126
2.6.	Jarduera ekonomikoak	128
2.7.	Eguneroko bizitza Berant Erdi Aroko Nafarroan	129
2.8.	Hiru aukera ikasgelaz kanporako	131
3.	Baliabide didaktikoak	134
3.1.	Mapak	134
3.2.	Bilakaera kronologikoa	137
3.3.	Hiztegia	138
3.4.	Zenbait liburu lagungarri	138

6. UNITATE DIDAKTIKOA

FRANTZIAREN ERAGIN ESPARRUAN: GOTIKOA

1.	Kontzeptuen eskema	142
2.	Lanerako proposamenak	142
2.1.	Sintesi historikoa: prozedurak, aplikazio praktikoa	142
2.2.	Gotikoa Nafarroan: ikuspegi orokorra	143
2.3.	Arkitektura gotikoaren ezaugarriak	145
2.4.	Tenplu gotikoaren egitura. Tuterako katedraleko planta	148
2.5.	Eskultura: bi aro, bi pentsakera, bi estilo	149
2.6.	Erretaulak eta hormak: pintura gotikoa	151
2.7.	Nafarroako gotikoari buruzko laburpen-gida	153
2.8.	Hiru aukera ikasgelaz kanporako	154
3.	Baliabide didaktikoak	158
3.1.	Mapak	158
3.2.	Hiztegia	160
3.3.	Zenbait liburu lagungarri	161

MERINDADEAK PROIEKTUA

NAFARROA BIGARREN HEZKUNTZAN

Datozen orrialdeak bigarren hezkuntzako irakasleei zuzenduriko proiektu didaktikoaren aurkezpena baizik ez dira, nahiz eta ikasleak berak ere irakurtzeko modukoak diren. Hori dela eta, erabiltzen den tonua ez da estu-estuan zientifikoa, eta ez dakar berekin hezkuntzaren erreforman abian den prozesu osoarekin batera doan ezagutza teorikoaren egunean jartzea ere. Hezkuntza eta Kultura Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Departamentuak elkarrekin argitaraturiko **kutxa urdinetan** (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) eta Hezkuntza eta Kultura Ministerioak argitaraturiko **kutxa gorrietan** biltzen den dokumentazioak aukera ematen digu hemen azken horri buruzko iruzkinik ez egiteko.

Orrialde hauek bai izan nahi dute, ordea, abian den hezkuntzaren erreformari buruzko gogoeta bat, praktikaren eta ikasgelako iguripenen ikuspegitik egina, ereduaren azpian diren oinarri epistemologikoak azpimarratu baino gehiago balizko jarduketa eredu bat, langaien itxuran, aurkeztu nahi duena. Oraingo honetan, behintzat, irakasleen eguneroko lanaren hatsak gaindi dezala eredu teorikoaren perfekzio beharrezkoa bezain urruna.

Beraz, jarduteko proposamen zehatz bat aurkezten dugu DBHko bi zikloetarako eta batxilergoaren bigarren mailarako aurreikusi den Gizarte Zientziak, Geografia eta Historiaren arloko plan orokorrean Nafarroari buruzko eduki historikoak sartzen laguntzeko. Proposamen hori ondoko orrialdeetan adierazi, azaldu eta justifikatuko dugu.

1. HISTORIA IRAKASTEA, GAURKOTASUNA DUEN GAIA

«Humanitateak» deitu izan direnek halako atzerapen eta, are gehiago, ospea galtze bat jasan dute azken hamarkadetan, ustez funtzionalagoak diren arloekin alderatuz gero. Egoera hori, poliki bada ere, aldatzen hasia da, eta hala gertatzen ari da egiazko beharrak egon badaudelako. Garapen teknozientifikoak ez du bideragarritasunik ondoan ikuspegi humanistikoa eduki ezean.

Asko dira, izan ere, estu-estuan interes zientifikoa eta hezkuntzazkoa biltzen dituen eta esparru politiko eta sozialean eragin argia duen gai honen gaurkotasuna adierazten diguten datuak. Azken gertatu direnak soilik aipatzearen, batxilergo berrian humanita-

teak indartu nahi izana, aurreikus zitezkeen eta beharrezkoak diren aldaketak aztertze-ko adituen batzorde bat izendatu izana eta batxilergoan ikasgai hautazko berri bat **-Nafarroako Geografia eta Historia-** agertu izana, gizartean ematen ari den eztabaidaren atal bat besterik ez dira.

Beste aldetik, aldizkari espezializatuak ere sortu dira. «Iber», gizarte zientzien, geografia eta historiaren irakaskuntzari buruzkoan, eta «Cuadernos de Pedagogía» edo «Aula de innovación educativa» bezalako aldizkari orokorretan, leku garrantzitsua ematen zaie gai hauei buruz gogoeta egiteari eta esperientzia praktikoak islatzeari; horiek gure azterketan sakondu beharraren adierazle argiak dira. Historia ikasi beharra azpimarratzeaz gainera, interesa eta garrantzia duten bestelako gaiak ere planteatu behar dira. Historia ikasi bai, baina zer nolako historia ikasi? Hona zer dioen «Iber» aldizkariak bere aurkezpen gutunean, 1994ko uztailen: «Irakaskuntzan, historiaren historia ez da zorioneko historia bat, egia esan. Oro har, XIX. mendean sartu zen mendebaldeko hezkuntza tresnetan, errealitate politiko eta sozial gailenen mesedeko heziketa ideologikoa emateko. Goraipamen politiko eta militarrez beteriko diskutso baten ardatzaren inguruan sorturiko kontakizun linealak izan dira hamarkada luzeetan Historiak ikasgeletan utzi duen irudia. Kontakizun monolitikoak, zabalik ate bakarra uzten zutenak: memori-zazioa. Historia tradizionalak ikasgelan izan duen paperaren aurka egite honek XX. mendean zehar ere badu zeri heldu. Disziplinaren birplanteamendu epistemologikoen eta korrante psiko-pedagogikoen bilakaerak ikasgeletan gai honetan ere aldaketak ekartzen lagundu zuten, nola-eta Historia paper ideologikotik deszentratuz eta gizabanakoaren prestakuntza integralerako prestakuntzazko baloreak azpimarratuz. Horrela, hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, batez ere, ikusi izan dugu Historia ikasgeletan irakastearen helburua askoz ere anitzagoa izan dela eta askoz ere Historia zabalagoa irakatsi izan dela, gizabanakoaren beharretatik hurbilago. Aurrerapausu hauen aldean, ordea, ez da gertatu planteamendu didaktikoen neurri bereko aurrerakuntzarik. Egitate eta kontzeptuen memorizazio mekanikoak metodologia nagusia izaten jarraitu du, tarte-ka -kasurik onenean-, testuen iruzkinak eginez, edo mapa historikoak prestatuz edo monumentu-multzoetara edo museoetara bisitak eginez. Gaur ere, ikasgeletan Historiaren garapen didaktikoa egiteari doakionez, garrantzizko defizita dago».

Horri buruz, argigarri gerta daiteke 1997an, lehenbiziko aldiz, Santanderko «Universidad Internacional Menéndez Pelayo» izenekoak *Zer nolako historia irakatsi* izeneko prestakuntza ikastaroa programatu zuela bigarren hezkuntzako irakasleentzat.

2. IRAKASKUNTZAREN ARIAN SORTURIKO PROIEKTUA

Aurreko puntuko aipamen zabalean bilduriko kezkek, neurri handi batean, gure irakaskuntzaren ibilbidea ere biltzen dute. Bi egileok irakaskuntzari lotuta gaude, bata unibertsitatean eta bestea erdi mailako hezkuntzan, eta gure ibilbide ezberdin baina komunean dugun lotura esparru hurbilena izan da, alegia, Nafarroako historiaren ikasketa, programa ofizialetan sartzeko ardura, langintza horrek berekin dakarren gai egokituaren prestaketa eginez.

Ardura hori 1981ean Alcalán egin ziren Geografia eta Historiako irakasleentzako berariazko Lehen Jardunaldietan aurkezturiko «*La inserción de la historia regional en los planes de estudio del BUP*» izeneko komunikazioan adierazita dago. Defendatutako tesi nagusia izan zen Nafarroari buruzko ikasketari tokia egin behar zitzaiola. Erabil daitezkeen hiru formulen artean –lurraldeko orientazioko edo orientazio nazionalistako testu liburua, testu gehigarria eta unitate didaktiko osagarriak–, hirugarrena izan zen hautatu genuena.

Ikasgelako lanaren osagarri, 1982ko apirilean emandako ikastaro batean zuzendari-kideak ginen. Ikastaroa Lanbide heziketako eta Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasleei eman zitzaien «Nafarroako Kultura Irakaskuntzan Sartzeari buruzko Mintegia» izenekoaren barruan; hartan, funtsean, jakitera eman genuen ikasgeletan esperimentaturiko unitate didaktikoen metodologia.

Bertaratu ziren irakasleek eskatutakoari jarraituz, unitate didaktiko horiek argitaratu egin ziren, Javier Itúrbideren laguntzarekin, *Navarra, historia y arte. Doce guías para su estudio* izenburupean. Argitalpen horren –5.000 ale kaleratu ziren– aitzinsolaesan metodoaren justifikazioa, hautapena eta deskribapena aztertzen dira; hura irakurtzea, beraz, puntu hau xehetasunez garatzeko lanaren aringarri izan daiteke.

Hala urteak igaro izanak, nola hezkuntza sistemaren antolamendu berriak ekarritako Nafarroako historiaren ikasketarako interes bereziak, ondokoa egiaztatzeko balio izan dute: alde batetik argitalpen eta langai ugari dago Nafarroako historiari buruz; beste aldetik, ikasgelan lantzeko bereziki pentsaturiko gai gutxi dago, oro har, eta are gutxiago bigarren hezkuntzako ikasleentzako. Gure proposamenaren helburua, beraz, antzemandako behar horri, ahal dela, konponbidea ematea izan da.

3. 1983-1997 ALADIARI BURUZKO EBALUZIOA

Aipatu dugun argitalpena kaleratu zenetik ia 15 urte pasa dira eta urte horietan Nafarroako bizitzaren aldi bereziki trinkoa iragan da. Ondokoak dira aipa litezkeen mugarietako batzuk: Nafarroa Foru Komunitate gisa sortu eta garatu zen Espainiako Konstituzioaren eta Foru Hobekuntzaren testuinguruan; Nafarroak hezkuntza arloko transferentziak bereganatu zituen, eta horrekin batera Nafarroako hezkuntza sistema bere osotasunean planifikatu beharra, hezkuntza antolatzea eta berritzea barne; Nafarroako Parlamentuaren lege baten bitartez Unibertsitate Publikoa sortu zen, izan ere asmo historiko baten erdiestea izan dena eta gure historia aztertu eta zabaltzera emandako ekipoak sortu eta sustatzeko bidea eman duena; eta ikerketa historikoak egitera emandako sozietate eta institutuak sortu dira eta kasuan kasuko kongresuak egin dira –horrek gure ezagutzak berraztertzeke aukera eman digu–.

Ondorioz, azken hiru bosturteko hauetan, Nafarroari buruzko eduki historikoak berraztertu egin dira, bereziki garai hurbilenei dagokienez, eta eduki horien zabalkunde mailako lanen ugaltzea gertatu da. Hala eta guztiz ere, espero zitekeenaz bestera, ez dira ugari eta ez bereziki egokiak, salbuespenak salbu, Nafarroako historia lehen eta bigarren

hezkuntzan zabaltzeko berariaz egindako testuak. 355-416 orrialdeetan, M.E. Guibertek **kutxa urdinetako Gizarte Zientziak, Geografia eta Historiari** buruzko liburukian egindako bilketa erabilgarri eta eraginkorra bilduta dago; hori dela eta, eta ez du merezi bestelako iruzkinik egitea. Gehiago sakontzeko asmoz, ahalegin berezia egiten badugu Nafarroako Historiaren didaktikan, ikuspegia ez da bereziki pozgarria. «Nafarroan, antzinatik kezka eta interesa egon da Nafarroako Geografia eta Historiaren ikasketak eskolatan sartzeko» esan izan den arren, arlo honi buruzko bibliografia, baliabideak eta lanean ari diren erakunde eta kolektiboak liburu honetako azken bederatzi orrialdeetan sar daitezke.

Ondorioa argia da: Nafarroako irakasleek eta ikasleek balio eta interes irregularreko langai ugari dituzte; ez dute eskura, ordea, oinarrizko testu bat, Nafarroako historiaren oinarrizko gakoak laburbilduko dituen, ez eta zikloen arabera antolatutako langai-rik ere, mendeetan zehar eraturako errealitate historikoaren alderdi ezberdinak lantzeko balioko dietenak.

4. NAFARROA DBHKO ETA BATXILERGOAREN CURRICULUMEAN

Nafarroari buruzko edukien tratamenduak funtsezko aldaketa kualitatiboa izan du azken aldi honetan. Orain arte logikan eta lurralde-ingurunera egokitze zentzuzkoan oinarrituriko ariketa izan dena, legezko agindu bihurtu da LOGSE eta bera garatzeko arauak indarrean sartu ondoren.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculuma ezarri zuen otsailaren 22ko 67/1993 Foru Dekretuak etapa horretako bi zikloetan zehar ikasi beharreko gai gisa egituratu zuen Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia arloa.

Dekretuaren eranskinean, sarrera eta helburu orokorren aipamena egin ondoren, edukiak xehe-mehe ematen dira. Horien barruan, 6. multzoa **Nafarroako iraganari eta orainaldiari** buruzkoa da. Hauek dira hor agertzen diren lerroaldeetako batzuk:

«Multzo honetan zehaztu egiten da azterketa historikoa, bai sinkronikoa, bai diakronikoa, oso errealitate ezaguna baitago aztergai: Nafarroa, hain zuzen ere. Lortu nahi da irakasleek beren Komunitateaz ikuspegi historikoa izan dezatela, ingurarekiko estima eta egokitasun harrerak garatzeko.

Afera ez da bereizkeriarik sustatzea edo historiaren toki ikuspegi-rik ekartzea, norberaren historia zabalagoak diren egoeretan kokatzea baizik, autonomia politikoa eta izaera geografiko, kultural eta historikoa duen Komunitatearen oroigarri historiko gisa-ko nortasuna galdu gabe.

Ez da Nafarroako historia sakonean aztertu nahi, Nafarroako Foru Komunitatearen gaurko errealitatea osatu duten gertaera historikoetara hurbildu baizik.

Multzo bereiztuan azaltzagatik ez da modu isolatuan aztertu; posible da beste Multzo batzuekin osatzea, Nafarroari buruz aztertu den errealitatea noizbait nabarmenduz».

Ondoren, erdietsi nahi diren kontzeptu, prozedura eta jarrerren aipamena agertzen da. Lehenbizikoei buruz ondokoak aipa daitezke:

- «1. Nafarroako historiako gertaera inportanteak: baskoiak, erromatarkuntza, Iruña-Nafarroako Erresuma, Gaztelako Erresumarekin bat egitea, liberalak eta karlistak...
2. Nafarroako ondare kultural eta artistikoa: historiaurreko aztarnak, erromatarren heredentzia, Done Jakue bidea, humanistak, Ilustrazioaren eragin kulturala...
3. Gaurko Nafarroaren batasuna eta haren kultur aniztasuna.
4. Herriko historia, kultura eta artera hurbiltzea.

Azpimarratzekoa da edukien beste multzo batzuetan ere Nafarroa aipatzen dela:

- «1. Geografia eta Ingurugiro alorra.
2. Bizilagunak, herria eta hiria.
3. Ekonomia eta politika.
7. Gaurko munduko partehartze, botere eta gatazka politikoak».

Gure proposamen zehatza historiaren bilakaeran zentratzen da berariaz, alde batera utzita esplizituki esparru geografiko -bere aldaki ezberdinetan- eta instituzionalen garapena.

Gogoeta bera egin daiteke batxilergoari buruz. Hezkuntza etapa honetako bigarren mailarako, Espainiako Historia aurreikusten da ikasgai komun gisa. Dagokion sarreraren ondotik, helburu orokorrak azaltzen dira. Hauxe dio lehenbizikoak:

«Gai honen garapenak ikasleei lagundu behar die gai izaten Espainia eta Nafarroa garaikideetako gertaera eta gertakizunak azaltzeko. Horretarako denbora eta lekuak egoki jarri behar dituzte. Gertaera horien esanahi historikoa eta egungo ondorioak baloratu behar dituzte».

Ondotik eman ditugu hasiera batean agertzen diren edukiak:

- «1. Ezagupen historikorako iturri eta prozedurak.
2. Espainia eta Nafarroa garaikideen sustrai historikoak.
3. Estatu liberalaren eraikuntza eta saio demokratizatzaileak. Foruak eta Iraultza liberala Nafarroan.
4. Espainia eta Nafarroa Errestaurazioan.
5. Espainia gerrarteko munduan.

6. Espainia eta Nafarroa Frankismoan.
7. Zuzperraldi demokratikoa Espainian eta Nafarroan».

Azkenik, edukiei buruzko aipamen arin honetan, proiektuaz kanpo gelditu den arren, batxilergoko curriculumean agertzen den aukerako gai berria, **Nafarroako Geografia eta Historia**, aipatu beharrea gaude. Lehenbiziko edo bigarren mailan ikas daitekeen ikasgai hau ikasle guztiek hauta dezakete, aukeratu den modalitatea gora-behera.

5. JARDUTEKO PROPOSAMENA

Aurreko gogoeta horiek -haien ondorioz esan daiteke Nafarroako bilakaera historikoa ikasteko legezko eta egiazko beharra dagoela bigarren hezkuntzako ikasleentzat, berriaz pentsatutako edukien eta metodologia baten bitartez- hemen gainetik azalduko dugun jarduketa proposamen honetan zehaztu dira.

5.1. Inspirazio printzipioak

1. Jarduketa proposamenaren azken hartzaileak bigarren hezkuntzan ari diren Nafarroako ikasleak dira. Ondorioz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaiera aldean, ikasleek Nafarroako bilakaera historikoaren funtsezko mugarriak ezagutzeko aukera izan behar dute, hasi historiaurretik eta gaur egun arte.

Espainiako Historia ikasgaia ikasten ari den batxilergoko 2. mailako ikaslearentzat, Nafarroa garaikidea egituratzen duten alderdi nagusien ezagutzan sakontzea izan da.

2. Aurrekoaren ondorioz, edukien zailtasuna, zehaztasuna eta konplexutasuna ikasleen garapen kognitibo progresiboari egokitu beharko zaizkio. Beharrezkoa da, beraz, oinarrizko mailatik hasia -DBHko lehen zikloari dagokion maila-, erdiko mailarekin jarraitzea -alegia bigarren ziloarekin dagokionarekin- eta konplexutasun hadiena duen mailarekin bukatzea, izan ere batxilergoko bigarren mailako ikasleek dagokien bezala.

3. Nafarroaren ikaskuntza DBHko eta batxilergoko curriculumean aurreikusiriko eduki orokorretan sartzen da. Beraz, derrigorrezko osagarria da, Europa edo Nazio mailako ikuspegi sarturik, eta ez beste inola, ulertu behar dena.

4. Edukiek nolabaiteko autonomia funtzionala dute; beraz, ikastetxe bakoitzean aurreikusiriko sekuentziari egokitzen ahal zaizkio. Aukerak ugari badira ere, **kutxa urdinetako Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia** arloari buruzko liburukiaren 86-89 orrialdeetan aurreikusiriko edukien sekuentziaziotik abiatuko gara. Argitaletxeek eskaintzen dituzten langaiak aukera ezberdinez baliatzen dira, baina hemen jaso dena guztien artean gehien erabiltzen dena da.

5. Proposamenaren abiapuntua ikasturteak eskaintzen dituen aukeren ikuspegi errealista da. Gehienez ere 7-8 asteko aldi batez –astebete ohiko ikasturteko hilabete bakoitzeko– eta astean hiru orduz ari gara. Ziklo bakoitzerako aurreikusi diren jardueretarako, beraz, 20-25 klase ordu erabil daitezke.

6. Proposamena lanerako zenbait langaitan zehazten da. Langai horiek metodologia aktiboan oinarrituta daude eta nolabaiteko autonomia funtzionala dute ikaslearentzat; hori dela eta, une historiko bakoitzaren alderdi aipagarrienetara hurbiltzeko bidea ematen dute. Hala eta guztiz ere, ikusirik hezkuntza maila hauetarako bereziki pentsaturiko testurik ez dagoela, gaiak kontsulta liburu oinarritzko batekin osatu dira, konplexutasun handiagoa duena eta etapa osorako 200 orrialde baino gutxiago dituen.

7. Proposamena «irakasle arruntek» erabiltzeko pentsatuta dago. Horrek ez du iraingarri izan nahi inolaz ere: beren eginbeharra duintasunez bete nahi baina berariazko gaiak beren aldetik prestatzeko prest ez dauden irakasleei buruz ari gara, izan ere eduki horiek modu antolatuan eta dauden beharretara egokituan eskaintzea eskertuko luketen irakasle horiei buruz.

8. Proposamena langaiak ikasgelan esperimendatzetik hasi da. Gai hauen esperimendazioa «Tierra Estella» Bigarren Hezkuntzako Institutuko Geografia eta Historia Departamentuko itzal handiko lanbide karrera duten iralaskerak baten laguntzarekin egin da, proposamenari buruzko alderaketa eta aurretiko ebaluazioa behar bezala bermatu ahal izateko.

9. Proposamenak gai errazak eta ikasle eta irakasle guztiek erabiltzeko modukoak ekarri nahi izan ditu. Beraz, tirada handiko langai gisa pentsatu dira, hezkuntza administrazioak zentro guztien eskura jartzekoak. Hortik heldu da haien diseinuan eta make-tazioan ekonomia, garbitasuna eta eskuragarritasuna luxuaren, kolorearen eta formazko alderdien gainetik egotea. Ekonomia hori, hala ere, diseinu erakargarri eta garbiarekin batera eman behar da, gaiak erabiltzeko modukoak izanen badira eta asko erabiltzea nahi bada.

10. Balizko beste eredu batzuen faltan, liburuxka autonomoaren bidea hautatu dugu argitalpen honetarako, hezkuntza maila hauetan gero eta gehiago erabiltzen denari jarraituz; ariketak aparteko koaderno batean egin beharko dira eta gero uztai-karpeta batean gordeko dira.

5.2. Merindadeak Proiektua

Izen historiko honek, XIII. mendetik hasita Nafarroaren bilakaeraren alderdi partikularrak eta alderdi orokorra uztatzen dituenak, proiektu orokorra osatzen duten gaien multzoa izendatzeko balio du. Proiektua lau koaderno didaktikok osatzen dute:

1. Nafarroako historiari buruzko sintesia, historiaurretik hasi eta gaur egun arte.
2. DBHko lehen ziklorako koadernoak: Nafarroako antzin aroari eta erdi aroari buruzko gaiak.

3. DBHko bigarren ziklorako koadernoak: Nafarroako aro modernoari eta aro garaikideari buruzko gaiak.

4. Batxilergoko bigarren mailarako koadernoak: Nafarroa garaikideari buruzko gaiak.

1. NAFARROAKO HISTORIARI BURUZKO SINTEZIA

Eskuliburu txiki bat da, bigarren hezkuntza osoan zehar ikaslea bere ikasteko prozesuan lagundu nahi duena. Hona haren edukiak:

I. Historiaurretik erdi arora: 50 orrialde inguru.

Bat dator, funtsean, DBHko lehen ziklorako oro har aurreikusi diren edukiekin. Erabilitako hizkuntza ere bat etorriko da, beraz, 12 urtetik 14 urtera bitarteko ikasleen garapen kognitiboarekin.

II. Aro Modernoa.

III. XIX. mendea.

IV. XX. mendea.

Multzo horietako bakoitzak orrialde kopuru antzekoa du, 50 inguru.

Horien edukiak baliagarria izan behar du ikasleari garai horiei buruzko ikuspegi orokorra emateko. XIX. eta XX. mendei dagokionez, ikuspegi hori laburra izanen da DBHko bigarren zikloan. Mende horiei buruzko ezagutza, berriz, sakonagoa izanen da batxilergoko bigarren mailan.

2. DBHKO LEHEN ZIKLORAKO KOADERNOA

NAFARROAKO ANTZIN AROARI ETA ERDI AROARI DAGOZKIEN GAIAK

Funtsean, ondoko unitate didaktikoei dagozkie:

- Historiaurrea
- Erromanizazioa
- Goiz Erdi Aroa
- Erromanikoa eta Done Jakue Bidea
- Berant Erdi Aroa
- Gotikoa

Guk uste osoa genuen ikasgela batean esperimentzeak beste ezerk ezin ziola proiektuari sinesgarritasuna eman; horregatik, bai *Sintesi historikoa*, bai gaiak «Tierra Estella» BHiko DBHko bigarren mailako ikasleekin erabili dira 97-98 ikasturtean. María Victoria Izal eta Javier Zúñiga ziklo horretako irakasleek txantilo batzuk prestatu zituzten gaiak ebaluatzeko. Ikasleek eta irakasleek egindako iradokizunetatik batzuk bukaerako erre-dakzioan sartu dira. Beste batzuk, berriz, gordeta ditugu, heldu den ikasturtean segurta-tu arte.

Unitate didaktikoetako bakoitzak ondoko elementuak biltzen ditu, hasteko:

- Edukien eskema, sistesi historikoari dagokiona; bidea ematen du tokia eta denbo-ra aurreikusitako jarduera bakoitzean behar bezala erabiltzeko.
- Lanerako proposamenak. Honelakoak izatea da gure asmoa: esanguratsuak, anitzak, ez ugariegiak (unitate bakoitzeko 6 eta 8 artean), eta nahiko autonomoak.
- Bestelakoak: aukera izatea, komenigarria bada, mapa iruzkinduak, ardatz krono-logikoak, hiztegia eta orientazio bibliografiko labur bat ere sartzeko.

3. DBHKO BIGARREN ZIKLORAKO KOADERNOA.

NAFARROAKO ARO MODERNOARI ETA ARO GARAİKIDEARI DAGOZKIEN GAIAK

Gehiago zehaztuko den arren, oraingoz sei unitate didaktikotan banatzea planteatu da lan hipotesi gisa:

- Espainiako monarkian sartzea (XVI, XVII eta XVIII. mendeak).
- Errenazimendua eta barrokoa.
- Erregimen Zaharraren krisia.
- Gizartea eta ekonomia XIX. mendean.
- XX. mendeko bilakaera politikoa.
- Modernizazioa, eraldakuntza eta berrikuntza XX. mendean.

Unitate bakoitza egituratzen duten elementuek lehen ziklorako aurreikusi den eske-ma berari jarrituko diote.

4. BATXILERGOKO BIGARREN MAILARAKO KOADERNOA.

NAFARROA GARAİKIDEARI DAGOZKION GAIAK

Hasierako proposamenak arlo hauek hartzen ditu:

- Ezagutza historikorako iturriak eta prozedurak.
- Nafarroa garaikidearen sustrai historikoak.

- Foruak eta iraultza liberala Nafarroan.
- Geldialdi ekonomikoa eta gizartearen iratzartze geldoa.
- Diktaduratik demokraziara bitartean.
- Hiriko gizartea, nekazari herrietako bihotza.

Aurreko ziklorako bezala, unitate bakoitzaren barruan hasiera batean aurreikusitako eskema mantentzen da.

5.3. Lan taldea eta aurreikusitako egutegia

Planteaturiko programa, handinahia eta orokorra izaki, ezin da soilik izan bi pertsonen lana ez eta ikasturte bakarreko lana ere: taldean egiteko lan gisa planteatu behar da. Hona parte hartuko duten irakasleak:

Koordinazio orokorra	Román Felones Morrás.
Nafarroako Historiari buruzko sintesia idaztea	Fermín Miranda García. Román Felones Morrás.
Proposamen didaktikoak erredaktatzea	Román Felones Morrás. Fermín Miranda García.
Gaiak DBHko lehen zikloan esperimentatzeko lankidetzeta	María Victoria Izal. Javier Zúñiga.
Gaiak DBHko bigarren zikloan eta batxilergoko bigarren mailan esperimentatzeko lankidetzeta	«Tierra Estella» BHIko Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia Departamentuko irakasleak.

Plana garatzeko egutegiak 97-98, 98-99 eta 99-2000 ikasturteak hartzen ditu.

6. UNITATE DIDAKTIKOAK: PLANTEAMENDU OROKORRA

Orain arte esandakoa ikusita, *Merindadeak* proiektuak funtsezko bi arlo ditu: *Sintesi historikoa*, jada aurkezteko eta ezagutzeko aukera izan duguna, eta unitate didaktikoak, ikasgelan lantzeko proposamenak: sei, ziklo bakoitzeko.

Bigarren hezkuntzako lehen zikloari dagokionez, itxura batean tipologia zurruneak dira; halabaina malguak dira barrutik. Ondoren azalduko ditugu.

6.1. Kontzeptuen eskema

Unitate didaktiko guztiak kontzeptuen eskema batekin hasi behar dira, ikasleak gertakizunak zuzen kokatzeko modua izan dezan eta testuaren ulertuzko irakurketa egin dezan.

6.2. Lanerako proposamenak

Unitate didaktiko bakoitzaren funtsezko atala dira. Zortzi inguru dira, baina hiru mota nagusi daude.

1. proposamena

Azken helburua *Sintesi historikoan* bildutako edukiak ulertzea du. Ulermen hori errazteko eta prozedurak modu jarraian eta antolatuan erabiltzeko, unitate didaktiko bakoitzak **ikasteko teknika** batean sakontzen du, gradazio honen arabera: ulertuzko irakurketa, azpimarraketa, eskema, laburpena eta multzoaren aplikazio praktikoa.

Kasuan kasuko teknika unitateko eduki guztiei edo zati bati aplikatzen ahal zaie, ikasleek ematen dituzten aukeren aurabera.

2.etik 7.era bitarteko proposamenak

Hauen helburua da arreta deitzea edukien gakoei buruz. Lanerako proposamenak diren aldetik, horietako bakoitzak osotasunarekiko koherentzia gordetzen badu ere, halako autonomia funtzionala dute; beraz, ez da ezinbestekoa izanen aurrekoak burutzea ondokoak erabili ahal izateko. Halaber, bakoitzaren barruan ere ez da beharrezkoa, baina bai komenigarria, proposatzen den guztia egitea. Irakasleak eta ikasleak beren autonomiaz baliatuko dira ikastetxe bakoitzaren berezitasunetara egokitzeke.

Unitate bakoitzaren proposamen gehienak **erdi mailako ikasleentzat** pentsatuta daude, izan ere halakoak direlako ikasgelako ikasle gehienak. Hala eta guztiz ere, irakaskuntzan ari garenok aski ongi dakigu ikasle askok jarduera gehigarriak eta zabaltzeko jarduerak behar izaten dituztela. **Aniztasunari arreta** egitea, hezkuntza sistema berriaren oinarritzko gaia dena, honela islatuko da proposamenetan:

- **Gutxieneko edukiei** dagozkien jarduerak. Letra etzanez emanen dira.
- **Zabaltzeko jarduerak**. Aurretik □ jarri diegu.

8. proposamena

Honen helburua da kasuan kasuko unitatean ikasleak bereganatu dituen ezagutzen sintesia egitea. Kontua da 1. proposamenean erabilitako ikasteko teknika berreskuratu eta ikasleak jarduera pertsonalagoa egitea, irakurri duenaz gainera kasuan kasuko unitateko lanerako proposamenak burutu ondoren bereganatu dituen ezagutzak ere erabiliz.

6.3. Baliabide didaktikoak

Unitate didaktiko bakoitzaren bukaeran dagokion garai historikoa hobeki ezagutzeko behar diren gaiak jarri ditugu. Batzuk finkoak dira eta beste batzuk kasuan kasukoak, proposamen eta aukeren arabera.

Finkoak:

- **Mapak:** unitate didaktikoan ikasitako oinarrizko alderdiei buruzkoak.
- **Hiztegi berezia:** kontua ez da eduki orokorrak ikasteko jada ezagutzen diren hitz gakoak errepikatzea, baizik eta garrantzi berezia ematea Nafarroako lurraldea aztertze-ari bereziki lotu behar zaizkion kontzeptuei, halakorik badago.
- **Zenbai liburu lagungarri.** Helburu bikoitza du. Lehenbizi, irakasleari unitate didaktiko bakoitzari buruzko oinarrizko bibliografia ematea, testu bakoitzari buruzko iruzkin laburra barne, derrigorrezko bigarren hezkuntzaren testuinguruan duten balioa azalduz. Bigarrenik, bibliografia horrek bidea eman beharko dio ikasleari eta bereziki ezagutzak zabaltzeko jarduerak behar dituenari, halako jarduerak egiteko. Hasiera batean aurreikusitakoa baino jarduera-eremu zabalagoa emanen zaio horrela.

Kasuan kasukoak:

Unitate didaktikoaren gaiaren arabera komenigarria denean, **bilakaera kronologikoa** jarri dugu, gertaera garrantzitsuak edo garrantzi handia izan zuten pertsonak denboran kokatzen laguntzeko.

7. OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

Unitate didaktiko guztietan interes handieneko testu edo eskuliburuak ez errepikatzearren, laburpen batean bildu ditugu hemen arrazoi batengatik edo bestarengatik ezinbestekoak direnak:

GUIBERT, M.E., ARROYO, T. eta JUANBELTZ, J.I., , *Guías didácticas para la enseñanza de la geografía, historia e instituciones de Navarra en E.G.B. (Prehistoria, Historia Antigua y Media de Navarra-Ciclo Superior)*, Iruña, 1985.

Izenburuan argi aski adierazten den bezala, gida hauek ez datoz bat gaurko hezkuntza sistemarekin; hala ere, testu honek oraindik hasiera batean zuen interes pedagogikoa eta asmo berritzailea mantentzen ditu.

Datutegi ona da, bestalde, informazioa biltzeko, dokumentuak hautatzeko, hiztegi berezia kontsultatzeko edo lanerako proposamenak iradokitzeke. Hala ere, irizpide finkatuak izatea eskatzen du erabili ahal izateko. Egokia da, beraz, irakasleek duten informazioa osatzeko edo ikasleek ezagutzak zabaltzeko zenbait ariketa egiteko.

Historia de Navarra, Kreseilu, Donostia, 1990.

Liburu honen aurkezpenean esaten da Nafarroako erresumari buruzko **lehenbiziko orotariko historia** dela, eta baieztapen hori egia da neurri batean. 450 orrialdeetan, ikerlari gazteen talde batek, horietatik gehienak A.J. Martín Duqueren eskolari lotuak, ahaleginak egiten ditu sintesi historiko zehatz eta orokor bat egiteko Nafarroako herriaren ibilbide hisotrikoari buruz, eta neurri handi batean lortu ere lortzen dute. Liburua oraindik ere gehiegi makurtzen da antzin arora eta erdi arora, baina Nafarroa modernoaren eta garaikidearen pisu historikoa ere hartu eta orekatu nahian. Oso liburu baliagarria da.

Garai eta egileen arteko ezberdintasunak ez dira oztopo gaur egun ere esan ahal izateko horixe dela Nafarroako historiaren hastapenak ikasteko eskulibururik onena.

Historia de Navarra, Iruña, 1993-1995, 5 liburuki.

Aurrekoa salbu, Nafarroari buruzko historia osoa aurkezten zuen lanen gabezia 5 liburuki dituen lan hau Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin ateratzean bukatu zen. Zabalkunde mailako liburu izateko asmoz sortutako liburu da, ezberdina gaien luze-laburraren eta ikuspegiaren aldetik; hala ere, tonu orokor egokia mantentzen du orrialde gehienetan.

Testu erakargarria da aurkezpenaren aldetik, ongi maketatua, egokia argazki, mapa eta ilustrazioetan. Tamaina alde batera utzita, testu baliagarria da interesa duten ikasleek Nafarroako historia ikasten hasteko.

CARRASCO, J. eta FLORISTÁN, A., (Koordinatzaileak), *Historia ilustrada de Navarra*, Iruña, 1993, 2 liburuki.

Diario de Navarra-k 41 faszikulutan argitaraturiko Nafarroako Historia honek, 23 historialarik idatzitakoak, zenbait alde txar baina zalantzarik gabeko alde onak ditu. Lehenbizikoen artean, azpimarragarriena tratamenduaren, ikuspegiaren eta kalitatearen aniztasuna da. Interes handiena duten kapitulu askoren ondoan, balio eskasa duten gutxi batzuk ere badaude.

Alde onen artean, balio handikoa da **historia ilustratua** izatea: irudi, mapa eta grafikoek aplikazioa testuen zati bat da, testu horiek arinago eta erakargarriago egin nahian, betiere zehaztasuna galdu gabe.

Irizpide egokiarekin erabiliz gero, baliagarria izan daiteke zenbait lan egiteko, bereziki ezagutzak zabaltzeko beharra duten ikasle horientzat.

FLORISTÁN, A., eta MARTÍN DUQUE, A.J. (Koordinatzaileak), *Atlas de Navarra*, Iruña, 1977.

Lan honek, hogeitun urte baditu ere, balio osoa du gaur egun; Nafarroako geografia eta historia ikasten hasteko liburu klasikoa bihurtu da.

Zenbait urte beranduago argitaratuko zen *Gran Atlas de Navarra* lanak aise gainditu zuen lehenbizikoa, baina duintasunez jasan du ikerketa berrien bultzada. Zabalak handia izan zuen bere garaian. Ikasleek erabiltzeko erraza da eta oso gomendagarria.

1. UNITATE DIDAKTIKOA

BIZIMODU ZAILA: EHIZATZEA, BILTZEA, PRODUZITZEA

1. KONTZEPTUEN ESKEMA

2. LANERAKO PROPOSAMENAK

- 2.1. Sintesi historikoa: ulertuzko irakurketa
- 2.2. Bizirik irauteko borroka: ehiza eta bilketa
- 2.3. Bizimodu berriak: nekazaritza eta artzaintza
- 2.4. Historiaurreko gizonaren lanabes eta erremintak
- 2.5. Lehen hiri asentamenduak
- 2.6. Euskara
- 2.7. Hiru aukera ikasgelaz kanporako
- 2.8. Sintesi pertsonala

3. BALIABIDE DIDAKTIKOAK

- 3.1. Mapak
- 3.2. Bilakaera kronologikoa
- 3.3. Hiztegia
- 3.4. Zenbait liburu lagungarri

1. KONTZEPTUEN ESKEMA

1. Lehen biztanleak.
 - 1.1. Behe-Paleolitikoa.
 - 1.2. Gizaki berriak eta trebetasun berriak Erdi-Paleolitikoan.
 - 1.3. Gaurko gizakiaren iritsiera.
 - 1.4. Artearen sorrera.
 - 1.5. Transizio garai bat.
2. Kultura sedentarioak. Nolitikitik Protohistoriara.
 - 2.1. Nekazari eta albeltzainen hasiera. Neolitikoa Nafarroan.
 - 2.2. Hildakoen zaintza. Megalitismoa.
 - 2.3. Artea.
 - 2.4. Hizkuntza.
 - 2.5. Protohistoriako migrazioak.

2. LANERAKO PROPOSAMENAK

2.1. SINTESI HISTORIKOA: ULERTUZKO IRAKURKETA

Lanerako dituzun trenetan garrantzitsuenetako bat da irakurketa. Garai edo gertaera historiko bat ezagutzen hasteko behar duzun informazioa emanen dizu.

Nafarroako historiaurreari buruzko datu historikoak laburtuta aurkituko dituzu *Sintesi historikoa* izeneko orrialdeetan. Garai hori ongi ezagutzeko ondoko pausuak ematea gomendatzen dizugu:

- Ikasi beharreko gaia orokorrean irakurri. Horrek bidea emanen dizu gaia zertan datzan oro har ezagutzeko, eta zer atal eta zer zailtasun dituen ikusteko. Komeni da atalen banaketaz eta haien izenburuez ongi ohartzea eta oinarrizko ideiak non dauden kokatzea.
- Ondoren, irakurketa pausatuago bat egin dezakezu, bigarrena, kontuz eta arretaz. Lerroalde guztiak banan-banan irakurri behar dituzu, haien edukia ulertuz eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiziz.

Aurreko iradokizunei jarraituz, azter ezazu *Sintesi historikoa* deritzan puntuaren 1.1. atala.

- ❶ Irakurketa orokorrean, adierazi zein den ikasten ari zaren gaia.

② Irakurketa pausatuagoan, bigarreanean:

- *Saia zaitetz, irakaslearen eta hiztegiaren laguntzaz, testuan agertzen diren termino guztiak ulertzen.*
- *Atera itzazu ideia guztiak, nagusiak eta bigarren mailakoak bereiziz.*
- • *Idea nagusiak eta bigarren mailakoak aipatzeko, erabili itzazu testukoez bestelako terminoak eta adierazpideak.*

2.2. BIZIRIK IRAUTEKO BORROKA: EHIZA ETA BILKETA




Iturria: Maurice Wilsonen margoa: ITURBIDE, J. eta FELONES, R., Navarra, historia y arte, Iruña, 1982, 39. or.

- ① *Begira ezazu arretaz irudia. Erreferentzia moduan erabili behar duzu.*
- ② *Deskribatu eszena hori hitz gutxitan.*
- ③ *Zein jarduera agertzen dira argi eta garbi irudikatuak?*
- ④ *Adierazi ehizatzekeo bestelako prozedurak, eszena horretan biltzen ez direnak.*
- ⑤ *Adierazi aurrekoen osagarri diren beste jarduera edo bizimodu batzuk.*

- ⑥ Historiaurreko zer garairi dagokio hori bezalako eszena bat?
- ⑦ Unitate didaktiko honekin batera erantsi diren mapez baliatuz, adierazi Nafarroako zein alde edo herritan gerta zitekeen hori bezalako eszena bat. Koka itzazu mapa batean.
- ☐ ⑧ Bibliografian gomendatutako testuetako batzuk hartuta, adieraz ezazu Nafarroan aurkituriko animalien espezieak eta horiek ehizatuko zituzten gizonen arrazak. Koka itzazu denbora-ardatz batean.

2.3. BIZIMODU BERRIAK: NEKAZARITZA ETA ARTZAINTZA

- ① Defini itzazu arintasunez eta koka itzazu denboran zein aldi nagusitan agertzen eta garatzen diren bizimodu berri horiek Nafarroan.
- ② Aipa eta defini itzazu garai hori bereizten dituzten hiru berrikuntza tekniko-kultural handiak.
- ③ NEKAZARITZA




Igital hortzak, erabilera.

Iturria: SÁNCHEZ, A.C. eta UNZU, M., *Prehistoria y Edad de Hierro*, Iruña, 1982, 24. or.

- Zertarako erabiliko zen hori bezalako lanabes bat?
- Zerez eginda dago?
- Zer berrikuntza dakar hura erabiltzeak?
- Noiz eta non agertzen dira Nafarroan horren antzeko lanabesak?


4 MEGALITISMOA*



Longarrekoko hipogeoko* planta eta profila.

- Defini ezazu egitura arkitektoniko hori eta koka ezazu dagokion etapa historikoan.
- Aipa itzazu monumentu megalitikoaren bestelako motak eta adierazi zein diren Nafarroako lurraldean diren adibide bereizgarriak.
- ☐ • Irakaslearen eta bestelako testuetako argazki eta marrazkien laguntzarekin, saia zaitez Longarrekoko hipogeoko planta eta profila deskribatzen. Nafarroan badaude horren antza handia duten beste bi monumentu megalitiko, zein dira?

5 METALURGIA



Iturria: SÁNCHEZ, A.C. eta UNZU, M., *Prehistoria y Edad de Hierro*, Iruña, 1982, 25. or.

Aurreko marrazkia aztertu ondoren –izan ere, bertan azaltzen dira aizkora bat egi-
teko faseak–, egin itzazu ondoko jarduerak:

- *Aipa itzazu gizakiak erabili zituen lehen metalak eta nola erabiltzen zituen.*
- *Azal ezazu metalak urtzeko erabiltzen zen prozesua.*
- *Etapa honetako zer nolako metalezko tresna ezagutzen dituzu?*
- Aipa itzazu gehien erabiltzen diren metal urtuak eta koka itzazu kronologikoki.
- Aipa itzazu harri landu eta leunduaren eta metalen arteko ezberdintasunak, eta metalak haien aldean dituen alde onak.

2.4. HISTORIAURREKO GIZAKIEN LANABES ETA ERREMINTAK

Hona hemen historiaurreko gizakiak erabiltzen zituen tresna bereizgarrienak, Nafarroako lurraldean aurkitu direnak:

- | | |
|-----------------|-----------------------|
| - Bifaza. | - Gezi punta. |
| - Karraskailua. | - Aizkora leundua. |
| - Laska*. | - Brontzezko aizkora. |
| - Arpoia. | - Burdinezko trabesa. |

❶ *Defini ezazu horietako bakoitza.*

❷ *Goian aipaturiko elementuak hartuta, egin ezazu koadro txiki bat ondokoak aipatuz:*

-tresnaren izena	-zertarako balio duen	-garaia
------------------	-----------------------	---------

❸ *Adierazi garai bakoitzean Nafarroako lurraldean bestelako zein tresna erabili ziren, guk dakigula.*

☐ ❹ *Unitate honekin batera doazen mapak erabiliz, adieraz eta koka ezazu txantilo batean, deskribatutakoen antzeko lanabesak Nafarroako zein aztarnategi nagusitan aurkitu diren.*

❺ *Nafarroako Museoak ikasleen eskura jartzen du historiaurreko materialen kopiak biltzen dituen maleta bat; zure ikastetxeak eska dezake. Azter itzazu objektu horiek, har itzazu esku artean eta saia zaitez asmatzen nola erabiltzen ziren: horixe da urruneko garai haietara hurbiltzeko modurik egokiena. Horretarako modua baduzu, ez ezazu dudarik egin, erabil ezazu.*

2.5. LEHEN HIRI ASENTAMENDUAK

① GARAI HARI BURUZKO IKUSPEGI OROKORRA

«Garai horri dagokionez, Lehen Burdin Aroa (Kristo aurreko 900/850 urteetatik 500/450 urteetara) eta Bigarren Burdin Aroa (azken horretatik hasi eta erromanizazioa bitartean) bereizi behar dira. Ebroko arroan eta Mesetan, Burdin Aroko gizon-emakumeak nekazaritza eta behien, ardi eta ahuntzen eta zerrien abeltzaintzatik bizi dira.

Luzea da Nafarroan Burdin Aroan zeuden herrien zerrenda. Normalean leku altu eta harresiez babestuetan daude (harrizko mendi-muturretan, kastroen antzera) edo muino txikietan, ibaietatik hurbil. Herri horien multzo batzuk aipa daitezke lurralde honetan: Arga ibaiaren goiko tartean eta Iruñerrian, eta Hegoaldean [...]

Lehen Burdin Aroko kulturaren lagin adierazgarrienak ondoko aztarnategietan, dagozkien mailetan, aurkitu dira: Mendaviako El Castillar izenekoan, La Custodian, Sansolen eta Castejóngo Gazteluan. Aparteko garrantzia duena, berriz, Cortesko Alto de la Cruz alderdiko aztarnategia.

Herri bakoitza etxesailen eta kaleen bitartez antolatzen da, eta kasu askotan murre eta harresi eta defentsa moduko sistemak (lubetak, lubakiak edo dorreak) ere ageri dira. Alto de la Cruz-eko etxeak nahiko handiak dira, 110 m-ra artekoak: planta angeluzuzena dute, isurialde baterako edo bietarako estalkiarekin; ataripea eta gela handi zentrala dute, eta ondoan ikulu edo korralea. Beste toki batzuetako etxeek, berriz, planta zirkularra dute, estalkia kono itxurakoa, eta txikiagoak dira. Etxe horien guztien eraikuntza oso zaindua da: zimentuzko oinarri bat izaten dute eta horren gainean harrizko edo pezozko hormak altxatzen dira, zurezko oinen bitartez tratatuak, eta askotan buztinezko geruza bat gainean dutela.

Etxeetan bankuak, sutondoa, siloa eta ogi-labeak daude; Alto de la Cruz-ekoek despentsak eta ganbarak ere badituzte jakiak gordetzeko, eta kaiolak edo zerratuak animaliak gordetzeko. Ura edo aleak kontserbatzeko tamaina handiko ontziak, sukaldarako zeramika, ehungailuetarako pisuak, errota txikiak, suburdinak* eta burduntziak aipa daitezke altzarien artean.

Norbanakoen erabilerarako eskumuturrekoak, fibulak* eta bestelako bitxiak, gerrikoetako krisketak eta kobrezko edo brontzezko botoiak, zeramikazko kutxa txikiak eta luxuzko baxerak (eszisio* bidez apainduak, ildaskatuak edo margotuak), eta buztinezko zenbait idolo txiki eta panpin aurki daitezke.

Burdin Aroan gorpuak erre egiten ziren leku guztietan, eta errautsak zeramikazko ontzietan (kutxak) gordetzen ziren; gero lauzez egindako toki itxi eta txiki batzuetara (zistak) eramaten ziren, edo bestela lurrezko tumuluen azpian sartzen ziren. Erriberako eskualdeetan nekropolis modu propio bat dute: «kutxen zelaia» izenekoetan biltzen ziren erretako gorpuen errautsak, herri handietatik ez sobera urruti. Horren antzekoak aurki daitezke Valtierako La Torrazan eta Cortesko La Atalayan [...]

Bigarren Burdin Aroan, tornuz egindako baxerak agertu ziren –Kristo aurreko 350 eta 300 urteen inguruan– eta estilo zeltiberikoan margoturiko zeramikak zabaldu ziren [...]. Etxaurin burdinez egindako nekazaritzarako lanabesen eta zaldi-arnesen bilduma handi bat aurkitu da. Horiek eta beste herri batzuk laster gune erromanizatuak izanen ziren [...].


Gure garaiko I. eta II. mendeetan geografo eta historialari batzuek, grekoz eta latinez idazten zutenek, eskualde hauetan bizi ziren tribuak eta haien herri batzuk aipatu zituzten, seguruena aurretiko informazioez baliatuta. Horien aipamenarekin batera, Historiaurreko jende eta kulturen anonimotasuna bukatu zen eta Historiaren atalasa iragan genuen».

BARANDIARÁN, I., *Historia ilustrada de Navarra 1, Iruña, 1993, 14-15 or.*

Testuaren ulertuzko irakurketa egin eta gero, aipa itzazu hurrengoak:

- *Kultura hori zein garaitan garatu zen.*
- *Haren izen orokorra.*
- *Zein fasetan banatzen den.*
- *Funtsezko berrikuntzak, kultura horren bereizgarri direnak.*

② BIZIMODUAK CERRO DE LA CRUZ-EN



Marrazki honetan Cerro de la Cruz-eko etxebizitza baten planta eta altxatua irudikatatu dira.

- *Marrazkien laguntzarekin, saia zaitez herri bateko etxe bat deskribatzen.*
- Aurreko testuan aipaturiko objektuen bidez garai hartako bizimoduetara hurbil gaitezke. Deskriba itzazu bizimodu horiek, ondokoak aintzat hartuta:
 - etxebizitza: kanpoko eta barruko itxura.
 - jarduera ekonomikoak.
 - janzkera.
 - metalaren industria.
 - zeramika.
 - hilobiak.
 - antolaketa sozial eta politikoa.
 - populazioa.

3 BURDIN AROA NAFARROAN: IRUDI KARTOGRAFIKOA



Iturria: Atlas de Navarra, 39. or.

Aurreko grafikoan, Nafarroako Burdin Aroari buruzko mapa bat duzu, Nafarroako Atlaseko 39. orrialdetik hartua. Zehatz-mehatz aztertu ondoren, erantzun ondoko galderari:

- Azaldu ezazu geziek eta haien irudi-testuek (Burdin I eta Burdin II) zer esan nahi duten.
- Bereiz itzazu irudikatutako aztarnategi motak.
- Non daude aipagarrienak? Eman itzazu horretarako arrazoiak.

2.6. EUSKARA

«Euskara garai Eneolitikorako* osatua zegoen. Haren lexikoan agertzen diren zenbait hitz metalurgia hasi zen garaioak izan daitezke eta –zalantzarik gabe– historiaurrean kokatu behar dira. Zenbait tresnen ize-netan (aizkora, aitzurra, aiztoa, zulakaitza, azkona) aitz elementua (harria) aurki daiteke; horren bidez frogatu daiteke «Harri-Arokoak» direla. Era berean, beste hitz batzuetan (asteko egun batzuk aipatzeko erabiltzen direnetan edo izaera legendarioa duten izenetan), kristautasunaren aurreko sinesmen eta mitoen seinale edo aztarnak aurki daitezke.

Antzeman ahal izan denez, halaber, litekeena da hemengo biztanleek euskaraz hitz egitea kobrea eta eztainua euskal lurretan sartu zirenerako; horrela, metal horiek izendatzeko bi perifrasi* erabili ziren (urraide eta zirraide: urrearen antzekoa, zilarraren antzekoa), metalurgiaren hastapenetan hemen ezagutzen ziren bi metal preziatuak aipatuz –agian, pieza mailukatuak izanen ziren, ez urtuak–.

Euskara hizkuntza indoeuropearra ez denez, zaila da haren sorrera eta lehenbiziko agerpenak zein diren ezartzea, euskararen jatorriari buruzko ikerketa zuhurren arabera. Hizkuntzalariek diote famili «euskal-kaukasiar» handian sartu behar dela, eta bereizi egin behar direla euskaldunen jatorri fisikoaren arazoa eta hizkuntzaren jatorriarena. Lurraldea antzinetik okupatuta dagoenez (eta gainera, antropologiaren ikuspuntutik esan daiteke, nolabait, gizakia mendebaldeko Pinirioko motakoa dela, Cro-Magnongo gizakiaren bertako bilakaera bat), euskara bertan izatea azaltzeko hipotesi naturalena da esatea «euskara sortu dela Asia Txikitik edo Kaukasoko inguruko beste lurralderen batetik etorritako jendeek Mendebaldean sartu zuten hizkuntza batetik. Hizkuntza hori beste kultur elementuren batekin batera ekarriko zuten, esate baterako metalurgia edo kupuladun hilobiak eraikitze teknika, gure garaiaurreko 2000 urtean inguruan Andaluzian eta Portugalen agertzen dena. Andaluzian euskararen itxura duten toki izenak izatea, horietako batzuk antzinakoak, hipotesi horren aldeko arrazoi bat izan daiteke».

Edonola ere, antropologiaren, arkeologiaren eta hizkuntzalaritzaren datuak alderatuta, oraingoz, zehazkabetasun puntu aski daude esateko euskararen jatorriari loturiko data, aurrekari eta erlazioei buruzko formulazio zehatz guztiak demostratzen zail diren hipotesiak direla. Hori dela eta, gorago laburturiko iritziak jaso ditugu».

BARANDIARÁN, I. eta VALLESPI, E., *Prehistoria de Navarra*, 217-218 or.

- ❶ *Irakur ezazu arretaz testua. Irakur ezazu berriz, behar baduzu, ulertu arte.*
- ❷ *Adierazi izartxo batez ulertzen ez dituzun hitzak. Bila itzazu hiztegian, betarik baduzu; bestela, galdetu irakasleari.*
- ❸ *Aipa ezazu testuko lau lerroaldeetako bakoitzean azaldutako ideia nagusia; Aipa itzazu, halaber, bigarren mailako ideiak.*
- ❹ Erantzun galdera hauei:
 - Kronologikoki, noiz esan daiteke euskara osaturik dagoela? Zer esalditan azaltzen da hori testuan? Adieraz itzazu kronologia hori justifikatzeko testuak ematen dituen datuetako batzuk.
 - Bat bera al da euskaldunen jatorria eta euskararen jatorria?

- Seinala ezazu batzuen eta bestearen jatorriari buruzko hipotesi egiantzekoenak?

☐ ⑤ Gai honetan interesik baduzu, irakur ezazu J.J. SAYAS, *Los Vascones. Historia Ilustrada de Navarra 1*, Iruña, 1993, 17-31 or.

2.7. HIRU AUKERA IKASGELAZ KANPORAKO

Nafarroako lurraldeak, bere aberastasun, aniztasun eta tamaina txikian, aukera ematen du gure arbasoen bizitzari buruzko zenbait alderdi ikasgelaz beste modu batera ikasteko.

Dauden aukera anitzen artean, hiru azalduko ditugu daukaten aberastasun, interes pedagogiko edo jatortasunarengatik.

① BISITA NAFARROAKO MUSEORA

Nafarroako Museoak bere hormen artean Foru Komunitatearen legatu historiko eta artistikoaren zati handi bat gordetzen du. 1986tik hasi eta 1990era bitartean egindako birmoldaketa sakonaren ondorioz, museoak erakunde moderno batek behar dituen atal guztiez hornituta dago, izan ere herritarren bisita errazagoa eta atseginagoa izan dadin. Bisitarien artean, lehen hezkuntzako, bigarren hezkuntzako eta Unibertsitateko ikasle nafarrak dira ugariak; horiek dira Museoko aretoetan gehien ikusten direnak.

Prozesu horrekin zerikusi zuzena du Kabinete Pedagogiko bat egoteak, hezkuntza maila ezberdinetako ikasleentzako berariazko gidak prestatu eta sustatu dituenak.

Orain lantzen ari garen garaiari dagokionez, bi dira eskura ditugun gida berariazkoak:

a) *La vida en Navarra. Prehistoria. Época Romana, Edad Media.*

Egilearen hitzetan «Nafarroako biztanleen bizitzaren zenbait alderdi aztertuta nahi dira Historiaurretik hasi eta Erdi Aroa bitartean. Kontserbatu diren objektu eta artelanen bitartez, Historiaurrean erabiltzen ziren erremintak eza-gutuko dituzu, erromatarren garaian etxeak nola zeuden apainduta edo nola-koak ziren Erdi Aroko kristauek otoitz egitera joaten ziren elizak».

Gida hori kolorezko formatuan argitaratu berri da. Koaderno hauetan erabiltzen den prozeduraren antzekoa erabiltzen du: kasuan kasuko garaiari buruzko informazio laburra; museoak gela bakoitzean erakusten den materialaren adibideak eta marrazkiak, eta egiteko proposatzen diren bestelako jarduerak. Azkenean, interes eta baliagarritasun handieneko hitz berezituak hiztegia ematen da.

b) *La Prehistoria en Navarra.*

Gida didaktikoaren hasieran orrialde bat dago ikaslearen datu pertsonalak idazteko; gero aurretik deskribatutakoaren antzeko eskema bat agertzen da, informazio labur eta soilak, argazkiak, marrazkiak eta ariketak proposatzen dituen; bukaeran, ikasgelan egiteko jarduera batzuk eta hiztegi berezitua ematen dira.

Kasu honetan bi tinta erabiliz argitaraturiko koadernoak da, ikasleari museoan bertan ematen zaiona.

Gai bikain hori osatzeko, azpimarratu beharrekoak dira bisiten antolamendua eta abegi egiteko modua. Irakasleak bere ikastetxean «Bisitarako orientazio batzuk» eskuratuko ditu, eta behin bisita eskatu eta konfirmatu diotenean, eguna eta ibilbidea gogoraraziko dizkiote, bai eta bisitaren helburu didaktikoak eta nondik-norakoa ere. Betiere, askatasuna ematen zaio irakasleari bisitaren helburuak eta ikasleekin egin nahi dituen jarduerak erabakitzeko.

Esandako guztiaren arabera, bisita, orokorra zein monografikoa, ez da bakarrik gomendagarria, ezinbestekoa ere bada, betiere ikastetxe bakoitzaren ahalbideak edo hurbiltasuna ere gogoan hartu behar badira ere.

② ERAKUSKETA MONOGRAFIKOA

LIZARRALDE IKASTETXEKO HISTORIAURREKO ERAKUSKETA

Lizarralde Ikastetxea izen bereko merindadean sorturiko erakunde bat da, eskualde hartako kultura zabaltzea eta ondarea zaintzeko ardura helburu dituen. Kontu handienarekin zaintzen duen gaietako bat arkeologia da; ikastetxe honetako partaideek esku hartu izan dute aztarnategi asko antzemateko, garbitzeko eta industeko lanetan. Eskualde hartako biztanleen lanaren eta kontzientziazioaren ondorioz, interes handiko materialen bilduma garrantzitsua lortu da. Eskualdeko aztarnategi nagusietako batzuk, Medaviako El Castillar-eko etxebizitzak edo Longarreko hipogea, beste batzuen artean, maketatan egin dituzte, zehaztasun handiz egindako artesau lan bikainari esker; maketa horiek interes pedagogiko handia dute aurretik azaldutakoen osagarri.

Zentroak eskaintzen dituen bi alderdi horiek bidea ematen dute ikastetxeetan erakusketa interesgarri eta hezigarria muntatzeko.

Lizarralde Ikastetxearekin eta eskaintzen dituen ahalbideekin zerikusia duen edozein kontsultatarako, jo Lizarrako 948 54 64 30 telefono zenbakira.

③ TXANGO EZBERDIN BAT: ETXARRI ARANAZKO TRIKUHARRIEN IBILBIDEA

Asteburuetan eta oporraldietan Urbasa eta Aralar bisitatzen dituzten mendizale eta naturzaleek ongi asko ezagutzen dituzte mendi horiek. Paisajearen kualitate ezagunez gainera, haietara bisita egiteak munta handiko arrazoi historiko eta artistikoak ere baditu. 1997tik aurrera, gainera, aukera badago alderdi hartako monumentu megalitiko nagusietara ere joateko.

Etxarri Aranazko kanpinetik abiatuta bi txango alternatibo egin daitezke. Lehenbizikoak, iraupen laburrekoa denak, bidea emanen digu inguru horretan hobe kien kontserbaturiko monumentu megalitikoak aztertzeko. Bigarrenak, berriz, oinez egin beharreko ibilbide luzea eginez, hamabi monumentu megalitiko ikusteko aukera emanen digu.

Txango horiei buruzko edozein informazio nahi izanez gero, jo Etxarri Aranazko kanpinera, 948 46 05 37 telefono zenbakira.

2.8. SINTESI PERSONALA

Lehenbiziko unitate didaktikoaren bukaerara heldu gara. *Sintesi historikoak* eskaini dizkigun informazioen ondotik, aukera izan dugu, banaka edo taldeka, historiaurreko bizimoduen alderdi bereizgarrietako batzuk lantzeko: bizimoduak, erremintak, lehenbiziko hiri asentamenduak, gureganaino heldu diren aztarna materialak eta garai hartako monumentu batzuetara egindako bisita.

Aldi berean, lehenbiziko unitate honetan lanerako teknika erabilienetan sakondu dugu, kontzeptu eta jokamoldeez gainera prozedurak ere sakon aztertzeko.

Beraz, har dezagun, berriz ere, lanerako lehen proposamena, baina ikuspuntu pertsonaletik. Sintesia zeuk egin beharko duzu, zeure buruari erakutsi beharko diozu gai horri buruzko alderdi nagusiak eta hiztegi berezitua ezagutzen dituzula eta kontzeptu gakoak ongi finkatuta dituzula.

❶ *Laburbil ezazu, folio bete baino gutxiago erabiliz, Nafarroako historiaurreko bizimoduei buruzko ideia nagusiak. Saia zaituz zeure hitzak erabiltzen, sintesitik edo lanerako proposamenetik hitzez hitz kopia gabe.*


❷ Orain ideia nagusi bakoitzari bigarren mailako ideiak erantsiko dizkiozu.

☐ ❸ Aukerarik izanen bazenu ondare arkeologikoa kontserbatzeko arauak emateko edo gomendio batzuk proposatzeko, zer arau edo gomendio emanen zenituzke? Iradokizun horiek hiru arlotakoak izan daitezke: foru edo udal administrazioa, ikasle nafarrak, edo herritarrak, oro har.

3. BALIABIDE DIDAKTIKOAK


3.1. MAPAK

HISTORIAURREA ETA BURDIN AROA BEHE-PALEOLITIKOKO LEKUKOTASUNEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA



Iturria: BEGUIRISTÁIN, M.A., *Cuadernos de Arqueología de la Universidad de Navarra*, Iruña, 1995, 50. or.

ERDI-PALEOLITIKOA NAFARROAN



Iturria: BARANDIARÁN, I., *Cuadernos de Arqueología*, 82. or.

GOI-PALEOLITIKOA NAFARROAN



Iturria: BARANDIARÁN, I., *Cuadernos de Arqueología*, 83. or.

EPIPALEOLITIKOA NAFARROAN



Iturria: BARANDIARÁN, I., *Cuadernos de Arqueología*, 84. or.


BRONTZE AROKO AZTARNATEGIEN BANAKETA OROKORRA NAFARROAN



Iturria: SESMA, J., *Cuadernos de Arqueología*, 184. or.

TRIKUHARRIEN FENOMENOAREN BANAKETA NAFARROAN


1. Aratz-Altsasu
2. Altzania
3. Ataun-Burunda
4. Aralar
5. Larraun
6. Urbasa
7. Andia
8. Sarbil
9. Araitz
10. Gorriti-Uitzi
11. Aritz-Ireber
12. Basaburua
13. Goizueta-Artikutza-Aranatz
14. Goizueta-Artikutza-Aranaz
15. Lesaka
16. Atxuri
17. Bertiz-Arana
18. Legate
19. Gorramendi-Alkurruntz
20. Izpegi
21. Erratzu-Aldude
22. Urkizte-Larrabeltz
23. Saioa-Loiketa
24. Ultzama
25. Almandoz-Gaztelu
26. Otsola-Belate
27. Atetz
28. Xulapain
29. Anue-Esteribar
30. Erro
31. Auritz
32. Urepel-Ibañeta
33. Orbaizeta
34. Abodi



35. Erronkari
36. Ardaitz
37. Arriasgoiti
38. Artze
39. Zaraitzu
40. Idokorri-Ugarra
41. Leire-Illón
42. Artaxona
43. Zirauki
44. Viana
45. Bardeak

Iturria: GARCÍA, J., *Cuadernos de Arqueología*, 146. or.

BURDIN AROKO AZTARNATEGIEN KOKAPENA NAFARROAN



Iturria: SÁNCHEZ, A.C. y UNZU, M., *Prehistoria y Edad de Hierro*, Iruña, 1982, 34. or.

IRUINARRI EDO MENHIRAK ETA CROMLECH EDO HARRESPILEN KONTZENTRAZIOARI BURUZKO MAPA



Iturria: SÁNCHEZ, A.C. y UNZU, M., *Prehistoria y Edad de Hierro*, Iruña, 1982, 41. or.

3.2. BILAKAERA KRONOLOGIKOA

- K.a. 200.000/150.000.** Aurkitu diren lehenbiziko aztarnak: Behe-Paleolitikoko harritzko lanabesak.
- K.a. 100.000/35.000.** Koskobilo eta Mugardoia Iparreko (Urbasa) okupazioa Mouster aldian.
- K.a. 27.000tik 20.000ra.** Aztarna gravetiarrak Koskobilon eta Mugarduia Hegoan (Urbasa).
- K.a. 19.000tik 15.000ra.** Solutre aldiko aztarnak Koskobilon.
- K.a. 15.000tik 8.000ra.** Madaileine aldiko ehiztariak Abauntz, Zatoia eta Berroberria kobazuloetara zabaldu ziren.
- K.a. 12.500dik 10.500era.** Alkerdiko kobazuloko hormetan animalien irudiak grabatu ziren.
- K.a. 8.500dik 7.500era.** Goi-Paleolitikoaren bukaera. Abauntz, Zatoia eta Berroberriako kobazuloak eta Portugaingo lehorpea okupatu ziren.
- K.a. 6.500dik 4.500era.** Mesolito garaiko ehiztari eta biltzaileak: Aizpea, La Peña, Padre Areso, Berroberria eta Zatoia.
- K.a. 4.500dik 4.000ra.** Neolitikoaren hasiera apala: lehenbiziko zeramika latzak Abauntz eta Zatoian. Gizakiek kobazuloak eta haitzetako lehorpeak erabiltzen jarraitzen dute.
- 3.250etik 1.750era.** Megalitismoaren garapena, ehorzketa kolektiboetarako ganberak erabilita. Kanpo libreko habitataren zabalpena, lurgainean eginiko txabola eta etxoletan. Gainazaleko tailak.
- 2.500dik 1.800era.** Kultura kalkolitikoa: ezquila-formakoak izenez ezagutzen direnak Etxarrin, Tuteran, Aguilar Mendian eta abarretan instalatu ziren.
- 1.800dik 1.500era.** Antzin Brontze Aroko kultura: ehorzketak kobazuloetan.
- 1.500dik 1.200era.** Erdi Brontze Aroko kultura: Aguilar Mendiaren okupazioa.
- 1.250etik 900era.** Amaierako Brontze Aroko kultura.
- 900dik 450era.** Lehen Burdin Aroa: herriak erdialdeko Nafarroan eta Erriberan.
- 500dik 450era.** Bigarren Burdin Aroaren garapena. Tribu protohistorikoak.

3.3. HIZTEGIA

eneolitiko:	neolitikotik brontze arora bitarteko garaia: harria lantzeaz gainera, kobreak, brontzearen, urrearen eta zilarraren aurkikuntza gertatzen da.
esizio:	ontziak-eta apaintzeko modua: orea egosi baino lehen puxkak kentzen zaizkio, irtenuneetan irudiak sortuz.
fibula:	kateorraz moduan erabiltzen den krisketa edo belarria.
hipogeo:	lurrazpiko ganbera, hilobi moduan erabilitakoa.
laska:	harrimugerezko puxka txiki eta mehea, harri batetik erauzitakoa.
megalitismo:	harri handiekin eginiko monumentuak bereizgarri dituen kultura.
perifrasia:	kontzeptu bat azaltzeko erabiltzen den intzulingurua.
suburdina:	metalezko edo zeramikazko pieza, egurrari sutegian edo sutondoan eusteko erabiltzen dena.
tesela:	mosaiko bat egiteko erabiltzen ziren marmolezko, beirazko edo zeramikazko pieza txikietako bakoitza; normalean, kubikoak izaten ziren.

3.4. ZENBAIT LIBURU LAGUNGARRI

GUIBERT NAVAZ, M.E. eta BESTE BATZUK, *Guías didácticas para la enseñanza de la geografía, historia e instituciones de Navarra en E.G.B. (Prehistoria, Historia Antigua y Media de Navarra-Ciclo Superior)*, Iruña, 1985.

I. gida didaktikoa Nafarroako Historiaurreari buruzkoa da. 125 orrialde ditu. Haietan helburu eta iradokizun metodologikoak, gai multzoak, dokumentazio lagungarria, lan irteerak, programazioaren ebaluazioa eta ikasleen lan koadernoak agertzen dira.

SÁNCHEZ, A.C. eta UNZU, M., *Prehistoria y Edad del Hierro*, Iruña, 1985.

Zabalkunde mailako liburu hau, Nafarroako Gobernuak argitaratzen zuen «Panorama» bildumako 2. zenbakia zuena, garai horri buruzko laburbiltze egokia da. Irakurle ez-espezializatuentzat ulergarri gertatzen den testuaz gainera, argazki, marrazki eta mapen hautaketa ona du. Liburu hau egokia izan daiteke ezagutzak zabaltzeko lan txikiak egiteko. Halaber, iturri egokia da Nafarroako historiaurreko gizakien lanabes eta erremintak ezagutu eta marrazteko edo haiekin loturiko bestelako jarduerak burutzeko.

FORTÚN, L.J. eta JUSUÉ, C., *Historia de Navarra I. Antigüedad y Alta Edad Media*, Iruña, 1993.

Testu osoari buruz adierazten genuen tonu orokor egokia lehenbiziko ale honen bereizgarria da. I. kapitulua historiaurreari eta protohistoriari buruzkoa da: 20 orrialdetan garai hartako gertakizun nagusiak biltzen ditu oso modu eraginkorrean.

CARRASCO, J. eta FLORISTÁN, A. (koord.), *Historia ilustrada de Navarra*, Iruña, 1993, 2. lib.

Historiaurreari buruzko kapitulua gure aditu handienak, I. Barandiaranek, idatzita dago. 16 orrialdetan garaiari buruzko laburpen bikaina egiten du. Oso proposa da irakasleak osotasunezko ikuspegia izan dezan eta ikasleak ezagutzak zabalteko nahi dituen jarduerak egin ditzan.

MARTINICORENA VALENCIA, F.J., *La piedra tallada. Tecnología, útiles y restos prehistóricos del Museo de Navarra*, t.g., u.g.

Nafarroako Gobernuak kaleratutako lan honek arreta berezia eskaintzen die Nafarroako Museoan diren historiaurreko gizakien lanabes eta tresnei.

60 diapositiba ere baditu liburuak, argitalpenaren funtsezko atal direnak eta oso erabilgarri gerta daitezkeenak ikasleentzat zail suertatzen den gai horretan. Oso lan erakargarria garai hari buruzko interesa dutenentzat.

Gehien bat ikasleentzat egin den argitalpen batean, harrigarria da ez agertzea argitalpena non eta noiz egin zen; aurkibide orokorrik ere ez dago.

HURTADO, M.A., *La Prehistoria en Navarra. Guía didáctica. Museo de Navarra*, Iruña.

Koaderno txiki hau, Nafarroako Museoa bisitatzen duten DBHko lehen zikloko ikasleentzat bereziki diseinatua, tresna didaktiko bikaina da, ikasleentzat beti erakargarri suertatzen ez den museorako bisita errazago eta emankorragoa egiten duena.

Esperatzekoa da bide hori mantendu eta indartzea garai horri buruzko eta ondoko garaiei buruzko gai berriekin. Ikasleek eta irakasleek eskertuko lukete hala izatea.

ARMENDÁRIZ, J. eta IRIGARAY, S., *La arquitectura de la muerte. El hipogeo de Longar (Viana, Navarra), un sepulcro colectivo del 2.500 a.C.*, t.g., 1994.

Lizarralde Ikastetxeak argitaratutako 35 orrialdeko liburuxka honetan, hitz errazekin eta izenburu erakargarria erabiliz, monumentu megalitiko bat aurkitu, indusi, hango bizimodua berreraiki eta gero sendotu eta zaharberritzeko prozesu konplexua azaltzen du.

Longarreko indusketa lana eredugarria izan zen arrazoi askorengatik. Adibide ona da ikusteko arkeologia zabaltzeari buruz eta monumentua kontserbatzeak merezi duela uste duen komunitateak ardura hori bere gain hartzeari buruz. Horregatik guztiarengatik, liburuxka bereziki gomendagarria da gai horietan zabaltzeko jarduerak burutzeko interesa duten ikasleentzat. Liburuxkaren bukaeran, fitxa tekniko osotua agertzen da, gainera. Beste gune arkeologiko batzuk ere bisitatzeko moduko

toki bihurtzea eta zabalkunde mailako hau bezalako lanak izatea gauza handia izanen litzateke.

HURTADO, M.A., *El hipogeo de Longar en Viana. Un enterramiento prehistórico en Navarra*, Iruña, 1997.

Liburu hau aurrekoaren osagarria da eta asko zor dio hari. Nafarroako Museoa «eraiki eta ikasi» izenburupean liburuxka bat argitaratu du euskaraz eta erdaraz ikasleengan arkeologiarako interesa pizteko. Aurrena, testua irakurri behar da; hurrena, ikasleek Longarreko hipogeoeko maketa bat eraikiko dute. Espero dezagun jarraipena ematea ideia on honi Historiaren hurrengo garai batzuetako eraikinak erabiliz.

2. UNITATE DIDAKTIKOA

BASKOIAK ETA ERROMANIZAZIOA

1. KONTZEPTUEN ESKEMA.

2. LANERAKO PROPOSAMENAK.

- 2.1. Sintesi historikoa: azpimarraketa.
- 2.2. Baskoiak.
- 2.3. Erromanizazio prozesua.
- 2.4. Lurraldearen antolamendua. Hiriak eta bideak.
- 2.5. Nekazari herrietako bizitza.
- 2.6. Arte erromatarra Nafarroan.
- 2.7. Erromanitatearen krisia. Kristautzea. Baskoiak eta bisigodoak.
- 2.8. Hiru aukera ikasgelaz kanporako.
- 2.9. Sintesi pertsonala.

3. BALIABIDE DIDAKTIKOAK.

- 3.1. Mapak.
- 3.2. Bilakaera kronologikoa.
- 3.3. Hiztegia.
- 3.4. Zenbait liburu lagungarri.

1. KONTZEPTUEN ESKEMA

3. Baskoiak eta erromanizazioa (K.a. III.etik K.o. V.era)
 - 3.1. Erromatarrek etorri bezperetan.
 - 3.2. Baskoien kultur aniztasuna.
 - 3.3. Erromatarren etorrera.
 - 3.4. Erromarekiko harremanak.
 - 3.5. Lurraldearen antolamendua. Hiriak eta bideak.
 - 3.6. Nekazari herrietako bizitza.
 - 3.7. Kristautzea.
 - 3.8. Erromatarren artea Nafarroan.
 - 3.9. Inperioaren amaiera. Barbaroak.
4. Bisigodoetatik musulmanetara (VI-VIII mendeak)
 - 4.1. Bisigodoen menperaldia.
 - 4.2. Musulmanen etorrera.

2. LANERAKO PROPOSAMENAK

2.1. SINTESI HISTORIKOA: AZPIMARRAKETA

Ikasten laguntzeko teknika baliagarri eta eraginkorretako bat azpimarraketa da. Azpimarren bidez testuak dituen ideia edo alderdi nagusiak nabarmenduko dira. Azpimarratzeko ezinbestekoa da testua adi-adi irakurtzea; beraz, bigarren irakurraldia, aurreko unitatean aipatu genuena, izaten da unerik egokiena azpimarrak egiteko. Azpimarraketaren helburua ikasketa eta geroko erreposoak erraztea da, bai eta eskemak eta laburpenak egiten laguntzea ere.

Azpimarraketa ona egiteko:

- Erabil ezazu arkatza eta erregela. Ez ezazu boligrafoa erabil, ez baitu gero aukurarik ematen zuzenketarik egiteko.
- Azpimarra itzazu ideia nagusiak, izan ere testu osoa azpimarratuz gero ez baituzu ezer irabaziko. Lerroalde bakoitzaren puntuazio zeinuek (puntu eta jarrai, puntu eta kakotsa, kakotsa) bigarren mailako ideiak bereizten lagunduko dizute.
- Nabarmen itzazu esaldi laburrak. Soilik azpimarratutakoa irakurriz zentzua duen testua lortzen baduzu, bide onean zaude.

Asko dira azpimarraketa ona egiteko teknikak. Hauek dira erabil daitezkeen batzuk:

- Kolore gorria ideia nagusietarako eta urdina bigarren mailakoetarako.
- Azpimarra bikoitza izenburuetan eta azpimarra bakarra gainerakoan.
- Goitik beherako lerroak marginetan, lerroalde osoak edo haien atal zabalak markatzeko.

Erabil ezazu gehien gustatzen zaizuna, baina saia zaituz testu osoan zehar modu bera erabiltzen.

Iradoki ditugun gomendioei jarraituz,

❶ *Azpimarra itzazu Sintesi historikoaren 4.1. eta 4.2. atalak.*

❷ *Lerroalde bakoitzean ideia nagusia hautatu.*

☐ ❸ *Lerroalde bakoitzaren barruan, bereiz itzazu ideia nagusia eta bigarren mailakoak.*

2.2. BASKOIAK

«Esan dezakegu erromatarren arabera baskoien eskuetan ziren lurraldeak, literatur iturri klasikoek esaten dutenari jarraituz eta epigrafian*, numismatikan* eta arkeologiak ematen dizkigun bestelako datuetan oinarrituta, populazio eta egonkortasun maila handia izan zuela, Goi Inperioan nabarmen egin zena.

Eragin berriak nahiko goiz ezagutu eta bereganatu zituen herri honen asimilazio gradua, hala ere, ez zen beti bat izan. Horren arrazoen artean aipatu behar dira, alde batetik, erromatarrak ez zirela saiatu, berriaz behintzat, eskualde hau erromanizatzen (izan ere nahiko marginala baitzen Penintsulako lurraldeak konkistatu eta ustiatzeko haien planetan), eta bestetik, baskoiak oso populazio nahasia eta eragin berrietara irerkia baziren ere, Pirinio aldeko ibarrak nahiko iragazkaitz suertatu zirela eragin berri horietarako.

Hala ere, Erroma garaiko aztarnak goiztiar eta ugari badira ere, orduko agerpen nagusienetako batek, hirigintzak, ez zuen esateko moduko proportziorik hartu; hori dela eta ezin hitz egin genezake hiri handiez, bai ordea tamaina erdikoez, Calagurris kasu (10-20 Ha). Gainerakoak, Andelos, Cara, Cascantum, Graccurris eta Pompaelo, hiri txikiak izanzen ziren (3 eta 10 Ha artean). Iaca eta Segia sailkapen honetatik kanpo utzi behar dira, haiei buruzko datu zehatzagoak emanen lizkigukeen ikerketarik ez dagoelako.

Hiri handien gabezi horren aurrean, ordea, esateko moduko nekazari populazioa dugu, gune txikietan asentatua, batez ere Pirinio aurreko ibai arroetan, Ega, Arga, Aragon eta Arba ibaietako ibarretan, Ebroko ezkerrean, Ebro ibaian eta haren eskuinaldeko ibaiadarretan zehar, Cidacos, Alhama, Queiles eta Huecha [...]».

PERÉX AGORRETA, M.J., *Los vascones*, Iruña, 1986, 251-252 or.

Emandako testuaz lagunduta eta Nafarroako Atlaseko *Sintesi historikoko* datuak (31-34 or) erabiliz, erantzun ondoko galderari:

- ❶ *Nor dira baskoiak?*
 - ❷ Azal itzazu haien jatorriari buruz dauden teoriak.
 - ❸ Muga ezazu zer lurralde hartzen zuten gehien zabaldu ziren aldian.
 - ❹ *Bereiz itzazu erromatarrek lurraldea zatitzeko erabili zituzten oinarritzko eskualdeak eta adieraz itzazu haien ezaugarriak.*
 - ❺ Koka itzazu Nafarroako mapan testuan eta *Sintesi historikoan* aipaturiko hiriak.
- ☐ ❻ Jar itzazu multzotan, estatutu juridikoaren* arabera, erromatarren garaian ziren hiriak; defini itzazu estatutu juridikoen mota nagusiak.

2.3. ERROMANIZAZIO PROZESUA

Zure programazio orokorrean Erroma garaia ikasterakoan, zalantzarik gabe aipaturiko zenituen hura ezagutzeko bi gakoak: konkista eta kolonizazioa.

Zureganatu dituzun ezagutza orokorrak erabiliz:

- ❶ *Defini itzazu konkista eta kolonizazio kontzeptuak.*
- ❷ *Defini ezazu erromanizazioaren kontzeptua ere.*
- ❸ Nafarroako kasuan:
 - Seinala itzazu lurraldearen konkistari dagozkion muga kronologikoak.
 - Seinala itzazu, ahal duzun neurrian, kolonizazioaren muga kronologikoak.
 - Defini ezazu, zehazki, erromanizazioaren kontzeptua Nafarroako kasuari aplikatuta.
- ❹ Erromanizazioaren agenteak.
 - *Azter ezazu arretaz erantsi dugun grafikoa. Bertan, lurraldearen erromanizazioan lagundu zuten agenteak irudikatu ditugu. Hemen aipatzen dizkizugun arloak erabilia, jar iezaiozu bakoitzari izenburu bat:*

– politikoa.	– juridikoa.	– soziala.	– erlijioaren arloa.
– militarra.	– ekonomikoa.	– artistikoa.	– hirigintza arloa.
 - Kasuan kasu, eman Nafarroako lurraldean aurkituriko adibideren bat, grafiko-ko arlo horietako bakoitzari lotua.

- • Grafikoak ez ditu erromanizazioaren agente guztiak biltzen. Aipa itzazu falta izan eta zure iritziz garrantzitsuak direnak; eman erromanizazioaren agenteen presentziari buruzko adibideren bat, betiere Nafarroari buruzkoa.
- *Sintesi historikoak* lurraldearen erromanizazioari buruzko balantze orokorra eskaintzen dizu. Bila ezazu balantze hori eta egin ezazu hari buruzko laburpena, lerro gutxi batzuetan.

MUNDUAREN MUGA

Zer ekarri zuten erromatarrek

Erromatarren gudarostea eta bere legioak heldu ziren.

Bere legeak zituzten eta latina zuten hizkuntza.

Bide eta galtzada onak eraiki zituzten, erromatarren gudarostea lurraldean zehar erraz mugi zedin.

Haien zerga berriak diruz edo gauzez ordaindu behar ziren

Erromako jainko eta jainkosen -Jupiter eta Marte, kasu- aldeko tenplu eta santutegiak eraikiarazi zituzten.

Dibertimendu berriak sartu zituzten: gladiadorren arteko borrokak, esate baterako.

Gainera, harrizko villak, landalurrez inguraturikoak, eraiki zituzten, aletegi, ikuilu eta lantegiekin.

Luxuzko artikuluak ere ekarri zituzten: Italiako zeramika, esate baterako.

Kristautasuna erlijio ofiziala bihurtu zen K.o. IV. mendetik aurrera.

Iturria: MANTIN, P. eta PULLEY, R., *El mundo romano*, Madrid, 1994, 61. or.


2.4. LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA. HIRIAK ETA BIDEAK

❶ LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA

Sintesi historikoa eta 2. proposamenean eman den M.J. Peréxen testua berriz irakurri ondoren, erantzun galdera hauei:

- *Aipatu baskoien lurraldea zein probintziari eta zein komentu juridikori atxikirik zegoen.*
- *Aipa itzazu berriz ere baskoien lurraldean sorturiko hiri nagusiak.*
- *Nafarroaren kasuan, bat al datoz handienak administrazioaren ikuspegitik garrantzitsuenak direnekin?*
- *Zer izen ematen zaie hiriz kanpo dauden egoitzei eta zer jarduera nagusi dute?*
- *Hiriak eta villak batzeko, zer prozedura erabiltzen zen?*

❷ POMPAELO, LURRALDEKO HIRIBURUA



«Pompaelo»ko Planoaren Berreraiketa Hipotetikoa.

Iturria: HURTADO, M.A., *La vida en Navarra durante la época romana*, Iruña, 1. or.

Planoa aztertu eta *Sintesi historikoa* irakurri ondoren, erantzun galdera hauei:

- *Hiriaren gutxi gora-beherako itxura.*
- *Bi kale nagusien izena.*
- *Plaza edo foraren xedea eta han zeuden eraikinak.*
- *Hiria noiz sortu zen eta nork sortu zuen.*

③ ANDELÓS ETA BERE SISTEMA HIDRAULIKOA

«Andelosko sistema hidraulikoa ere aurkitu da. Sistema konplexua da, bakarra arkeologia hispanikoan. Uharka bat du non erreka eta iturburuen urak biltzen ziren. Inguru hartako biztanleek gaur “deabruaren zurbia” esaten diote. Andelostik zuzenean bi kilometrotara dago.

Ubide batez ura eramaten zen poligono irregularraren itxurako ur-biltegi handi batera. Poligonoaren ardatz luzeenak 85 x 35 m zituen, eta sakonera 3,5 m-ra artekoa zen jatorrizko altuera kontserbatu den tokian. 7.600 m³ ur biltzen ahal zituela kalkulatu da.

Eskailera monolitikoak ditu barrura jaisteko, eta “giltzen kaxa”ren sistema erabiltzen du uren irteera erregulatzeko. Ur-biltegi honen xedea urak agorraldirako biltzea omen zen, andelostarrek* behar zuten ur-hornidura falta ez zedin. Urak erregulatzeko ur-biltegi handi horretatik hirira eramaten zen ura, 700 m ingurura, akueduktu sifoi baten bidez. Haren abiaburua eta zutoiak jartzeko ziren enkatxoak kontserbatu dira. 52 arku zituen, 3,5 m-ko argia zutenak. Beraz, ur-biltegitik hasi eta goitik beherako tarte bat egonen zen, gero beste tarte bat horizontala, eta azkenik, behetik gorako bat, presioaren bidez ura castellum aquaera eramateko, hori baitzen ura hirian barna banatzeko zentroa.

Ur-biltegiaren hondoan aurkituriko aztarnengatik (txanponak eta zeramikak), badakigu sistema K.o. I. mendetik K.o. IV. mendera arte erabili zela».

MEZQUÍRIZ, M.A., *Historia ilustrada de Navarra 1, erromanizazioa*, 37-38 or.

Testua irakurri ondoren, erantzun galdera hauei:

- *Adierazi zein diren hiriaren sistema hidraulikoa osatzen zuten funtsezko hiru elementuak.*
- *Aipatu zein izanen ziren urak hiri barruan izanen zituen irteera-gune nagusiak.*
- ☐ • *Zer nolako garrantzia du sistema honek baskoien erromanizazioa ebaluatzeko orduan?*
- ☐ • *Zein pertsonak edo gizarte-taldek sortuko zuten hori bezalako sistema bat?*
- *Aipa itzazu Nafarroan diren herrilan hidraulikoen gainerako aztarnak.*

4 BIDE ERROMATARRAK NAFARROAN.

BIDE GUZTIEK ERROMARA DOAZ



ARKUAK: indar dotorea.

• **LAN HIDRAULIKOAK**
Zer eginen genuke urik gabe? Hasteko ezin izan ginen bainatu. Baina, zenbaterik daki nondik datorren gure ura?

Hiri askotako ura mendi goienetan diren erreketatik dator, eta batzuetan, ehundaka kilometro egin behar izaten du harrizko ubide berezi batzuetatik, «akueduktu» izenekoetatik. Ibarak gurutzatu behar dituzte, akueduktu horiek altxatu egiten dira eta zubi dotoreak sortu behar izan dira.

Baina egitura harrigarri horiek ez ziren bidezko izanen Erromako ingeniariak konturatu ez baziren arkua egitura arkitektoniko oso indartsua dela.



LUR-NEURTZAILEAK: lerrokatzea

BIDEK GURE INPERIOA BATZEKO BALIO DUTE. Hain lurralde zabala gobernatzeko, enperadoreek mezuak azkartzarekin bidali behar zituzten hiri guztietara. Eta soldaduak gatazka garaietan azkar mugitu behar izaten ziren toki batetik bestera.

Hori guztia gertatu ahal izan zen inperioa alde alde zehar katzen zuten 80.450 kilometro bideei esker. Erromako Egunkariak omenaldia egin nahi die sare ikaragarri hori eratu zuten ingeniariari eta haien lorpen arkitektonikoei buruzko errepaso egin nahi du.



HARRI-JOTZAILEAK: Lan gogorra

• **BIDE ONETIK**
Bidea zenbat eta luzeagoa izan orduan eta azkarrago eginen da bidaia. Gure bideak ez dira soilik zuzenak, hustubide egokiak ere badituzte, eta ongi eginda daude. Nola lortzen dute hori ingeniariak?

Lehenbizi, lur-neurtzaileak behar diren neur-

gailuak erabiltzen dituzte ibilbiderik zuzenena aurkitzeko. Lan gogorra soldaduek eginen dute gero. Hasteko zanga bat eginen dute, eta gero bidearen oinarria jarriko dute. Normalean hareak-geruza bat jartzen da guztiaren azpian eta gero, haren gainetik, harrizko mokorrak, zi-

mentuz ongi finkatuak. Gero, legarra eta hormigoia nahasi eta zirrikietatik sartzen da. Goiko geruza galtzadarri edo harlauza gogorrek osatuta dago.

Azken ukitu benetan bikaina da gainazala okerra izatea euri-ura ezpondetatik joan dadin.




UBIDEAK: ur garraioa

• **ENERGIA HIDRAULIKOA**
Ingeniariak lortzen dute ura behar den tokietara eramatea eta badakite sortzen duen energia erabiltzen zenbait makina mota funtzionamenduan jartzeko.

Ura akueduktuetatik eramaten da pendiza oker baten ertzera. Hortik gurpil hidraulikoek segida batera eroriko da.

Uraren indarrak mota guztietako lanak egiten ditu: gurpil hidraulikoak birarazten ditu; horiek errotaren barruan diren gurpil horzdun handiak mugiarazten dituzte.

Birarazten dutenean, gurpil horzdunek harri lau eta astun handi batzuk mugitzen dituzte, izan ere irina ehotzen dutenak; horrela egiten da hirian jaten den ogia.



BIDEAK: harri bokadilloa

Iturria: LANGLEY, A. eta DE SOUZA, P., P., *El periódico de Roma*, Barcelona, 1997, 24. or.

Irakur ezazu arretaz testua eta azter itzazu grafikoak.

- *Testuaz eta grafikoez baliatuta, deskriba ezazu labur galtzada erromatarra eraikitzekeo prozesua.*
- *Nafarroako mapa batean, koka itzazu erromatarren garaian ziren komunikazio bide nagusiak.*
- Zer da miliario bat. Azaldu haren betekizuna. Ezagutzen al duzu Nafarroako herriren baten izena termino horri zuzenean loturik dagoena?
- Zer prozedura erabiltzen ahal dugu Nafarroan dauden bide erromatarrek ezagutzeko.
- Adieraz ezazu zer garrantzi izan zuen galtzadak egiteak lurraldea erromanizatzeko eragile gisa.

2.5. NEKAZARI HERRIETAKO BIZITZA

Sintesi historikoa eta Nafarroako atlasa arretaz irakurri eta Arellanoko *villaren* planoaz aztertu ondoren, erantzun galdera hauei:

- ❶ *Defini ezazu zehazki villa terminoa*
 - ❷ *Gogora itzazu villa erromatar baten funtsezko atalak.*
 - ❸ *Aipa itzazu Goi- eta Behe-Inperioetan Nafarroako villetan zer landaketa nagusi egiten ziren.*
 - ❹ *Nafarroako oraingo mapa batean koka itzazu gure lurraldean agertu diren villa nagusiak.*
- ❺ *Nolakoa izanen zen garai hartan latifundio baten gizarte-antolamendua?*



Musen villa. ARELLANO.

Iturria: Revista de Arqueología, 191 zk. (1997ko martxo), 62. or.

2.6. ARTE ERROMATARRA NAFARROAN

Nafarroan diren arte erromatarraren aztarnak modu teorikoan ikas daitezke, tokiak eta ezaugarriak gogoraraziz. Halabaina, modu grafikoan ere ikas daitezke, eraginkortasun handiagoaz. Horixe da proposamen honen helburua.

Hautaturiko bibliografiak eta, batez ere, Nafarroari eta Iruñeari buruz, oro har, eta bereziki Nafarroako Museori buruz dauden turismo-liburuxka anitzek Erromako garai-ko aztarna nagusien kopia, grafiko eta argazkiak jasotzen dituzte.

❶ *Hautatu, gutxienez, agerpen artistiko bakoitzearen bi adibide:*

- | | |
|----------------|---------------|
| - arkitektura. | - epigrafia. |
| - eskultura. | - urregintza* |
| - mosaikoak. | - zeramika. |

❷ Behin aukeratu ondoren, koka itzazu eman dizugun ordenean eta jar itzazu hurrenkera kronologikoan.

❸ Bukaerako emaitza Nafarroako arte erromatarrari buruzko laburpen-gida txiki bat izanen da. Hortik turismo-liburuxkara edo turismo-liburura urrats bat baizik ez da falta. Saia zaitez, zeurea da bidea.

2.7. ERROMANITATEAREN KRISIA. KRISTAUTZEA. BASKOIAK ETA BISIGODOAK

❶ ERROMANITATEAREN KRISIA.

Sintesi historikoaren dagokion orrialdean, lerro gutxitan laburtuta, Erromatar inperioaren amaiera ekarri zuen krisiaren arrazoiak aurkituko dituzu.

- *Koka ezazu garai hori kronologikoki.*
- Aipa itzazu Erromatar inperioaren erortzea areagotu zuten arrazoiak.
- ☐ • Bereiz itzazu arrazoi politikoak, ekonomikoak eta sozialak.

❷ ERROMANITATEAREN KRISIA NAFARROAN: LURRALDEA NEKAZARI BIHURTZEKO PROZESUA*

Sintesi historikoaren orrialdeak Berant Inperioaren garaiko Nafarroari buruzko balantzea daukazu. Hori irakurri ondoren, erantzun ondoko galderei:

- *Koka ezazu garai hori kronologikoki.*
- Aipa itzazu garai hori definitzen duten ezaugarriak.
- ☐ • Nafarroa «pasabideko lurraldea» izatea historian zehar errepikatuko den ezaugarria da.
 - Azpimarra itzazu egoera horren alderdi onena eta alderdi txarrena.
 - Aztertzen ari garen garaian, zer alderdi da nagusi?
 - Aipa ezazu Nafarroako historiaren beste une bat, non «bidegurutze» egoera hori aipatu dugun.

❸ LURRALDEA KRISTAUTZEA.

Hain zuzen ere «bidegurutze» kontzeptutik abiatuta, lurraldearen nortasunaren beste adierazgarri bat aztertuko dugu orain: kristautzea. *Sintesi historikoa* adi-adi irakurri ondoren, erantzun ondoko galderei:

- *San Saturninoren eta San Ferminen predikazioa, tradizioz I. mendean kokatu izan dena, historikoa al da?
Nola uler daitezke istorio horiek?*
- *Kristautasuna beste zein sinesmenekin bizi izan zen Inperioaren azken urteetan?*
- *Zer ondorio ditu eliz-barruti bat egoteak kristautasunaren garapenerako?*
- *Aipa ezazu kristautasuna gutxi gora-behera noiz ezarri zen baskoien artean. Egin ezazu Inperioaren amaierari buruzko balantzea.*


- • Egin ezazu iruzkin labur bat *Graccurreis* hiri baskoiaren ondoan aurkitutako laudo honetatik ondorioztatzen den egoerari buruz.



- Maskorra. Venusen sinboloa. Emankortasuna eta aberastasuna adierazten ditu.
- Hildakoaren erretratua. Hona zer dioen: «URSIANO. IN PACE DOMINI» (Ursicino. Jaunaren bakean).
- Krismoia. Inguruan ereinotz koroa du, jeneral erromatarren aurkako garaipenaren adierazgarri. Hona zer dioen: «PER NOMEN DOMINI» (Jaunaren izenaren alde).
- Hildakoaren goraipamena, emazteak enkargatua. Hona zer dioen: «URSIANO. JAUNAREN BAKEAN. JAUNAREN IZENAREN ALDE. 47 URTE ZITUELA HIL ZEN. ZORTZI URTEKO ALABA UTZI ZUEN. HAREN EMASZTE MELETAK EGIN ZUEN LAUDO HAU.

Iturria: MANTIN, P. eta PULLEY, R., *El mundo romano*, Madril, 1994, 72. or.

④ BASKOIAK ETA BISIGODOAK



Iturria: Atlas de Navarra, 41 or.

Sintesi historikoa irakurri eta aurreko mapa arretaz aztertu ondoren, erantzun galdera hauei:

- Zer nolako papera izan zuen Nafarroak V. mendetik eta VIII. mendera bitartean?
- Hegoaldetik datozen gezi etengabe horiek, zer adierazten dute? Erantzunari buruzko arrazoiak eman.
- Nafarroaren gaurko lurraldean bi izen aipa daitezke: *Pompaelo* eta *Ologitis*. Gogora ezazu lehenbiziko jendegune horren jatorria eta azal ezazu bigarrenaren sorrera.

2.8. HIRU AUKERA IKASGELAZ KANPORAKO

Lehenbiziko unitate didaktikoan planteatu genuen gure lurraldeko historiaurrearen zenbait alderdi ikasgelaz besteko ikuspegi pedagogikoago batetik ikastea, gizakiaren eta haren agerkerien aztarnak gorde diren tokiak *in situ* bisitatuz.

Gure antzinako garai horiei buruz hori egiteko modua izan badugu, errazagoa da bisitak prestatzea zentzu hertsian historiko diren garaietara hurbiltzen garen neurrian. Beraz, ahaleginak egingen ditugu jarduera hori ahal den guztietan errepikatzen.

Zu laguntzeko eta animoak emateko asmoz, gure lurraldeko garai eta eskualde ezberdinei buruzko hiru irtenaldi prestatu ditugu.

❶ BISITA NAFARROAKO MUSEORA

Nafarroako Museoak, azken birmoldaketa sakona egin ondoren, lurraldearen erromanizazioari buruzko atal bat du, bereziki egokitua, aberatsa eta argigarria. Erakusten dituen aztarnen artean, mosaikoen bilduma garrantzitsua dago.

Zoruez gainera -horietako batzuk, *Dulcitus* kasu, ikusgarriak-, lehen solairuko 1. aretotik 5. aretora bitartean, kapitelak, estelak*, botozko aldare-harriak, miliarioak eta bestelako arkitektura-elementuak ageri dira. Bizimoduei buruzko ikuspegia osatzeko, erakusleho batzuetan ikusgai daude ehorzketa-erritu, erlijio eta arteari buruzko elementuak, etxeak eraikitze materialak, etxeko altzariak eta tresneria, apaingarri pertsonalak eta txanponak. Azkenik, erakusleho berezia dago erromatarren eta bisigodoen garai-ko Iruñeari buruz.

Urteak dira Museoak gabineteko pedagogikoa duela bisitak errazteko eta ikasleentzako berariaz pentsatutako langaiak sortzeko. Erromako garaiari dagokionez, ondoko koardernoak azpimarratu behar dira:

HURTADO, M.A., *La vida en Navarra. Prehistoria-Época Romana-Edad Media.*

Izenak berak adierazten duen bezala koadernoak arreta berezia jartzen du Historiaurretik hasi eta Erdi Arora bitarteko Nafarroako biztanleen bizimodua aztertzen. Erromako garaiari dagokionez, gidak iradokitzen du familiako *domusa* aztertzea, mosaikoak, eraikuntza materialak eta etxeko tresneria, eta haien ezaugarriak azaltzen saiatzen da, Museotik bertatik harturiko adibideen bitartez. Bisitaren osagarri, DBHko lehen zikloko hezkuntza mailako egokituriko ariketa batzuk proposatzen dira.

HURTADO, M.A., *La vida en Navarra durante la época romana.*

Kaleratu berri den gida didaktiko honek ibilbide bat egiten du Erroma garaiko aretoetatik, *Pompaelon* jaio eta *Caius Paternus* izena duen ikasle baten eskutik. Testu egokitu batzuk eta zenbait ilustrazio errazek bidea emanen digute garai hartara hurbiltzeko. Gidaren bukaeran, klasean egiteko prestatutako zenbait ariketa eta gaiari buruzko hiztegi berezia aurkituko dituzu

HURTADO, M.A., *La herencia clásica. La romanización.*

Gida didaktiko hau berriaz pentsatuta dago goi maila baterako, batxilergorako. Sakondu egiten du edukietan eta indar berezia jartzen du lurraldearen erromanizazioa bideratu zuten eragileak aztertzean. Aurrekoetan bezala, alde batetik gai multzo bat (erromanizazioa, hiri berrien fundazioa, ehorzketa errituak, zeramika, bide sarea, miliarioak, *Pompaeloko* eraikinak eta zoruak), eta bestetik zenbait jarduerak eta hiztegi berezitua, edukiaren funtsezko atalak dira.

Bereziki egokia da gaiak zabaltzeko jarduerak galdatzen dituzten ikasleentzat.

📍 HIRIA ETA HERRIAK: ANDELÓS ETA ARELLANOKO VILLA

Nafarroako erdi aldeak aukera ematen du, 30 kilometro baino gutxiago eginez, bi multzo berezi bisitatzeko. Tamalez ez dugu haiei buruzko zabalkunde mailako argitalpenik, lengoia erraz eta ulergarrian idatziak, bi multzo horien deskribapena eta interpretazioa egiten duenik. Lan hori beriziki garrantzitsua da arkeologiaz ari garenean, ikusita aztarnategiak bisitatzeko zeinen latz eta zail suertatzen den.

- *Andelos*

Andelos hiri erromatarra Arga ibaiaren gaineko terraza batean dago, Mendigorriako udalerrian, Nuestra Señora de Andión izeneko ermitaren ondoan. 16tik 18 hektarea arteko zabalera du, *Pompaelok* baino gehiago, eta aurkituriko aztarnen garrantzia ikusita, Nafarroan erromatarren garaian zeuden jendegune garrantzitsuenetako bat zen. Hura bisitatzerakoan funtsezko bi puntu hartu behar dira kontuan:

- Sistema hidraulikoa. Horrek hiru atal bereizten ditu.
 - Ura biltzeko uharka. «Deabruaren zubia» izenarekin ezagutzen da eta ur-biltegi erregulatzaitetik bi kilometrotara dago.
 - Ur-biltegi erregulatzaillea. Poligono irregular baten egitura du; 7.600 metro kubiko ur hartzeko adinakoa da.
 - «Giltzen ganbera» eta akueduktua, ura hiriraino eramateko: 700 bat metro luze da. Abiapuntua eta zutoien zimentuak baizik ez da kontserbatu.
 - Hiri egitura. Erretikula bat osatzen duten zenbait kale kontserbatu dira, bai eta zenbait etxetako planta ere, zoru edo mosaikoak eta guzti.
- *Arrellanoko villa.*

Allo eta Arronitz lotzen dituen errepidetik hurbil dago, «Alto de la Cárcel» esaten dioten alderdian; bertara lurzati antolamendua dela-eta egindako bide batetik iritsi daiteke.

Villak alderdi zabal eta nahiko urtsu bat menperatzen du, Erromako garaian laku artifizial bat zegoen tokia. Asentamendua K.o. I. mendean hasi zen eta V. mendearen erdira arte iraun zuen; une hartan utzi edo suntsitu eginen zuten.

Oraindik indusketa aldian badago ere, hura bisitatzean ondoko puntuak hartu behar dira kontuan:

- Dolarea eta ardotegia: azken hori tamaina oso handiko egitura batean dago, eta batez ere *doliak* (ardo gordetzeko ontzi handiak) edukitzeko erabiltzen zen.
- *Dominusaren* (jauna) bizietxea: hangoa da hain ezaguna den «musen mosaikoa», Madrilgo Arkeologi Museo Nazionalean dagoena, eta beste gela batzuk, horiek ere interes handiko mosaikoekin.
- *Taurobolioa* (etxeko santutegi txikia), non arazketa eta erregenerazio errituak egiten ziren animalien sakrifizioko odola erabiliz.

📍 BISITA ERRIOXAKO MUSEORA: CALAGURRIS.

Errioxako Museoa, bere hezkuntza eta kultur ekintzarako departamentuaren bitartez, fitxa didaktikoak argitaratzen aritu da, biltzen dituen obra garrantzitsuenak ikasleek ezagun ditzaten. Horien artean *Calagurris* antzinako hiri baskoiari dagozkion materialen aukeraketa bat ikus daiteke. Calagurris gaurko Errioxako Autonomia Erkidegoko hiri erromatar garrantzitsuena izan zen.

Lehenbiziko fitxa hiri hartako bizimoduaren elementu eta alderdi nagusietan zehar egindako ibilbide zehatza da: *oppidum kalakorikos* izenekoak, guda sertoriarrak, *municipium Calagurris Iulia Nassica* esaten zitzaiona, komunikazio bideak, harresien ingurua, zirkoa, instalazio hidraulikoak, etxebizitza, epigrafia, jarduera ekonomikoak, etxeko ostilamendua, agerkari artistikoak eta *Calagurris*ek Inperioko kultur bizitzarako egin zituen ekarpenak. Haren aurkibide benetan osatua onarritzko bibliografia eta iturri klasikoekin bukatzen da.

Gida honen osagarri, orri didaktiko bat banatzen da; bertan, arestian aipaturiko alderdi horietako bakoitzari buruz ikasleek egin beharreko ariketa batzuk biltzen dira.

Bisita bereziki gomendagarria da Nafarroako erdi aldeko eta Erriberako ikastetxeentzat. Errioxako Museoarekin harremanetan jartzeko jo 941-29 12 59 telefono zenbakira.

2.9. SINTESI PERSONALA


Behin *Sintesi historikoa* irakurri eta egin beharreko ariketak burutu dituzunean, garai honen ikasketari buruzko zure amaierako testua idazteko moduan zaude.

- ❶ Zeure hitzak erabiliz, egin ezazu aztertutako garaiari buruzko hamar esaldiko laburpena, ideia nagusiak emanaz.
- ❷ Esaldi bakoitza osatzeko, idatz itzazu haren ideia osagarriak.
- ☐ ❸ Bi folio baino gutxiagotan, egin ezazu ikasitako garaiari buruzko sintesia; bertan, izenburu nagusia, lerroaldean lerroburuak, ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak eman beharko dituzu.

3. BALIABIDE DIDAKTIKOAK


3.1. MAPAK

ERROMA GARAIKO GALTZADA ETA HIRIAK



Iturria: CARRASCO, J. eta FLORISTÁN, A. (koord.), *Historia Ilustrada de Navarra*, 1, 35. or.

ERROMA GARAIKO POPULAZIOA ETA AURKIKUNTZAK



Iturria: CARRASCO, J. eta FLORISTÁN, A. (koord.), *Historia Ilustrada de Navarra*, 1, 35. or.

3.2. BILAKAERA KRONOLOGIKOA

- K.a. 218** Eszipion Ampuriasen lehorreratu zen.
- K.a. 195** Katon Hispaniara heldu zen.
- K.a. 89** Erromako herritartasuna eman zitzaien Turma Salluitana osatzen zuten zenbait zaldun baskoiri.
- K.a. 76** Sertorio eta Pompeioren arteko guda. Sertoriok Cascantumeko eta Graccurrisko uztak txikitu zituen.
- K.a. 75-74** Pompeio Handiak Pompaelo sortu zuen. Hiriak haren izena hartu zuen.
- K.o. 69** Galbak kohorte baskoiak erreklutatu zituen Neronen aurkako altxamendurako.
- 105-157** *Cohors II Hispaniorum Vascorum* izenekoa dokumentatuta agertzen da eta Inperioko toki ezberdinetan destinatua.

III. mendearen

bukaera Franko eta alemaniarren inbasioa; Pompaelo suntsitu zuten.

IV. mendea

*Pompaelo*ko harresia eraiki eta hiria berreraiki zen.

- 409** Alano, bandalo eta sueboen bandak Iruñeko lurraldea zeharkatu zuten Penintsularen erdi aldera bidean.
- 443** Erromako gudalosteak bagauda edo bandoleroen aurka borrokatu zuen.
- 476** Romulo Augustulo, Erromako azken enperadorea, tronutik kendu zuten.
- 484-507** Godoek, Akitanian asentatuta zeudenak, Nafarroako gaurko lurraldea zeharkatu zuten migrazio olde ezberdinetan.
- 541** Gudaloste franko-merobingioak Iruña zeharkatu zuen Zaragozara bidean.
- 589** Liolo Iruñeko apezpikuak Toledoko III. Kontzilioko aktak sinatu zituen.
- 621** Suintila erregeak prisionero baskoiak erabili zituen *Oligito* eraikitzeko.
- 653** Mendietako baskoiek Froia lagundu zuten Rezesbinto errege godoaren aurka.
- 672** Bamba errege godoak zazpi egunetan bukaera eman zien baskoiek egindako gehiegikeriei.
- 711** Musulmanak Algecirasko badian lehorreratu ziren, Rodrigo errege godoa Iruñeko lurretan geratzen den bitartean baskoien aurka borrokatzen.

3.3. HIZTEGIA

botozko

aldare-harri: aldare, gehienetan txikia, sakrifizioak egiteko erabiltzen dena.

epigrafia: antzinako monumentu edo gauzetan ageri diren inskripzioak ikertzen dituen zientzia. Inskripzioen euskarria harria edo metala izan ohi da.

estatutu

juridiko: Erromatar Inperioko herritarrek zituzten eskubide eta betebeharrak.

estela: monumentu txikia, gehienez ere monolitikoa, zerbait ospatzeko edo zerbaiten oroigarri eraikitzen dena.

nekazari

bihurtzeko

prozesu: prozesu geldo bat, zeinaren bidez hiriak, Erromatar inperioaren funtsezko elementuak, bidea uzten dion beheraldi ekonomiko eta sozialari.

numismatika: txanponak eta dominak, batez ere antzinakoak, ikertzen dituen zientzia.

urregintza: metal bitxien gaineko lan artistikoa.

3.4. ZENBAIT LIBURU LAGUNGARRI

GUIBERT NAVAZ, M.E. eta BESTE BATZUK, *Prehistoria, Historia Antigua y Media*, 209-345 or.

PERÉX AGORRETA, M.J., *Los vascones (el poblamiento en época romana)*, Iruña, 1986.

Estu-estuan liburu zientifikoa bada ere (doktoretza tesi baten laburpena da), zenbait kapitulutan baskoiekin zerikusia duen guztiarenganako interes berezia azpimarra daiteke. Orri probetxagarrienak 251-256 orrialdeak dira: haietan egileak ondorioen laburpena egiten du. Berrikuntza gehiegi ere ekartzen ez badu ere, gaiaren egoerari buruzko sintesi egokia da.

MEZQUÍRIZ, M.A. eta BESTE BATZUK, *Museo de Navarra*, Iruña, 1989, 20-58 or.

Nafarroako Museoko gida honek, garaietako bakoitzerako sarrera-testu bat eta bestelako testu osagarriak biltzen ditu, alderdi bereizgarrienak komentatzeko argazkiez gainera. Erromanizazioari buruzko atala garai horretan aditu handia den María Ángeles Mezquírizek idatzia da.

Garaiari buruzko ikuspegi orokor gisa, egokia da bisita prestatzeko edo gaia zabalteko jarduerak aurkitzeko.

ETXARTE, A. eta BESTE BATZUK, *Propuesta curricular para la enseñanza de la Historia. Las formas de vida romanizadas en Navarra*, Iruña, 1992.

Egile hauek egindako proposamena irakasleentzako lan-erreminta gisa pentsatuta dago. Ikasleentzako eduki, jarduera eta materialen hautaketa bat eskaintzen du.

Alderdi teorikoak -curriculum-diseinuaren eredua hautatzeari buruzko gogoeta eta eduki historikoaren prestaketa didaktikoa kasu- alde batera utzita, testuak irakaskuntza-ikaskuntza jardueren proposamena egiten du, sei multzotan banatua. Gaienez zerrenda bat, bibliografia zabala eta testu asko dituen eranskin bat ere ageri dira lan horretan.

Gure proposamena zuzenduta dagoen ikasleentzako liburu konplexuegia gerta badaiteke ere, interesgarria da aplikatzen duen eredurengatik eta ikasgelan erabil daitezkeen testu eta grafikoaren bildumarengatik.

FORTÚN, L.J. eta JUSUÉ, C., *Historia de Navarra I*, 34-55 or.

CARRASCO, J., eta FLORISTÁN, A. (Koordinatzaileak), *Historia ilustrada de Navarra 1*, 33-56 or.

3. UNITATE DIDAKTIKOA

BEREZKO NORTASUNA: IRUÑEKO ERRESUMATIK NAFARROAKO ERRESUMARA

1. KONTZEPTUEN ESKEMA.

2. LANERAKO PROPOSAMENAK.

- 2.1. Sintesi historikoa.
- 2.2. Lurraldea eta kanpoko mehatxuak (VIII-X mendeak).
- 2.3. Iruñeko erresumatik Nafarroako erresumara (XI-XII mendeak).
- 2.4. Nafarroako Goiz Erdi Aroan bizi eta hiltzea.
- 2.6. Nafarrak agerian: Aymeric Picauden deskribapena.
- 2.7. Gizarte anitz bat: hizkuntzak, erlijioak, kulturak.
- 2.8. Hiru aukera ikasgelaz kanporako

3. BALIABIDE DIDAKTIKOAK.

- 3.1. Mapak.
- 3.2. Bilakaera kronologikoa.
- 3.3. Hiztegia.
- 3.4. Zenbait liburu lagungarri.

1. KONTZEPTUEN ESKEMA

4. Bisigodoetatik musulmanetara (VI-VIII mendeak).
 - 4.1. Bisigodoen menperaldia.
 - 4.2. Musulmanen etorrera

5. Iruñeko erresumaren sorkuntza eta goren unea (X-XI mendeak).
 - 5.1. Konkisten hasiera.
 - 5.2. Iruñeko erresuma bere goren unean.
 - 5.3. Nekazarien gizarte bat.
 - 5.4. Gizarte kristau bat.
 - 5.5. Bizi ekonomikoa.

6. Iruñeko erresumatik Nafarroako erresumara (XI-XIII mendeak).
 - 6.1. Iruñearen errekonkista bukatzen da (1076-1134).
 - 6.2. Nafarroako erresuma eta haren behin betiko mugak.
 - 6.3. Frankoen hiribilduak.
 - 6.4. Erljio-gutxiengoak.
 - 6.5. Aldaketa ekonomikoak.
 - 6.6. Done Jakue Bidea.
 - 6.7. Arte erromanikoa: erromesaldiaren artea.

2. LANERAKO PROPOSAMENAK

2.1. SINTESI HISTORIKOA: ESKEMA

Testua irakurri eta azpimarratu ondoren, hari buruzko eskema bat egiteko moduan zaude.

Eskema bat egiteko:

- Arreta jarri testuaren ideia nagusietan.
- Labur ezazu ideia nagusi bakoitza esaldi edo izenburu batean. Batzuetan jada laburtuta izanen duzu lerroalde bakoitzaren lehenbiziko lerroetan.
- Idatz itzazu ideia horiek aparteko orri batean.
- Arreta jarri, orain, azpimarratu dituzun bigarren mailako ideietan; idatz itzazu laburtuta bakoitzari dagokion ideia nagusiaren izenburuaren azpian.

Ona izateko, eskema batek baldintza hauek bete behar ditu:

- Testuaren ideia nagusiak jasoko ditu.
- Testuaren antolamendu logikoa argitasunez aurkeztuko du.
- Esaldi laburrak eta erraz ulertzeko modukoak erabiliko ditu.

Eskema bat egiteko modu ezberdinak erabil ditzakezu:

- Giltzak.
- Zenbakiak.
- Letrak.
- Eredu mistoa.

Aurreko iradokizunak ikusita:

- ❶ *Irakur ezazu arretaz Sintesi historikoaren 5. kapitulua. Aipa itzazu, hurrenkeran korrelatiboan, haren ideia nagusiak.*
 - ❷ *Idea nagusi bakoitzaren barruan, aipa itzazu bigarren mailako ideia aipagarrienak.*
- ☐ ❸ *Egin ezazu aurreko ariketa testuan agertzen direnez bestelako hitz eta esaldiak erabiliz.*

2.2. LURRALDEA ETA KANPOKO MEHATXUAK (VIII-X MENDEAK)

Sintesian biltzen diren datuez baliatuta, erantzun ondoko galderari:

❶ MUSULMANEN «KONKISTA»

- *Aipa itzazu musulmanen jarduteko modu oinarritzakoak, bisigodoen erresuma azkar konkistatzea bideratu zutenak.*
 - *Zehaztu ezazu Nafarroako zein lurraldetan izan zen haien presentzia ugariagoa eta garrantzitsuagoa.*
 - *Gogora ezazu lurraldea mende horietan menperatu zuen familiaren izena.*
- ☐ • *Aipa ezazu musulmanen subiranotasuna nola gauzatu zen Nafarroan.*

② FRANKOEN MEHATXUA: ORREAGA ETA HAREN ESANAHIA

- Askotan entzun izanen zenuen Orreaga aipatzen. Saia zaitetz idatziz jartzen izen horrek zer ekartzen dizun gogora.
- *Sintesia irakurri eta Nafarroako Atlaseko mapak aztertu ondoren, erantzun ondoko galderai:*
 - *Non dagoen Orreaga.*
 - *Batailaren arrazoiak.*
 - *Batailan borrokatu zuten aldeak.*
 - *Ondorioak.*
- Horretaz gainera, Orreagak ospea du beste arrazoi batengatik. Gogoratzen al zara zergatik?
- • Gogora ezazu literaturan nola islatu zen.

③ BURUZAGI* AUTOKTONOAK*.

- • Saia zaitetz aurreko bi hitz horien ordezt hitz arruntagoak, antzeko esanahia dutenak, jartzen.
- *Aipa ezazu IX. mendean agindu zuen familiaren izena.*
- *Zehaztu zein den haiek menperatzen zuten oinarrizko lurraldea.*
- *Zehaztu zein lurralde hartzen zuten eta aipa itzazu haien autonomia indartzeko erabili zituzten bitartekoak.*

2.3. IRUÑEKO ERRESUMATIK NAFARROAKO ERRESUMARA (XI-XII MENDEAK)

Sintesi historikoa irakurri eta Nafarroako Atlaseko mapak aztertu ondoren, saia zaitetz ondoko galderai erantzuten:

① ERRESUMAREN SORKUNTZA: X. MENDEA

- Seinala ezazu Iruñeko erresumaren hasierako guneak gutxi gora-behera zer lurralde hartzen zuen.
- Aipa itzazu izen hori izateko arrazoiak.
- *Azpimarra ezazu X. mendeko erregealdi garrantzitsuena eta Iruñeko monarkiak garai horretan bereganatu zituen lurraldeak.*
- Aipa itzazu lurralde menperatua zabaltzeko erabili zituzten bitartekoak.

② ERRESUMAREN GOREN UNEA, XI. MENDEA

- *Aipa itzazu XI. mendeko erregealdi garrantzitsuena eta Iruñeko monarkiak garai horretan bereganatu zituen lurraldeak.*
- Aipa itzazu Iruñeko erresuma 1076 urtean banatzeko arrazoiak eta horren ondorioak.

③ ERRESUMAK IZENA ALDATZEN DU: XII. MENDEA

- *Aipa itzazu XII. mendearen lehenbiziko erdiko erregealdi garrantzitsuena eta Iruña-Aragoa erresumak bereganatu zituen lurraldeak. Aipa ezazu eskualde horretako hiri garrantzitsuena zein den.*
- *Esan ezazu lurraldeak noiz aldatzen duen izena. Zein erregealditan izan zen?*
- Aipa itzazu aldaketa horren arrazoiak.

④ BEHIN BETIKO MUGAK: AMAIERAKO SINTESIA.

Azter itzazu arretaz Nafarroako Atlasean 42. orrialdetik 48. orrialdera bitartean biltzen diren mapak. Horietan erresumaren mugek izandako bilakaera biltzen da, zabalpen handiena izan zuen unetik hasi eta gaur egun arte.

Aipa itzazu bilakaera horren mugarri garrantzitsuenak, eta zehatz itzazu ondoko puntuetan:

- X. mendea:
 - Antso I.a Gartzesek _____ konkistatu zuen/zituen.
 - Mendearen bigarren erdialdean _____ lurraldeak bereganatu zituen.
- XI. mendea:
 - Antso Azkarrak _____ konkistatu zuen/zituen.
 - Bera hil ondoren, erresumak _____ bereganatu zituen.
- XII. mendea
 - Alfontso Borrokalariak _____ konkistatu zuen/zituen.
 - Gartzia Ramirezek _____ (e)an erresuma berrezarri zuen.
 - Haren menpeko lurraldeak _____ hartzen zituen.
 - Antso Azkarrak _____ behin betiko galdu zuen.
 - Antso Azkarrak _____ (e)n sartzen hasi zen.
 - Erresumak hartzen zuen eta gaur egun Nafarroan ez dagoen lurralde bakarra _____ da.

2.4. GOIZ ERDI AROAN NAFARROAN BIZI ETA HILTZEA

«Nola edo hala, erresumako herritar gehienak nekazaritzatik bizi ziren. Koroak, aitonen semeek eta goi kleroak lur jabeen talde hautatua osatzen zuten. Gainerako herritarrak, gehiengo handia, nekazariak ziren, "txiroak, petxariak", landa-lurrak, "etxaldeak", bizi guztian lantzen zituztenak, jabeari edo "jaunari" errenta edo "petxa" bat ordainduta, eta jaunak bere kontsumorako gordetzen zituen jabegoetan nekazari-lanak edo "laboreak" eginez. Beste edozein kristauk bezala, edozein zela ere haien egoera, beren dirusarreraren hamarretik bat, "hamarrena", elizari ordaindu behar zioten, obretarako gastuak, kultura eta kleroaren mantentimendua ordaintzeko [...] Horrela, bada, eguneroko bizitza ia bakarrik urteko nekazaritza lanak egitera eta uztak horretarako bidea ematen zuenean nekazaritzak ematen zituen fruituak gozatzeraz mugatuta zegoen.

Landaketa ohikoenak, zereala, mahatsa eta txandakako* leguminosoak ziren, eta lugorrialdi luzeak uzten ziren. Gehiena golde erromatarren antzinako teknika erabiliko zen, zurezko nabar bat lurrean ildo egiteko baizik balio ez zuena, lurra ia nahastu gabe. Golde erromatarra gizonek edo idi-pareak tiratzen zuten [...]. Ongarria, ordea, oso eskasa zen: ikuiluetan edukitzen ziren abereak oso gutxi ziren, eta lortzen zen ongarria etxe ondoko baratza txikietarako gordetzen zen; haietan barazki eta lekadun preziatuenak lantzen ziren.

Elikaduraren oinarria opila izaten zen; horretaz gainera zenbait barazki eta lekadun. Etxeko mortairu* eta errotarriek* irina egiten zuten zerealekin (garia, garagarra, oloa), nahiz eta orduan errota "industrialak" hasi ziren ur-korronteen ondoan; gutxi ziren, hala ere. Soilik zerri edo ardi bat zahartu edo ustekabeen hiltzen bazen jaten zen haragia. Abereak ahal zen guztian hazitzea funtsezkoa zen, haragi "soberakinak"* izan eta salmenta txikiak edo trukeak egin ahal izateko; xede horretarako gordetzen ziren ere barazki onenak eta uztaren soberakinak, halakorik bazegoen.

Tornuz egindako edo egositako zeramikazko ontziak, eltzeak, pitxerrak eta platerak sukaldeko tresna ia bakarrak ziren; zurezko kaiku eta goilareek etxeko ostilamendua osatzen zuten; tenedoreak beranduago agertuko ziren eta beira ia ez da erabiltzen etxe arruntetan [...].


Zenbait herri kenduta (Naxera, Kalagorria eta gutxiago Iruña), lurraldearen gainerakoa herrixken mo-saiko usua da, bereziki trinkoa Iruña eta Irunberriko aldeetan eta Pirinioko eta Pirinio aurreko mendietako mendipeko ibarretan; mila jendegune inguru zeuden erresumaren bihotza egiten zuten eskualde horietan [...].

Jendegune horiek plano irregularra izaten zuten, eta gehienetan etxebizitza angeluzuzenak izaten zituzten, 40 edo 50 m-koak. Hartxabal finezko teilatuak zituzten, bi isuraldekoak, eta gela bakarra edo bi gela, zeinetan pertsonak eta animaliak elkarrekin bizi ziren; gehienetan etxeak elkarrekin loturik zeuden, agian leku urria probetxatzeko edo eraikuntza lanak errazteko; beraz horma komunak zituzten eta ondo-ondoan edo etxetik hurbil baratzak. Datu horiek egindako indusketa arkeologikoetan ikusi ahal izan dira. Haiei esker garai hartako tenpluak ere aurkitu dira, nekazari herrietako erromanikoaurrekoan* sailka daitezkeenak; izan ere, XI. mendera arte luzatu baitzen estilo hori. Elizen ondoan, bestelako erabileretarako probetxu gutxiko lurretan, hilerriak aurki daitezke; hilobiak hartxabalekin estalita ageri dira».

MIRANDA, F., *Historia ilustrada de Navarra*, 1, 91-93 or.


❶ *Adieraz itzazu testuak aipatzen dituen bost ideia nagusiak.*

❷ *Jakinen al duzu testuari ideia guztiak bilduko dituen izenburua ematen?*



Iturria: JUSUÉ, C. eta FORTÚN, L.J., Historia de Navarra I, Iruña, 1993, 64. or.

Erdi Aroko etxebizitza baten plano. Apardoze.
Urraul Beiti.



Iturria: FORTÚN, L.J. eta JUSUÉ, C., Historia de Navarra I, Iruña, 1993, 65. or.

Askozeko despopulatuko elizaren plano.
Urraul Beiti.

③ Egin ezazu osotasunezko eskema oinarrizko bat, ondoko gaiei buruz:

- Indar gehien zuen gizarte egitura.
- Funtsezko zergak.
- Ohiko landaketak.
- Ohiko elikadura.
- Oinarrizko ostilamendua.
- Hiriguneak: egitura eta antolamendua.

☐ ④ Zer izen ematen zaio testuan deskribaturiko sistema ekonomiko eta sozialari?
Osa itzazu dauden gizarte klaseak, aurreko lerroaldeetan jaso ez direnak aipatuz.

2.5. BURGOAK ETA BURGESAK: HIRIKO BIZITZAREN HASIERA

«Frankoen taldeak instalatzea, burgoak sortzea eta burgesiaren eratzea ez dira birpopulazio mugimendu hutsak, hiriguneak sortzetik edo zabaltzetik soilik azal daitezkeenak. Aldaketa horiek eraldaketa juridiko zabala egitea ere eskatu zuten, jaunen gizarte bateko moldeak hautsiko lituzkeena, aitonen semeen taldea eta nekazarien multzo zabala ardatz izanen zituera, gizarte-talde berri bat sortuz eta hari zegokion estatutu juridikoa emanez.

Burgoetan asentaturiko biztanle berriek, Pininioz haraindiko lurretatik etorritakoek, hizkuntza eta ohitura ezberdinak zituzten, eta haien jarduerak edo jarduera horiek burutzeko moduak ezohikoak ziren. Merkataritzak eta artisautzak legezko arau berriak behar zituzten, garatuko baziren [...] Hiriak, izen hori jaso ahal izateko, eta haren biztanleek, frankoek, askatasuna eskatzen zuten; horren bidez azaldu daiteke "franko" kontzeptuak bi esanahi, elkarrekin lotutakoak, izatea: "gizon atzerritarra eta gizon askea".

Frankoen eskubideak bilduko zituen eta hiri berrien garapena bideratuko lukeen legezko estatutu bat zehazteko, foruak eman zituzten erregeek, izan ere soilik horien bidez alda baitzitekeen pertsona bati edo talde bati egindako kontzesioa [...] Franko baten egoera juridiko eta sozialaren oinarria bere askatasun pertsonala eta bere ondasunen tolesgabetasuna ziren: frankoen artean inor ere ez zegoen jaun baten menpe, ez eta hari ondasunak gozatzegatik zentso, petxa edo laboreak eman beharrean ere.

Haien merkataritza edo artisautza jarduera bermatu eta bultzatzeko, foruek zenbait arau ezarri zituzten. Azpimarratzekoa da urtebete eta egun bateko preskripzioa, izan ere franko batek urtebetez bakean erabilitako ondasun baten erreklamazioa eragozten zuena: merkataritza-trafikoari segurtasuna emateko modu bat zen hori. Zigorak ezartzen ahal zitzaizkion hiri bakea eta etxebizitzaren bortxaezintasuna nahasten zituenari. Pisu eta neurriak faltsutzea ere zigortu egiten zen, iruzurren zalbaltzea eragozteko. Betebehar militar gutxi zituzten, bizitza militarretik urrun bizi zen jende bati zegokion bezala».

FORTÚN, L.J., *Historia ilustrada de Navarra 1*, 130-131 or.

Sintesi historikoa, Nafarroako Atlas eta aurreko testua irakurri ondoren, saia zaitez ondoko galderei erantzuten:

- *Koka ezazu denboran, noiz sortu eta garatu ziren jarduera ekonomiko berriak.*
- *Nafarroako mapa batean, seinala itzazu garai honetan agertu ziren hiri eta hiribildu nagusiak. Adieraz itzazu, gainera, nagusiki merkataritzara dedikatzen ziren beste jendegune batzuk, aurretik existitzen zirenak.*
- *Azal itzazu erresumako biztanle berrien eta nekazarien arteko ezberdintasunak, ondoko alderdiei dagokienez:*
 - jatorria
 - hizkuntza
 - jarduera
 - bizitokia
 - egoera juridikoa
- • *Egin ezazu gogoeta bat frankoen eta jada ezagutzen dituzun gainerako gizarte-taldeen arteko harremani buruz. Azal itzazu harreman horien alde onak eta alde txarrak.*

2.6. NAFARRAK AGERIAN: AYMIC PICAUDEN DESKRIBAPENA

Kontakizun honen egilea XII. mendeko apaiz frantses bat da, Aymeric Picaud izeneko, *Guía del Peregrino a Santiago de Compostela, Codex Calixtinus edo Liber Sacti Iacobi* liburua idatzi zuena.

«Somportetik hasi eta Gareseraino, hauek dira Done Jakue Bidean aurkitzen diren herriak [...], gero Lizarra dago, emankorra ardo onari eta ardo bikainari dagokionez, bai eta haragi eta arrainetan ere, eta mota guztietako gauzez hornitua» [...]

«Ibar hori (Orreaga) pasa ondoren, nafarren lurra dago, aberatsa ogi, ardo, esne eta abereetan. Nafarrek eta euskaldunek antzeko ezaugarriak dituzte bazkarietan, janzkeran eta hizkuntzan, baina euskaldunek nafarrek baino aurpegi zuriagoa dute. Nafarrek jantzi beltz eta motzak eramaten dituzte, belaunetaraino, eskoziarrek bezala, eta "abarkak" izeneko oinetakoak eramaten dituzte, ilea landu gabeko larruz egindakoak, eta uhalekin lotzen dituzte oinetan; oinetako horiek oin plantak baino ez dituzte estaltzen eta gainerakoa agerian uzten dute. Artilezko burusiak eramaten dituzte ukondoetaraino, orla eta guztidunak, kapote baten antzekoak: saiak esaten diete. Ikusten denez, gaizki janzten dira, eta jan eta edan ere gaizki egiten dute, izan ere nafar baten etxean familia osoak jaten baitu, morroiak etxeko jaunak bezala, otseinak etxeko andreak bezala, eta plater guztiak eltze bakarrean nahasten dituzte, eta ez dute goilarerik erabiltzen, eskuekin jaten dute; eta pitzar beretik edaten dute. Jaten ikusi eta zakurrak eta zerriak ematen dute. Eta hizketan etzun eta zakurrek zaunka bezala egiten dute, hain da barbaroa haien hizkuntza. Jainkoari "urcia" esaten diote; Jainkoaren Amari "andrea Maria"; ogiari "orgui"; ardoari "ardum"; haragiari "aragui"; arrainari "araign"; etxeari "echea", etxeko jaunari "iaona"; etxeko andreari "andrea"; elizari "elicerca"; apaizari "bellaterra", lur ederra esan nahi duena; gariari "gari"; urari "uric"; erregeari "ereguia"; eta Done Jakueri "iaona Domne iacue".

Herri basa da, besteetatik ezberdina ohituretan eta izaeran, gaiztakeriez betea, beltz kolorekoa, nobleziarik gabeko itxura duena, maltzurak dira, makurrak, azpikeriadunak, desleialak, mozkorrak, erasokorrak, basati eta ankerrak, bihozgabeak eta galduak, fedegabeak eta gogorrak, ankerrak eta doilorrak [...] eta gure herri galoaren etsai amorratuak. Txanpon mixerable batengatik, nafar batek edo euskaldun batek, ahal badu, frantses bat garbituko du [...]. Hala eta guztiz ere, ausartak omen dira bataila zelaietan, saiatuak erasoetan, zintzoak hamarrenak ordaintzerakoan, iraunkorrak aldareko eskaintzetan...»

❶ Egin ezazu kontakizun honen azterketa laburra. Arreta berezia jarri ondoko alderdietan:

- Alderdi ekonomikoak: bizimodua eta jarduera nagusiak.
- Alderdi sozialak: antolamendua.
- Hizkuntz alderdiak: erabiltzen duten hizkuntza eta hiztegia.
- Alderdi etnologikoak: aipatzen diren herriak.

❷ Litekeena da kontakizuna deigarria iruditzea. Ez gaude ohituak kalifikazio hain gogorrak entzutera. Historia egitea jokamolde horren zergatiak aztertu eta arrazoiak interpretatzea da.

- Iruditzen al zaizu grinarik gabekoa apaiz frantsesaren ikuspegia?
- Zer arrazoi izanen zituen hain irudi ezkorra emateko?

③ Hasierako zatian, Aymerid Picaudek gauza onak esaten ditu Lizarrako biztanleei buruz.

- Sar al daiteke Lizarra ezagutzen duzun hiri-multzo batean?
- Zer gizarte-taldetakoak ziren, funtsean, Lizarrako biztanleak?
- Zer nolako harremana izanen zuten testuko egilearekin?

④ Azpimarra ezazu, azkenik, testuaren garrantzia.

2.7. GIZARTE ANITZ BAT: HIZKUNTZAK, ERLIJOAK, KULTURAK

Aurreko ariketetan aukera izan dugu zenbait gizarte-taldetako jatorria eta bilakaera ezagutzeko: aitonen semeak, nekazariak eta burgesak, frankoak edo ruanoak. Beste bi gizarte-talde eransten ahal zaizkie horiei: juduak eta mairuak.

Elementu guztiak erabiliz, erantzun ondoko galderi:

① *Talde horietako bakoitzeko herritar gehienen hizkuntza.*

② *Horietako bakoitzaren erlijioa.*

③ *Talde bakoitzari loturiko funtsezko jarduera ekonomikoa.*

④ Aplikatu iezaiozu egoera hori Iruña hiriarri; haren planoan Nafarroako Atlaseko 48. orrialdeko 2. mapan aurkituko duzu.

- Non bizi ziren gizarte-talde garrantzitsuenak?
- Zer jarduera garatzen zituzten jendegune bakoitzean?
- Zein izanen zen horietako bakoitzean gehien hitz egiten zen hizkuntza?
- Aipa itzazu Tuteran eta Iruña alderatuta batean falta eta bestean agertzen diren gizarte-taldeak.

☐ ⑤ Ondoren, XII eta XIII. mendeetan, Nafarroako erresumako biztanleen bizimoduaren ezaugarriak ziren hitz batzuk jarri ditugu:

- | | |
|---------------|---------------|
| – nekazaritza | – ruanoa |
| – apaiza | – erromantzea |

– infantzoia*	– nafarra
– merkataritza	– forua
– gizon judua	– kaparea*
– frankoa	– buiraka*
– artisautza	– mairu-herria
– probentzala	– burgoa
– abeltzaintza	– mailegua
– musulmana	– andre judua
– hebraiera	– azoka

□ • Antola itzazu hitz horiek, bakoitza dagokion izenburupean jarritz:

- Jarduera ekonomikoak.
- Gizarte-taldeak.
- Hizkuntza.
- Erljioa.

⑥ Orain arteko guztia ikusita, defini ezazu hitz edo esaldi batez garai hartako gizarte nafarra. Zein da guztiak batzen eta menpe hartzen dituen elementua?


2.8. HIRU AUKERA IKASGELAZ KANPORAKO

Nafarroako hiri nagusien hirigintzaren bilakaerak agerian utzi du doi-doi Erdi Aroko etxeguneen osaketa. Hala ere, hiru hiri aipagarrienak –Iruña, Tuter eta Lizarra– xeheki aztertuz gero kasu batzuetan ikusiko dugu eta beste batzuetan somatuko dugu izan bazirela nafarren, frankoen, juduen eta mairuen auzoak. Horixe da unitate didaktiko honen helburu nagusia.

① BURGOETAKO IRUÑA

Izen honekin, *La Pamplona de los burgos y su evolución urbana*, Juan José Martirenak azterketa xehea egin zuen Erdi Aroko hiriari buruz: liburu horretara jotzen dute oraindik ere gai horretara hurbiltzen diren autore guztiek. Lan irtenaldi hau ilustratuko duen mapak Nabarrieriak eta burgoek XIII. mendean zuten antolaketa biltzen du.

IRUÑEKO NABARRERIA ETA BURGOAK XIII. MENDEAN



Iturria: CARRASCO, J. eta FLORISTÁN, A., (Koord.), Historia ilustrada de Navarra 1, 140. or.

Zabalkude mailako argitalpenak ez dira bereziki ugari izaten. Batez ere Lehen Hezkuntzako arloari zuzenduta badago ere, Iruñeko Udalak zenbait gai argitaratu ditu Iruñean zeharko irteera bat erraz antolatzeko. Horren egileak «Eneko Aritza» elkarteko kideak dira, gure historia eta ondarea ederki ezagutzen dutenak eta daki-tena besteei helarazteko hamaika ahalegin egindakoak:


- *Conozcamos Pamplona, Iruña, 1995.*
- *Conozcamos Pamplona. Actividades, Iruña, 1995.*
- *Iruña zure eskuetan, Iruña, 1997.*

Iruñeko Udalak, halaber, programa bat du hiria ezagutzeko zenbait ibilbide biltzen dituera. Edozein taldek egin dezake bisita hori, «Eneko Aritza» taldearekin aldez aurretik hitz eginda. Telefono honetara jo behar da: 948 27 30 54.

Grafiko baten eta gaurko Iruñeko plano baten laguntzarekin:

- *Koka itzazu Erdi Aroko hiru burgoak gaurko kaleak erabiliz.*
- *Aipa ezazu zein ziren burgoen mugak eta haien arteko bereiz-lerroak.*
- ☐ • *Saia zaitetz puntu jakin batzuen esanahia eta garrantzia ezagutzen: hobiak, atariak, belenak, gotorleku-elizak.*

② LIZARRAKO ERDI AROKO AUZOAK



Iturria: RAMÍREZ, E, *Historia de Navarra II*, Iruña, 1993, 49 or.

Erdi Aroko Lizarrara bisita egiteak pizgarri ugari eta zailtasun gutxi ditu. Turismo bulegoak, hirigune historikoan bete-betean kokatuta dagoenak, Nafarroako Erregeen jauregiaren ondoan dagoen San Nikolas kalean, erraztasun guztiak ematen ditu informazioari eta pertsonalari dagokionez.

Bisita prestatzeko behar den langaia izan daitezkeelakoan, azken hamarkadan agertu diren bi testu gomendatuko ditugu:

SOLA, A. eta ROS, T. *Estella, posta y mercado en la Ruta Jacobea*, Lizarra, 1992.


Hiria sortu zeneko 900. urteurrena ospatzeko pentsaturiko testua da; ospakizun hori 1990ean izan zen. Liburuaren aurkibide zinez erakargarrian, honakoak aurki daitezke: Done Jakue Bidea, foruak eta azoka; Lizarrako babesak; Lizarrako biztanleak Erdi Aroan; Erdi Aroko hiriaren bilakaera-prozesua; aukeraketa bibliografikoa

eta dokumentala; ibilbideak herrian eta gazteluetan barna, eta gaurko Lizarrari bu-
ruzko hautaketa grafikoa.

ITÚRBIDE, J., *Lizarra*, Panorama bilduma, 21. zk., Iruña, 1993.

Zabalkunde mailako liburua da, 74 orrialdekoa; bertan, ibilbide egokia egiten da Lizarra historikoan barna, Antzin Arotik hasi eta gaur egun arte. Arreta berezia jartzen da merkataritzaren proiektzioan, Done Jakue Bidean, alderdi militarrean eta elizari dagokion alderdietan; izan ere, Lizarra hiriaren bizimodua definitu zuten ho-
rietan guztietan. Testuaren amaieran gida artistiko bat dago, eraikin garrantzitsue-
nak biltzen dituen eta hiriaren bizimoduan sakontzeko kontsultatu beharreko tes-
tuen oinarritzko bibliografia ere ematen duena.

③ HIRU ERLIJIODUN HIRIA: TUTERA



Erdi Aroko Tuterako planoa; mezquita nagusia katedralaren plazan (8. sektorea) ageri da.

Iturria: GARCÍA GAÍNZA, M.C. (zuzend.), *El arte en Navarra*, 1, Iruña, 1994, 18. or.

Tutera da, zalantzarik gabe, Nafarroan hiru erlijio eta kulturen aztarnak argien kontserbatu dituen hiria. Gaur egun ere, zailtasun batzuekin baina, Erdi Aroan zeuden auzoetan barna ibil daiteke.

Kultur ibilbideak, bisita gidatuak, Tuterako Udaletxean eska daitezke, 948 82 30 50 telefonora deituz, edo Turismo Informazioko Bulegoan, 948 82 15 39 telefonora deituz.

Hiria gehiago ezagutzeko, unitate didaktiko hau idazteko unean kaleratzekotan diren bi gidez gainera, hurrengo lanak ere gomendatzen ditugu:

– *Tudela. La Ribera de Navarra*. Iruña, 1987.

– AZNAR, M.R. eta BESTE BATZUK, *Guía histórico-artística de Tudela. Itinerarios por el renacimiento y el barroco*, Tutera, u. g.

3. BALIABIDE DIDAKTIKOAK


3.1. MAPAK

IRUÑA ETA HAREN ESKUALDEA ERROMAKO BERANT-INPERIOKO HISPANIAN




Iturria: CARRASCO, J. eta FLORISTÁN, A., (Koord.), *Historia ilustrada de Navarra* 1, 53. or.

KRISTANDADEA ETA ISLAMA, 778-815




Iturria: CARRASCO, J. eta FLORISTÁN, A., (Koord.), *Historia ilustrada de Navarra 1*, 53. or.

IRUÑEKO ERRESUMA. 925-1029




Iturria: CARRASCO, J. eta FLORISTÁN, A., (Koord.), *Historia ilustrada de Navarra 1*, 70. or.

IRUÑEKO ERRESUMAREN BANAKETA ANTZO IV.a PEÑALENGOA (1076-1087) HIL ONDOREN



Iturria: CARRASCO, J. eta FLORISTÁN, A., (Koord.), *Historia ilustrada de Navarra* 1, 106. or.

JUDUAK NAFARROAN



Iturria: CARRASCO, J. eta FLORISTÁN, A., (Koord.), *Historia ilustrada de Navarra* 1, 150. or.

ERRESUMAKO MAIRU-HERRIAK



Iturria: CARRASCO, J. eta FLORISTÁN, A., (Koord.), *Historia ilustrada de Navarra 1*, 150. or.

3.2. BILAKAERA KRONOLOGIKOA

- 714** Kasiok, Tarazonako konte hispaniar-godoak, bere burua entregatu zion *Muza ben Nusayr* baliari eta Islamen sinesmena hartu zuen.
- 714-718** Iruñeak, itun bidez, Islamen zeharkako subiranotasuna onartu zuen.
- 732-734** Altxamenduak Iruñean, musulmanen subiranotasunaren aurka.
- 756** *Abd al-Rahman I.ak* Kordobako emirgo independentea ezarri zuen.
- 778** Karlomagnok Iruñeko babesak suntsitu zituen. Baskoiak haren erretagoardiaren aurka gailendu ziren Orreagako batailan.
- 781** *Abd a.-Rahman I.a* emirrak Iruña eta eskualdeko buruzagiak mende hartu zituen.
- 806** Nafarrek eta iruindarrek musulmanen subiranotasuna gaitzetsi eta Karlomagnori fideltasuna erakutsi zioten.
- 806-816** Frankoen menperaldia Iruñeko lurraldean; *Velasco al-Yalasqik* gobernatu zuen.
- 812** Ludovico Pio, Karlomagnoaren semea, Iruñean izan zen.
- 841** *Muza ben Muza* eta haren ahaideko Iruñeko *Enneco Arista* Kordobako emirraren aurka altxatu ziren.
- 842-844** *Abd al-Raman II.a* emirrak erasoaldiak antolatu zituen *Muza ben Muza* eta *Enneco Aristaren* aurka. Mende hartu zituen.
- 848** San Eulogio Kordobakoa Iruñean eta Leiren izan zen.
- 851** *Enneco Aristaren* heriotza. Haren seme *Garcia Enneconesek* edo *Gartzia Iñigezek* ordeztu zuen.
- 859** Normandarrek *Gartzia Iñigez* harrapatu zuten eta erreskate baten truke askatu zuten gero.
- 882** *Gartzia Iñigezen* heriotza. Haren ordeztu, *Fortun Gartzes*, Iruñeko baskoien printzea, jarri zen.
- 905-906** Antso Gartzes I.a Iruñeko errege.
- 920** *Abd al-Rahman III.aren* erasoaldia eta Iruñeko porrota Valdejunquera-Muezko gatazkan.
- 922-923** Antso Gartzes I.ak Naiara eta Kalagorriko lurak konkistatu zituen.
- 924** *Abd al-Rahman III.ak* Iruñeko lurak eta hiria suntsitu zituen.

- 929 *Abd al-Rahman III.a* Kordobako emirrak kalifa aldarrikatu zen.
- 981 Antso Gartzes II.ak ituna sinatu zuen Almantzorrekin; hari eman zion bere alabetako bat.
- 992 Antso Gartzes II.ak Kordoba bisitatu zuen.
- 1004 Antso Gartzes III.ak Iruñeko erresuma bere kargu hartu zuen.
- 1025 Antso Azkarra Ribagortzan dago errege.
- 1030 Kordobako kalifatza desagertu zen, taifatan banatuta.
- 1035 Gartzia Santxez III.a Naiarakoa Iruñeko errege.
- 1035 Ramirok, Antso Azkarraren semeak, bere kargu hartzen du Aragoako antzinako konterriaren gobernua.
- 1037 Fernando Gaztelakoak, Antso Azkarraren semeak, Leongo tronua hartu zuen.
- 1045 Kalagorria birkonkistatu zen.
- 1054 Antso Gartzes IV.a Peñalengoa Iruñeko errege.
- 1057 Leireko San Salvador eliza kontsagratu zen.
- 1076 Antso Gartzes IV.a Peñalenen hil zen haitzetik amildu ondoren. Gaztelako Alfontso VI.ak eta Aragoako Antso Ramirezek erresuma hartu zuten.
- 1076 Lizarran burgo bat dago.
- 1097 Erresumaren zatiketa berretsi zen; Antso Ramirezek Alfontso VI.a omendu zuen «Nafarroako konterria» dela eta.
- 1090 Garesen frankoak daude.
- 1096 Iruñean frankoak daude.
- 1104 Alfontso Borrokalariaren erregealdia.
- 1119 Tutera eta Tarazona konkistatu ziren.
- 1134 Gartzia Ramirez iruindarren errege aldarrikatu zen.
- 1150 Antso VI.a Jakituna Iruñeko erresumako errege.
- 1154 Antso VI.a Jakitunak baimena eman zuen Iruñean juduen komunitate bat ezartzeko.
- 1162-63 Nafarroa Errioxako lurraldera zabaldu zen.

- 1194** Nafarrek Bortuz bestaldeko zenbait lurralde mende hartu zituzten.
- 1194** Antso VII.a Azkarrak Iruñeko erresumako errege.
- 1200** Gaztelarrek Araba, Gipuzkoa eta Durangaldea okupatu zituzten.
- 1212** Antso VII.a Azkarrak parte hartu zuen Navas de Tolosako batailan.
- 1231** Antso VII.ak eta Jaime I.a Aragoakoak elkarren semeak semetzat hartu zituzten.
- 1234** Antso VII.a oinordeko zuzenik gabe hil zen.

3.3. HIZTEGIA

- buiraka:** judu eta mairuen komunitate antolatua.
- buruzagi autoktono:** bertako pertsona bat, jendea gudura bidaltzen duena.
- errotarri:** harrizko diskoa, beste harri baten gainean ardatz baten bueltan birarrazten dena. Zerealak ehotzeko erabiltzen da.
- infantzoi:** behe-nobleziako kidea.
- kapare:** behe-nobleziako kidea. Izen hau gero eta gehiago erabiltzen joan zen Nafarroak berezkoago duen infantzoia izenaren orde.
- mortairu:** zurezko, harrizko edo metalezko lanabesa, edalontzi gisa baliatuta, zerealak zehatzeko erabiltzen dena.
- nekazari herrietako erromanikoarre:** Erromanikoaren aurretiko arte-estiloa; eraikin bereizgarrienak harlanduz egindako eliza txikiak dira.
- soberakin:** bizirauteko ekonomian soberan den produktua, truke edo merkataritzarako erabiltzen dena.
- txandakako leguminoso:** labore eta lugorriekin partekaturiko lurretan landatzen diren lekadunak.

3.4. ZENBAIT LIBURU LAGUNGARRI

Goiz Erdi Aroko Nafarroari buruzko monografiak askoz ere gehiago dira aurreko bi garaiei buruzkoak baino. Atal honen helburua ikusita eta kontuan hartuta erreferentziako oinarritzko liburuek, azken biek batez ere, orrialde asko ematen dituztela garai honi buruzko alderdiak aztertzen, ez dugu uste beharrezkoa denik beste libururik gomendatzea.

Gaiak zabaltzeko jarduerak bi testu horien edukiarekin burutu daitezke. Hala eta guztiz ere, L.J. Fortún eta C. Jusuéren liburukiak garaiari buruzko oinarritzko bibliografiaren aukera egokia biltzen du.

GUIBERT, NAVAZ, M.E. eta BESTE BATZUK, *Prehistoria, Historia Antigua y Media*, 351-523 or.

FORTÚN, L.J. eta JUSUÉ, C., *Historia de Navarra I*, Iruña, 1993, 57-158 or.

CARRASCO, J. eta FLORISTÁN, A., (Koord.), *Historia ilustrada de Navarra 1*, 49-176 or.

4. UNITATE DIDAKTIKOA

ERROMANIKOA ETA DONE JAKUE BIDEA

1. KONTZEPTUEN ESKEMA.

2. LANERAKO PROPOSAMENAK.

- 2.1. Sintesi historikoa: laburpena.
- 2.2. Done Jakue Bidea Nafarroan: ikuspegi orokorra.
- 2.3. Erromesa.
- 2.4. Erromanikoa Nafarroan: ikuspegi orokorra.
- 2.5. Arkitektura erromanikoaren ezaugarriak.
- 2.6. Done Jakue Bidea eta erromanikoa Nafarroan.
- 2.7. Nafarroako erromanikoari buruzko laburpen-gida.
- 2.8. Hiru aukera ikasgelaz kanporako.

3. BALIABIDE DIDAKTIKOAK.

- 3.1. Mapak.
- 3.2. Bilakaera kronologikoa.
- 3.3. Hiztegia.
- 3.4. Zenbait liburu lagungarri.

1. KONTZEPTUEN ESKEMA

Done Jakue Bideak eta erromanikoak ez dira bereziki garatu *Sintesi historikoan*. Hiru orrialde baino gutxiago erabiliz, erromes bideari buruzko funtsezko kontzeptuak eta erromanikoaren Nafarroako lan garrantzitsuenak aipatzen ditu. Ezin esan daiteke hori kontzeptuen eskema bat denik. Hala ere, prozesu horiek espazioan eta denboran zuzen kokatzeko, 6. kapituluaren berriz ere gogorarazten dira, XI eta XIII. mendei buruz hitz egiterakoan.

6. Iruñeko erresumatik Nafarroako erresumara (XI-XIII mendeak)

- 6.1. Iruñeko birkonkistaren amaiera (1076-1134).
- 6.2. Nafarroako erresuma eta haren behin betiko mugak.
- 6.3. Frankoen villak.
- 6.4. Erljio-gutxiengoak.
- 6.5. Aldaketa ekonomikoak.
- 6.6. Done Jakue Bidea.
- 6.7. Arte erromanikoa. Erromesaldiaren artea.

2. LANERAKO PROPOSAMENAK

2.1. SINTESE HISTORIKOA: LABURPENA

Laburpena da norberaren hitzak erabiliz testu baten funtsezko edukia azaltzea; irakurketarekin hasten den ikasketa prozesuaren amaiera da. Jada ikasi dituzun unitateak gogoratzen eta errepasatzen lagunduko dizun tresna ere bada. Gainera, oso baliagarria izanen zaizu iturri ezberdinetako informazioa lortzeko testuak kontsultatzerakoan.

Laburpen on bat egiteko, ondoko lanak egin behar dituzu aurrena:

- Poliki eta ulertuz irakurri.
- Ideia nagusiak eta gainerako oinarrizko datuak azpimarratu.
- Testuaren egitura logikoari buruzko eskema egin.

Une honetan ondokoa egin behar duzu:

- Egin duzun eskemari jarraitu.
- Funtsezko ideiak zeure hitzekin adierazi.
- Ideia batzuk eta besteak lotura gramatikalez eta puntuazio zeinuez batu edo elkarrekin lotu, laburpena testu jarraitu gisa irakurtzeko moduan.

Laburpenak batasuna eta zentzua eduki behar ditu, eta laburra eta zehatza izan behar du. Teknika hori praktikatzen baduzu, gero eta laburpen pertsonalagoak egingen dituzu, eta haietan iturri ezberdinetatik lorturiko informazioa sartuko duzu.

Aurreko iradokizunen ondoren,

- ❶ *Irakurri ulertuz Sintesi Historikoaren 6.6. eta 6.7. atalak.*
- ❷ *Azpimarra itzazu testuaren ideia nagusiak.*
- ❸ *Egin ezazu atal horiei buruzko laburpen ahal den eta pertsonalizatuena.*

2.2. DONE JAKUE BIDEA NAFARROAN: IKUSPEGI OROKORRA

«Eta erromesaldi handia hasi zen. IX. eta X. mendeetan apostoluaren kultuak batez ere toki izaera izan bazuen, XI. mendetik aurrera ibilaldiaren indartzea eta nazioarte mailan ezagunagoa egitea etorri ziren. Alde batera utzita Karlomagnoen leienda –izan ere Bidea enperadore handiak askatu zuela esaten zuena, Done Jakue apostoluaren erromes debotua izan balitz bezala irudikatuz–, ezagutzen den lehenbiziko bidaiari atzeritarra Gotescalco izan zen, Le Puy-en-Velay lurralde frantziarreko apezpikua, 950ean Konpostelara joan eta Albeldako San Martin monasterioan, orduan Iruñeko erresumen menpeko lurretan, atsedean hartu zuena.

Une horretarako –hamargarren mendearen erdialdea–, indarrean egon zen Done Jakue Bideko Naiaran barnako desbideraketa, izan ere “Historia Silense” izenarekin ezagutzen den lanaren egile anonimoak Antso III.a Azkarrari egotzi zion desbideraketa. Lehen Arabako lur seguruagoen barna joaten zen [...]. Hala ere, demostratuta dago aipatu kronika horrek Antso Azkarra eta haren birraitona zen Antso Gartzes I.a nahasi zituela, mende bat lehenago. Edonola ere, bai Arabako ibilbideak, bai Naiarakoak, ziur aski, orokorrean bide-sare erromatarraren trazaketa jarraitzen zuten.

XI eta XII. mendeetan gertatuko da erromesaldien gorakada, eta ondorioz Bidearen goren unea, eta errege nafar-aragoarren eta gaztelar-leondarren babesa eta sustapena izan zuen komunikabide gisa.

Antso III.a Azkarraren erregealdian erresumarren lurralde oinarriak indartu ziren; askotan halako “europartasun” bat egotzi izan zaio, baita zeresan handia ere elizaren egiturak berritzaerakoan eta batez ere monasterioetako egiturak berritzaerakoan. Ugari dira garai horretan erromesek Konpostelara bidean jarraitzen zuten ibilbidea finkatzeko dauden datuak. Ibilbide hori, XI. mendearen erdialdetik aurrera, “Done Jakue Bidea” edo “erromesen bidea” edo “bide frantsesa” izenekin ezagutzen hasi zen.

Une horretan ere lehenbiziko berariazko establezimenduak agertzen dira –ospitaleak, aterpe-
txeak edo ostatuak, berdin esaten baitzitzairen batera edo bestera–, erromesari eta behartsuari arreta
egiteko helburuarekin sorturikoak [...]

Erresuma kristauan zehar pertsonen eta salgaien joan-etorri etengabeak Penintsulako egoera
ekonomiko eta soziala aldatu zituen. Bizimodu berriak eta hornikuntza eta laguntza behar berriak eka-
rritako jende horiek, gero eta ugariago izan ziren XI. mendearen erdialdetik aurrera eta XII. mendean
zehar; horrenbestez, azpiegitura berriak sortzearen arrazoia izan ziren. Alfontso VI.aren eta Antso Ra-
mirezen politika komuna pertsonen joan-etorri hori gehiago ezagutaraztea izan zen: bidesariak arin-
du, zubi eta bideak konpondu, harrera eta sustapen lekuak bultzatu; helburua zen benetako hirigu-
neen sorrera bermatzea. Horiek aberastasuna eta kultura sortaraziko zuten; merkataria, artisau eta
negozio gizonen asentamendu egonkor eta finkoa izateko toki erakargarriak izanen ziren.

Jende olde berri horiek, egia esan, ordura arte indarrean zegoen antolaketaren aldaketa ekarri
zuten, izan ere «jende aberatsa, franko eta tolesgabea*» zelako, nekazari bilau* ez zirenak, ez eta ai-
tonen seme edo infantzoi ere, eta hori erabat berria zen erresuman. Etorkin horietatik gehienak
Frantziatik zetozen, erromesen joan-etorri gero eta handiagoak eskatzen zuen lanbideen azpiegitu-
rak ekarriko zituen prosperitate-aukerak erakarriak; eta “burgoak” sortu zituzten, hiri bizimoduan ha-
sitako guneak, benetako hirigunerik ez zuen gizarte batean, gizarte nafar-aragoarrean.

Done Jakue Bidean asentamendu berriak ezartzea, hala ere, ez zen erabaki arbitrarioa izan, izan
ere toki estrategikoetan, bide gurutzeetan, truke puntuetan sortu zirelako, eta haien egoera erregu-
latzen zuen estatutu berezi eta pribatiboa* eman zitzaielako. Horrela, babes ofizialarekin, sortu ziren
Jaka 1076an, eta ia aldi berean Lizarrako lehenbiziko burgoa, eta beranduago, 1122an, Gareskoa, eta
Iruñeko San Zerningoa 1129an.

Jakako foruak aparteko pribilegioak ematen zituen, benetako hiri bat sortzeko ateak zabaltzen
zituztenak: askatasun pertsonala inongo jaunaren mende egon gabe, bizilekuaren bortxaezintasuna,
berezko jurisdikzioa, merkataritzarako askatasuna eta ordura arte ia pentsaezinak ziren salbuespen*
ekonomikoak.

Franko horien presentziak eta haien Bidearen ertzetan kokatzeak irudi berezi eta nahastezina
eratu zuten: hirigune berriak ez ziren bat-batean hazi, haien trazaketa planeatu egin zen: kale zuze-
nak eta etxesail erregularrak. Aurretik jendegune zaharrago bat bazegoen, beste bat eransten zitzaion
ondoan, eta gunea gehiago zabaldu behar izanez gero, zabalgunek eta kale berriak trazatuz konpon-
duko zen kontua.

Horrek guztiak esan nahi du Nafarroako Done Jakue Bideko burgo frankoetan plano gehien bat
erregularrak aurkituko ditugula. San Zerningoa hexagono ia simetriko bat da, inguruan harresiak eta
erdian kale luze bat –erromesen bidea– dituena; San Nikolasek –beranduago eraikiko zen– planta an-
geluzuzena eta bi kale luze paralelo ditu. Lizarrako plano irregularragoa da San Martin-en, lurraldeak
ezarritako oztopo gaindiezinengatik, baina Egaz beste aldeko auzoetan berriz ere ohiko egitura fran-
koa aurkituko dugu, Lizarrara edo Lizarra hiribildu zaharreraino doazen kale bihurrietan izan ezik. Zan-
gozak ere trazaketa ohiko eta erregularra du, bidea ardatz; Garesko kasua da bide-hiriaren eredu ar-
giena, aparteko merkataritza jarduerarik gabekoa, bidaiariengatik eta bidaiarienezako bizi zena: planta
angeluzuzena du eta sektore bat bereziki koadrikulatua Done Jakue parrokiaren auzoan; hain zuzen
ere, auzorik berrienean».

JUSUÉ, C., *Historia ilustrada de Navarra 1*, 115-117 or.

Aurreko testuak sintesiak baino ikuspegi orokor zabalagoa eskaintzen digu.

- ❶ *Azpimarra itzazu ideia nagusiak.*
- ❷ *Egin ezazu testuaren edukiari buruzko laburpena.*
- ❸ *Zailtasunik baduzu, erantzun iezaiezu soilik ondoko galderei:*
 - *Erromesaldiak hasi ziren mendea eta ibilbidearen izaera.*
 - *Bidearen gorenaldia zein mendetan geratu zen, zer izen ematen zitzaion, eta zein izan zen Bidearen goren-goreneko garaia.*
 - *Bidearekin lotu behar diren berrikuntza sozial, ekonomiko eta hirigintzazkoak. Egin ezazu horietako bakoitzari buruzko hitz bakarreko laburpena.*

2.3. ERROMESA

Erromesaldiaren protagonista garrantzitsuena, noski, erromesa da. Gure lan-proposamena haren jatorria, motibazioa, janzkera eta bizimodua aztertzea da.

Girotzeko, erromesaldi labur eta masibo bat har dezakezu adibide, Orreaga, Uxue edo Xabierreara egiten direnak, esate baterako. Erreferentzia gisa baliatu ahal izanen duzu.

Saia zaitetz ondoko galderei erantzuten.

- ❶ *Azal ezazu zer den erromes bat.*
- ❷ *Erromesen ohiko janzkera. Seinala itzazu elementu bereizgarrienak.*
- ❸ *Erromesen jatorria.*
- ❹ *Erromes motak, erromesaldia egiteko dituzten arrazoien arabera.*
- ❺ *Erromesaldia egiteko modu ezberdinak.*
- ❻ *Bideko arrisku garrantzitsuenak.*
- ❼ *Zer nolako laguntza jasotzen zuten.*
- ☐ ❽ *Erromesaren intendentzia. Funtsezko hornigaiak eta non aurki zitzaketen.*

Behin bukatu eta gero, zuen ezagupenak zabaltzeko, ondoko hau irakur dezakezue: C. Jusué, *Historia ilustrada de Navarra 1*, 113-128 or.

2.4. ERROMANIKOA NAFARROAN: IKUSPEGI OROKORRA

«Arte nafarrak ez zuen bere goreneko aldia erdietsiko XI eta XII. mendeetara arte, izan ere arte erromanikoa sortu eta garatu zen garaira arte. Ahalegin benetan original eta garrantzi handikoa Leire monasterioko burualdea da, kriptak* eta lehenbiziko tartea barne; haien soiltasun eta primitibotasunak, artistaren duda-mudek, alakaz* landutako kriptako kapitelen gordintasunak erakusten dute Leire XI. mendeko arte nafarraren nortasun indartsuaren adibide bakarra dela, erresumaz kanpo ere beste inon aurkituko ez duguna. Soiltasuna, dekorazioak pixka bat arindua, XI. mendeko bi monumentu handien ezaugarria da: Aralarko San Migel, antzinatik aitortzen zaion balio estrategiko eta debozinezkoa duena, eta Uxueko santutegiko burualdea, Carlos II.aren garaiko gaztelu gotiko ikusgarriak beranduago inguratuko zuena.

XII. mendeak, bada, arte erromanikoaren zabaltzea ekarri zuen; hari dagozkio Done Jakue Bideko Nafarroako tartean ugaltzen diren forma artistiko ordurako garatu eta helduak erakusten duten obra gehienak. Iruñeak bere katedral erromanikoa kontserbatu izan balu, gaur erromesen eliza* bat izanen genuke, Konpostelako Done Jakue edo Tolosako San Zerninen parekoa. Iruñeko katedral erromanikoa, Done Jakueko katedralan lan egindako Esteban maisu ezagunaren zuzendaritzapean hasi zen; garai haietan, «Konpostelako Maisua» izen enfatikoa* hartu zuen Esteban maisuak. Esteban maisua izan zen Iruñeko eskultura-tailer garrantzitsuaren hastapenak jarri zituen, Konpostelatik zetozen formak bertan sartuaz. Maisu haren eskuek katedralaren atarian egindako zenbait kapitel eta puska baizik ez da gorde, baina haren obrak eskola sortu zuen eta oihartzun zabala izan zuen Nafarroan eta Aragoan. Are hobetoak dira desagertutako klaustroko kapitela, erromaniko europarreko maisu lanak, kapitel bikoitzez eta zutabe kideez osaturiko klaustro zoragarri baten aztarna bakarrak direnak.

Iruñekoarekin batera, Zangozako gunea, Santa Maria Erreal eliza ardatz duena, aipatu behar da; garrantzi handienekoa da, batez ere, landutako atariarengatik, non estilistika* ezberdineko artistek parte hartu zuten eta ikonografia* bitxiak nahasten diren: sinbolismoz beteriko gai kristauen ondoan saga nordikoetatik* datozen gai exotikoak. Horrek erakusten du bai erromanikoan, bai aurreko beste garai batzuetan ere, arte nafarra bidegurutze bat izan dela eta eraginaren sintesia egiten den lekua dela.

Gares eta Ziraukiko elizetako eta Iratxeko monasterioko erromanikoa Lizarrako gunen indartsuaren eraginaren menpean dago; izan ere, Lizarrako Ruako San Pedro eta San Migel elizak ez dira bakarrik arkitektura saio interesgarriak, baizik eta beranduko eskulturaren erakusgarri bikainak, eskultura landu-landuak eta barrokorako bidean, baina ederrak oso, Gaztelako eraginek animatuak. Benetan ohiz bestelakoa da Lizarrako Erregeen Jauregia, Espainian ezagutzen den arkitektura zibileko kasu bakanetako bat.

Halabaina, erromaniko nafarraren jatorria ez litzateke osorik egonen aipatu gabe utziko bagenu Eunateko eta Torres del Río-ko eliza oktogonalak, erromanikoan espazio zentralari buruz egindako ahalegin interesgarrienetakoak; kapitulu honetan ere nekazari herrietako erromanikoa aipatu beharko genuke, bide nafarretan hain ugari diren elizak, planta sinplea dutenak, kriptak edo atari txikiekin –Katalaingo Kristo, Artaitz, Artze, Azuelo, Olleta, Larraia, Etxano–, bertako harginen eginak kutsu herritarrarekin, bai burutzeko moduarengatik bai ikonografia aberatsarengatik ere –batzuetan kostunbrista, besteetan lotsagabea, baina beti harrigarria.

Azkenik, Tuterak gure lurraldeko erromanikoaren funtsezko beste gune bat osatzen du, nahiz eta beranduago garatu zen. Jakina da Tuterak zenbait eliza erromaniko izan zituela, baina gaur arte Magdalena eta Katedrala baizik ez dira gorde. Hango arkitektura protogotikoan* sailkatu behar bada ere, klaustroko eskulturak eta ataria plastika* nafarraren azken ahalegin handia da, ikonografiaren ikuspuntutik eta ikuspuntu formaletik eragin anitz batu eta aurreko ahalegin guztiak laburbiltzen dituena.

Azkenik, arte aplikatuak ere aipatu behar dira, garrantzi gutxiago ez dutenak. Beren generoan pieza bakarrak dira Aralarko San Migelen dagoen esmalteen frontala*, tamaina ederrekoa eta jatorri silostarrekoko* kolo-

rea duena, edo Orreagako zilar filigranaduneko Ebanjelaria, zeinaren gainean Nafarroako erregek zin egiten baitzuten; zilarrez azalezaturiko balio handiko irudiak ere badaude: Uxueko edo Iruñeko Santa Maria Errealeko amabirjinak edo beste amabirjin eta gurutziltzatu batzuk.

Hala eta guztiz ere, erromesaldien garaiko legatu aberatsenetakoa hiri nafarren Erdi Aroko hirigintza da, gaur egun ere hainbeste eta hainbeste perspektiba ikusgarri sortarazi eta Erdi Aroko mundua dantzan jartzen duena: kale estu harrigarri betetakoetan eta harresietako ateetan, Ziraukiko aldapetan edo Erriberriko kale bazterretan, edo Valtierrako kale nagusian ikus daiteke. Hiri asko frankoen burgo gisa sortu ziren, hirigintzako egitura jakin batekin: horixe da Lizarrako jatorria. Zangozak eta Garesek ere hiri-trazaketa erregularra dute, eskoadran gurutzatzen diren kaleak eta ardatz-bide* bat, erromesen karrika, harresiz inguratutako gune bateko zubira irteten dena. Bi horiek plano erregularren hirigintzako adibide paregabeak dira gure herrian eta Frantzia bertan ere. Beste horrenbeste esan daiteke Iruñeko San Zernin eta San Nikolas burgoei buruz eta Lerin, Viana edo Zuñigako plano erregularrei buruz.

GARCÍA GAÍNZA, M.C., «El arte navarro en la Edad Media: románico y gótico»,
Diario de Navarra, 1979ko apirilaren 24an.

❶ *Irakur ezazu arretaz testua.*





❷ Artikuluak lan maila ezberdinetarako bidea ematen du. Aukeratu bat:

- Azpimarraketa.
- Eskema.
- Laburpena.

❸ Aurreko aukeretako bat behar bezala burutzeko modurik ez baduzu izan, erantzun laburki baina zehaztasunez ondoko sei galderei:

- *Estilo erromanikoaren kronologia eta zatiketa.*
- *Funtsezko etapak eta horietako bakoitzaren ezaugarri nagusia.*
- *XI. mendeko funtsezko eraikinak eta haien ezaugarriak.*
- *XII. mendeko funtsezko taldeak eta eraikin bereizgarrienak.*
- *Arte aplikatuak eta eskultura exentua: garrantzia.*
- *Hirigintzaren garrantzia.*

2.5. ARKITEKTURA ERROMANIKOAREN EZAUGARRIAK



Ondokoak dira arkitektura erromanikoaren elementu bereizgarrienak:

Puntuerdiko arku (1). Zirkuluerdiko arku batek osatua.

Kanoi ganga (2). Puntuerdiko arku bat luzerako ardatz batean zehar mugitzean sortzen dena da.

Arku faxadunak edo perpiañoak (3). Kanoi gangako tartea bereizten ditu, haien pisua arintzeko.

Estriboak edo kontrahormadun murrak (4). Horma batek jasaten duen bultzari kontraindarra egiteko sorturiko eraikuntza.

Kanoi zorrotzeko ganga (5). Arku zorrotz bat luzerako ardatz batean zehar mugitzean sortzen dena da.


Ertz ganga (6). Gezi bereko bi kanoi ganga perpendikularrean gurutzatzen direnean sortzen dena da.

Ataria (7). Artistikoki diseinaturiko sarrera bat da. Erromanikoaren bereizgarriena turuta-itxurako ataria da, barrutik kanpora gero eta zabalagoa den banao osatzen duten zutabeetan bermaturiko arku zentzuzkoak osatua. Zenbait atal ditu:

Dintela (a). Zama bat jasaten duen elementu horizontala da; haren muturreko aldean janbetan bermatzen da.

Tinpanoa (b). Dintelak eta arkiboltek mugatutako eremua da.

Arkiboltak (c). Izen hori ematen zaie atari bat osatzen duten turuta-itxurako arkuei. Gai geometrikoez edo animatuez apainduta egoten dira.



Kapitelak (d). Arkitrabeari edo arkuari zuzenean eusten dion zutabeko fustearen gainean jarritako elementuak dira. Gai geometrikoez, loreez edo eskulturez apainduta egoten dira, eta forma ezberdinetakoak dira.

Teilatu hegala (e). Murruaz kanpora ateratzen den teilatuaren atala da. Teilatu-hegala jarraia izan daiteke, apaindurarik ez badu; modiloekin apainduta, apala moldura bat bada; edo zakurtxoekin, gizaki edo animali irudiak baditu.

Iturria: ITÚRBIDE, J. eta FELONES, R., *Navarra, Navarra, historia y arte*, Iruña, 1982, 80. or.

Zure aurrean arkitektura erromanikoari buruzko funtsezkoena bildu nahi duten testua eta grafikoak dituzu. Proposamenaren helburua da elementu horiek ezagutzen hasi eta eraikin jakin batean aplikatzen jakitea da.

- ❶ Nafarroako arte erromanikoari buruz dauden argitalpen ugariak eta, batez ere, turismo bulegoetan eskura dauden triptikoek aukera ematen dizute zenbait eliza erromaniko ikusteko.
- ❷ Aukera ezazu goian aipaturiko elementu horietako bakoitza argitasunez erakusten duen argazki edo grafiko bat.
- ❸ Azal ezazu laburki, hautaturiko eraikinetako elementuetako bakoitza.
- ☐ ❹ Eskura dituzun argazki guztietatik zure iritziz elementu guztiak hobekien biltzen dituen aukeratu. Egindako aukera egiteko arrazoiak eman.

2.6. DONE JAKUE BIDEA ETA ERROMANIKOA NAFARROAN

Bai *Sintesi historikoan*, bai lanerako proposamenean erromanikoari buruz ikasitako ikuspegi orokorrean aztarna erromaniko garrantzitsuak dauden Nafarroako herriak aipatu dira. Nafarroako Atlas erabiliz, koka itzazu honela:

- ❶ Adieraz ezazu Done Jakue Bidearen ibilbidea Nafarroan zehar.

- ② Idatz itzazu aztarna erromaniko garrantzitsuak gorde dituzten herriak. Zeinu berezi bat erabiliz, zehaztu zein monumentu mota den.
- ③ Adieraz itzazu, halaber, Bidearekin eta erromesekin lotura zuzena duten herriak.
- ④ Aipa itzazu Bidean ez dauden eta aztarna erromaniko garrantzitsuak dituzten beste herri batzuk.
- ☐ ⑤ Arkitekturaz gainera, erromaniko estiloko eskulturak, margolanak eta arte aplikatuak gorde dira. Osa ezazu lehengo mapa agerkari horien aztarnak dituzten herriak jarriaz.

2.7. NAFARROAKO ERROMANIKOARI BURUZKO LABURPEN-GIDA

Arte erromanikoak Nafarroan izan duen bilakaera modu teorikoan azter daiteke, aurreko proposamenetan egin duzun bezala; baina modu praktikoagoan ere egin daiteke, monumentuak berak ikusiz. Horixe da hiru zailtasun mailetan programaturiko proposamen honen helburua.

Nafarroako Gobernuak eta beste entitate batzuek, bereziki udalek, zure esku jartzen dituzte behin baino gehiagotan gaineratik begiratu dituzun turismo-liburuxka horiek. Haietatik gehienek Nafarroako monumentu erromaniko garrantzitsuenen kopia edo argazki txikiak dituzte.

- ① *Gehien interesatzen zaizkizunak ebaki ondoren, bil itzazu orri bikoitz batean XI. mendeko hiru obra garrantzitsuenak eta XII. mendeko hiru obra garrantzitsuenak. Horietako bakoitzaren azpiko aldean jar itzazu eraikinaren izena eta kronologia.*
- ② Gehiago ere zehaztu daiteke. Hauta eta bereiz itzazu ondoko taldeak:
 - XI. mendeko erlijio-eraikin garrantzitsuenak.
 - XI. mendeko eraikin zibil garrantzitsuenak.
 - XI. mendeko eskultura, pintura edo arte aplikatuko lanak.
 - XII. mendeko erlijio-eraikin garrantzitsuenak.
 - XII. mendeko eraikin zibil garrantzitsuenak.
 - XII. mendeko eskultura, pintura edo arte aplikatuko lanak.
- ☐ ③ M.C. García Gaínza irakaslearen testuan, 4. proposamenean aztertutakoan, bana-keta konplexuagoa eta osoagoa egiten da garai honi buruz. Irizpide horri jarraituz, hauta itzazu lan nagusiak.

2.8. HIRU AUKERA IKASGELAZ KANPORAKO

Erromanikoa eta Done Jakue Bidea bat datoz Nafarroako artearen historiako une gorenean. Horregatik zail suertatzen da ez irteera interesgarriak prestatzea, baizik eta egin litezkeen irteera guztien artean bat aukeratzea. Hona hemen hiru aukera, antzak beren helburu, geografia eta eremuari dagokienez.

❶ ERROMES, EGUN BATEZ. EUNATE-LIZARRA TARTEA


«Tierra Estella» BHIko UBIko Artearen Historiako ikasleek bi aldiz egin dute irteera hau. Egiazko denborei dagokie, erabat egiteko modukoa da eta bisita patxadatsu eta emankorra egiteko bidea ematen du.

- 9:00 Eunatera heldu. Eliza oktagonala bisitatu.
- 9:30 Gareserako bidea hartu **(oinez)**.
- 10:30 Garesera heldu eta monumentuen multzoa bisitatu: Gurutzearen eliza, Santiago eliza, kale nagusia eta Arga ibaiaren gaineko zubia.
- 11:30 Hamaiketako jubilatuen elkartean, eskola zaharretan kokatuta dagoena, zubi berriaren ondoan.
- 12:00 Ziraukirako bidea hartu **(oinez)**.
- 13:45 Zirauki. Monumentuen multzoa eta San Roman eta Santa Katalina elizak bisitatu.
- 15:00 Bazkaria klub sozialean, herriaren beheko aldean kokatuta dagoena, eskola zaharren ondoan.
- 16:00 Lizarrarako bidea hartu **(autobusez)**.
Geldialdiak Ziraukiko erromesen galtzadan eta Lorcako erromesen zubian.
- 17:00 Lizarrara heldu. Monumentuen multzoa bisitatu. Erromesen Rua, San Pedro, Nafarroako erregeen jauregia, Hilobi Saindua eta San Migel.
- 19:00 Bisitaren bukaera.


Bisita prestatzeko, Bideari buruz merkatuan diren gida eguneratu ugarietz gainera, oinarrizko beste bi lan gomendatzen ditugu:

CORPAS, J.R., *Navarra. Camino de Santiago*, Iruña, 1991. Nafarroako Done Jakue Bidera hurbiltzeko funtsezko lan erakargarria.


MARTÍN DUQUE, A.J. eta BESTE BATZUK, *Camino de Santiago en Navarra, Iruña, 1991, 245-281 or.* Maila handiagoko azterlana da; agian, Done Jakue Bideak Nafarroan utzi dituen aztarnak hobekien aztertzen dituen zabalkunde mailako testua.



Iturria: *Camino de Santiago. Navarra. Topografía de senderos de gran recorrido. Iruña, 1992, 28. or.*



Iturria: *Camino de Santiago. Navarra. Topografía de senderos de gran recorrido. Iruña, 1992, 30. or.*



Iturria: *Camino de Santiago. Navarra. Topografía de senderos de gran recorrido. Iruña, 1992, 32. or.*

② FRAIDEAK, ZALDUNAK, BURGESAK. LEIRE, XABIER, ZANGOZA.

Bigarren irteera hau, agian, ez da erabat ezezaguna izanen ikasle gehientzat. Hala ere, aztertzen dugun garaiko gizarte feudalaren testuinguruan, bidea emanen digu -nekazariak, hau da gizarte klase ugariena, alde batera utzita- gainerako hiru gizarte-taldek eta haien bizitzaren ingurukoak ezagutzeko.

a) *Leire*

Zalantzarik gabe Nafarroako monasteriorik garrantzitsuena eta bereizgarriena. Erromanikorako funtsezko ekarpena izateaz gainera, beste alderdi batzuk ere badaude aipatu beharrekoak. Hura bisitatzeak bidea emanen digu ondoko alderdietan bereziki sakontzeko:

- Alderdi historikoa. Erresumaren historiari loturik egon da ia hasieratik. Leireko monasterioak aukera ematen digu elizaren eta monarkiaren arteko lotura gogoratzeko, lotura funtsezkoa Erdi Aroko mendeetan. Gaur egun ere erregeen panteoia da; azken urteotan indartutako ikurra da.
- Erligio alderdia. Leireko monasterioa bizirik dirauten Nafarroako bi zenobioetako* bat da. Monasterioaren bizitza eta jarduera bereziki ugari eta emankorra izan zen aztertzen ari garen mendeetan. Hortik dator liturgia, *lectio divinaren* kantuan oinarritua, fraideen eguneroko jarduereran alderdi handi bat izatea.
- Alderdi kulturala. Leirek modua ematen digu, lan artistiko bihurturiko otoitz guztiek merezi duten isiltasun eta errespetuarekin, musikaren historiako ondare ederrenetako batez gozatzeko: kantu gregorianoa.
- Alderdi artistikoa. Leire funtsezko mugarria da Nafarroako eta nazio mailako arte erromanikoan. Hori dela eta, ezinbestekoa da elizako kripta eta burualdea, alegia, bi toki bereizgarrienak, bisitatzea.

Monasterioan bertan eskura dagoen informazioaz gainera, beste bi lan daude bisita prestatzeko oinarritzakoak direnak:

MOLINA, R., *Leyre*, Iruña, 1988.

JOVER, M., *El monasterio de Leire*, «El Arte en Navarra, 1», Iruña, 1994, 49-64 or.

b) *Xabier*

Xabier izenak, 1506an jaio zen Frantzisko Xabierkoa bertako seme ospetsuenaren balentria espiritualez gainera, Nafarroako erresumako historia politikoaren zenbait gertaerak eta Erdi Aroko defentsarako sistemak ere -jada ikur bihurtu den gazteluan ederki irudikatuta dagoena- gogorarazten dizkigu.

Xabierren jatorria gune estrategiko bati loturik dago, Erdi Aroaren zati handi batean erabat jardunean egon ziren gaztelu eta dorreen lerro oso bati: Petilla, Sos, Peña, Oibar, Galipentzu eta Uxue dira gune horietako batzuk.

Xabierko gaztelua dorre exentu batetik, Omenezko dorretik sortu zen. Hasiera batean zirkuluerdiko zabalpen bat egin zen, aldeetan bi dorre eginez; horietako batek, ezkerrekoak, Kristoren eliza hartzen du. Poliki-poliki lubaki eta harresi babes-sistema batekin osatu zen, zirkuluerdiko antolamendua, tenkaturiko arku baten antzekoa, galdu gabe.

Nahiz eta ia osorik berreginda dagoen, Cisnerosek agindutako erauzketaren ondoren eta geroko mendeetan egindako eransketa eta konponketekin, gazteluak interes handia du, izan ere Nafarroan horrelako lekuek izaten zuten antolamenduaren berri ematen baitigu, mugako gotorleku eta aldi berean goieneko gizarte klasearen, zaldun eta aitonen semeen, ohiko bizilekua izaki.

Hura bisitatzeko, gazteluan bertan atseginez eskuratzen duten dokumentazioaz gainera, ondoko bi testu hauek ere erabil daitezke:

RECONDO, J.M., *El castillo de Javier*, Temas de Cultura Popular, Iruña, 1972.


GARCÍA GAINZA, M.C. eta BESTE BATZUK, *Catálogo monumental de Navarra. IV**. Merindad de Sangüesa*, Iruña, 1992, 9-28 or.

c) Zangoza

Fraide eta zaldunen arduetatik urrun, baina erregeek eta boteredunek ongi zainduta, XI. mendetik aurrera gizarte klase berri bat sortu zen, oraingo Nafarroako lurraldeetan aspaldiko mendeetatik ia ezagutzen ez zena. Zangoza da Pirinioz haraindiko artisau eta merkatariek osatutako klase berri horren adibide argia.

Juan Cruz Labeagak, Zangoza hobekien ezagutzen duen pertsonak, hauxe dio: «Gune zaharreko antzinako planoak Erdi Aroko hirigintzaren adibide bikaina da, grekoen eta erromatarren ereduak jarraitzen dituena eta Nafarroako Done Jakue Bidean zehar asko erabili zena, Iruñeko, Garesko eta Vianako burgoetan kasu. Aragoa ibaiaren gaineko zubiaren norabideak bide nagusia zehaztu zuen, Karrika Nagusia, ekialdetik hasi eta mendebalderaino; horrek izaera ibiltaria eman zion hiriri. Beste kale paralelo eta perpendikular batzuek koadrikula oso erregularreko antolamendua osatu zuten. Etxesailek irudi angeluzuzenak dituzte, gune zabalak utziz patio eta baratzetarako».

Bisitatzeari merezi duten erlijio-erakin eta eraikin zibil ugarien artean, planoan Done Jakue Bideari loturik zeuden hurrengoak azpimarratu nahi izan ditugu:



Iturria: LABEAGA, J.C., *Sangüesa*, Iruña, 1994, 62. or.

- | | | |
|--|---|-------------------------------------|
| 1. Aragoa ibaiaren gaineko zubia. | 7. Sebastiarren jauregia. | 13. San Salvador eliza. |
| 2. Santa Maria Erreal eliza. | 8. Paris Iñiguez Abarkatarren jauregia. | 14. Iñiguez Medranotarren jauregia. |
| 3. Anues jauregia. | 9. San Frantzisko komentua. | 15. Erromesen aterpetxea. |
| 4. Iñiguez Abarkatarren jauregia. | 10. Done Jakue eliza. | 16. Komentua. |
| 5. Udaletxea. | 11. Erromesen ospitalea. | 17. San Adrián Vadoluengokoa. |
| 6. Vianako Printzearen jauregi-gaztelua. | 12. Ongay-Vallesantorotarren jauregia. | |

1. Aragoa ibaiaren gaineko zubia.

2. Santa Maria Erreal eliza. Hiriko erlijio-erakin garrantzitsuena da. Azpimarratze-koak dira haren arkitektura eta ataria.

9. San Frantzisko komentua. XIII. mendeko eliza, eskeko ordenen estilo bereizgarria duena.

10. Done Jakue eliza. XIII. mendeko eraikin gotikoa.

11. Erromesen ospitalea. Erromesen ospitale gisa erabili zen XVI. mendera arte.

13. San Salvador eliza. La Población auzoko parrokia da, XIII. mendearen bukaera aldean eraikia.

17. Vadoluengoko San Adrian eliza. XII. mendean eraikitako eliza, hiriaren kanpo-ko aldean kokatua, nekazari herrietako erromanikoaren adibide bikaina.

Baina Zangoza ez da kalez kale berreraiki beharreko hiria. Haren karriken izenek eta kokapenak bidea ematen digute, apurketak eta eraikin berriak gora-behera, erromesentzako sortu zen burgo baten inguruan sortu zen giroa ezagutzeko.

Turismo bulegoan jaso daitekeen dokumentazioaz gainera, ondoko liburuak ere erabil daitezke:

ARAGONÉS, E., *El románico de Sangüesa*, «El Arte en Navarra, 2», Iruña, 1994, 65-80 or.


LABEAGA, J.C., *Sangüesa*, Iruña, 1994.

❸ ZISTERTAR ORDENA ERRIBERAN: FITERO ETA TULEBRAS.

Erromanikoa-Done Jakue Bidea binomiotik urrunxeago, *Sintesi historikoaren* 6.7. atalak azken lerroetan arte zistertarra izenarekin ezagutzen den mugimendu artistikoaren sorreraren berri ematen du laburki.

Gaurko Nafarroako lurraldeko lehenbiziko fundazioa Fiteroko monasterioarena izan zen (1140), gero La Olivakoa etorri zen 1149an eta Irantzukoa 1176an. Emakumezkoen adarrak bi monasterio izan zituen: Tulebrasen (1157) eta Marcillan (1160); azken horrek 1401era arte iraun zuen. Bi horiei erantsi behar zaie mende honetan fundaturiko Allozko monasterioa, emakumezkoena, Irantzuko monasterioaren granja batean eraikia.

Nafarroako ordena zistertarraren monumenturik aipagarriena, zalantzarik gabe, La Olivakoa bada ere, nahiago izan dugu gutxiago ezagutzen diren baina berdina aipagarriak diren bi monasterio ezagutzera eman: bata, Fiterokoa, zaharberritzeko bidean, gaur herriko eliz-parrokia dena; bestea, Tulebraskoa, gora doan emakumezkoen komunitate batek erabiltzen duena eta monjek berek beren egonarrizko lan sutsuaz eraldatutakoa.

a) *Fitero*

Iturria: GARCÍA GAÍNZA, M.C. (zuzend.), *El arte en Navarra*, 1, Iruña, 1994, 125. or.

Fiteroko bisitak aukera ematen digu arreta berezia jartzeko ondoko alderdi hauetan:

- Monasterioaren kokapena.
- Monasterioaren funtsezko ataletan zehar ibili eta haiek identifikatzea: eliza, klaustroa, kapitulu-aretoa*.
- Arte zistertarraren ezaugarri artistikoak azaltzea eta haiek ikustea.
- Artelan baten zaharberitze prozesua.

Monasterioaren multzoari buruz zabalkunde mailako azterlana idatzi da berriki, bisita behar bezala prestatzeko aukera ematen duena:

FERNÁNDEZ GRACIA, R., *El monasterio de Fitero. Arte y arquitectura*. Iruña, 1997.

b) *Tulebras*.

Tulebrasko emakumezkoen monasterioak aurrekoaz besteko ezaugarriak ditu. Eliza, bisitatu daitekeen toki bakarra, Fiterokoa baino askoz ere sinpleagoa da. Haren planta nabe bakarrekoa da, kontrahormadun murruek banatutako bost tarte ezberdinekin; tradizio erromanikoko burualde zirkuluerdikoa du. Haren estalpea 1565ean desagertu zen, zurezko giltzarri handiekiko gurutze gangak eraiki zirenean. Hurrengo mendeetan

eraldatu ahala, elizak Erdi Aroko eraikinaren itxura galdu zuen, baina azken urte haue-
tan komunitateak egindako zaharberritze lan gogotsuari esker, gehientsuena berresku-
ratu da. Hauek izan daitezke bisitaren arrazoi nagusiak:

- Izpiritu eta erlijiotasun ziztertarrera hurbiltzeko, eliza bisitatzeaz gainera, behar
diren isiltasun eta errespetuaz, komunitateari abisatu ondoren, liturgi orduetako
bateko otoitzetara joatea, izan ere horixe delako monjen funtsezko zerginetako
bat.
- Monasterioan den museorako bisita, erlijio-artearen adibide interesgarriak ikus-
teko.


Monasterioan banatzen den liburuxkaz gainera, ondoko lana ere kontsultatu daite-
ke:

FERNÁNDEZ GRACIA, R., *Los monasterios del Císter*, «El arte en Navarra, 1», Iruña, 1994,
113-128 or.

3. BALIABIDE DIDAKTIKOAK

3.1. MAPAK


DONE JAKUE BIDEA ETA ERROMANIKOA NAFARROAN



- | | | |
|---------------------------------|-----------------------|----------------------|
| ▲ Erromanikoaurrea | 🗿 Monumentu-eskultura | 🏰 Kripta |
| 🏰 Lehen erromanikoa. XI. mendea | 🏰 Zubia | 🏰 Arkitektura zibila |
| 🏰 Erromanikoa. XII. mendea | 🏰 Klaustroa | — Done Jakue Bidea |
| 🏰 Kapera oktagonala | 🏰 Albo bateko ataria | |


Iturria: Atlas de Navarra, 46. or.

DONE JAKUE BIDEA. IBILBIDE GARRANTZITSUENAK FRANTZIAN ETA ESPAINIAKO IPARRALDEAN



4.9. Iturri: CARRASCO, J. eta FLORESTAN, A. (koord.), *Historia ilustrada de Navarra*, 1, 119. or.

ERLIJIO GUNE NAGUSIAK



JUSUÉ, C. eta FORTÚN, L.J., *Historia de Navarra I.*, Iruña, 1993, 118. or.

3.2. BILAKAERA KRONOLOGIKOA

- 44 Santiago Nagusia martirizaturik hil zen Jerusalem, Herodes Agriparen jazarpenaren ondorioz.
- VI-VII. m. Apostolua *Hispanian* dagoela esaten duten testu greko-latindarrak zirkulatzen hasi ziren.
- 829 Santiago apostoluaren gorpua hilobitik atera zuten.
- 885 Santiagoren hilobiari buruzko benetakotasun onartuko lehenbiziko dokumentua.
- 899 Alfontso III.a, apezpikuez inguraturik, Konpostelako bigarren santutegia kotsagratu zuen.
- 905-925 Ibilbidea desbideratu zen Naiarako lurraldeetatik, Antso Gartzes I.aren erregealdian.
- 950 Goteskalko, Puy-en-Velayko apezpikua, Santiagora joan zen Akitaniako aitonen semeen segizio batekin.
- 997 Almazorrek Santiago suntsitu zuen.
- 1052-54 Gartzia Naiarakoak errromesen ospitalea sortu zuen Iratxen.
- 1056 Naiarako Santa Maria Errealak kotsagratu zuten.
- 1057 Leireko San Salvador eliza kotsagratu zuten.
- 1076 Erromako erritua* ezarri zuten Nafarroan.
- 1078 Konpostelako gaurko katedrala eraikitzen hasi ziren.
- 1132 Orreagako ospitalea sortu zuten.
- 1140 Aymeric Picaudek *Codex Calixtinus edo Liber Sancti Jacobi* eman zion Konpostelako artzapezpiuari.
- 1188 Mateo maisuaren obra den Loriaren Ataria bukatu zuen.
- 1211 Alfontso IX.a Konpostelako katedralaren kotsagraziora joan zen.
- 1214 Asisko San Frantzisko Konpostelara joan eta bere lehenbiziko fundazioa egin zuen Rocaforten.

- 1488** Errege-erregina katolikoak Santiagora heldu ziren.
- 1501** Santiagoko Ospitale Errealak eraikitzen hasi ziren.
- 1962** Done Jakue Bideko Lagunen Elkarteak sortu zen Lizarran.
- 1987** Europako Kontseiluak Done Jakue Bidea Europako Kultur Ibilbide izendatu zuen.
- 1999** Mende honetako azken jubileu-urtea.

3.3. HIZTEGIA

- alaka:** xafla edo gainazal baten ertzean ebaki zeiharreko taila modua.
- ardatz-bide:** testuak erabiltzen duen moduan, bide nagusia esan nahi du.
- bilau:** Villa edo herrirka bateko herri xeheko pertsona, aitonen semea edo ka-parea ez dena.
- Erromako erritu:** Erromako elizak (eliza katolikoa Mendebaldean) erlijio-zeremonietan erabiltzen dituen arauak. Pixkanaka nazio mailako errituak, Penintsula Iberiarrean erritu bisigotikoa kasu, ordeztu zituzten.
- erromesen eliza:** izen hori ematen zaio Done Jakue Bideko ohiko eliza mota bati, eliza ho-riek ondoko elementuak izaten dituzte: gurutze latindarreko planta, al-dareari itzulia emateko deanbulatorioa edo giroa eta triforioa edo bi al-deetako nabeen gainean dagoen tokia.
- estilistika:** estiloari dagokio, artista, lan, eskola edo eskualde geografiko baten ezaugarrien multzoa.
- frontal:** aldarearen aurreko alde. Garai batzuetan, erromanikoan esate batera-ko, dekorazio aberatsa izan zuen.
- ikonografia:** normalean artean ageri diren gaien jatorria, osakera eta garapena aztert-zen dituen zientzia. Mendebaldeko artearen bi sail ikonografiko han-diak mitologia grekoa eta kristautasunaren saila dira.
- izen enfatiko:** enfasiaraz, esaten denaren garrantzia azpimarratuz, ematen den izena.
- kapitulu-areto:** monasterio baten klaustroko alde batean kokaturiko areto gehienetan laukia, komunitatea biltzeko erabiltzen zena.

kripta:	lurrazpiko solairua, gehienetan elizaren burualdearen azpikoa, kulturako erabiltzen dena.
plastika:	testuan eskultura esan nahi du.
pribatibo:	herri, gizarte edo pertsona batek berezko edo berezi duena.
protogotiko:	arte gotikoaren hasierako etapari, oro har XII. mendeari, ematen zaion izena.
saga nordiko:	Antzinako Eskandinabiako tradizio heroiko eta mitologiko primitiboetan bilduriko leienda poetikoak.
salbuespen:	pertsona batek zama, betebehar, zainketa edo erru batzuetatik aske egoitea.
silostar:	Silosko Santo Domingo monasterioari dagokiona. Burgosko probintzian dagoen bitxi erromanikoa.
tolesgabe:	aske jaio eta askatasuna galdu ez duen pertsona.
zenobio:	monasterioa.

3.4. ZENBAIT LIBURU LAGUNGARRI

Ugari eta kalitate handikoak dira Nafarroako erromanikoari eta Done Jakue Bideari buruzko testuak. Hala ere, monografiak eta zabalkunde mailako liburuxkak bai baina ez dago tarteko lanik, «Panorama» bildumak egiten dituenen antzekoa, testuaren eta grafikoaren sintesi egokia eginez erromes edo zaletu soilerako behar den informazioa biltzen duena. Hori dela eta, bigarren hezkuntzako irakasleak prestatzeko eta gaiak zabaltzeko jarduerak eskatzen dituzten ikasleentzat egokien jotzen ditugunak aipatuko ditugu.

Guía del peregrino medieval («Codex Calixtinus»), argit. eta itzulp: M. Bravo Lozano; Saha-gún, 1991.

166 orrialdeko liburuxka hau oso erabilgarria da; erromesaldietan klasiko bihurtu da. Testu interesgarriak ditu, irakasleak aurretik aukeratu beharko lituzkeenak. Aymeric Picaudi egotzi zaion testuaren itzulpenaz gainera, aitzinsolas egokia du obra historikoki kokatzeko.

MARTÍN DUQUE, A.J. eta BESTE BATZUK, *Camino de Santiago en Navarra*, Iruña, 1991.

Iruñeko Udal Aurrezki Kutxaren argitalpen luxuzko honek argazki ederren eta testu egoki eta eraginkorra batera bildu ditu. Agian, liburu egokiena da Bideak Nafarroatik iragateak duen esanahia eta garrantzia orokorrean ezagutzeko.

CARASATORRE, R., *Erromanikoa Nafarroan. Diapositiben bilduma*, Iruña, 1995.

Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza Departamentua, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, argitalpen harrigarri eta ezezagun honen sus-tatzailea da. Euskaraz baino ez dago.

Liburu honek 219 argazki iruzkindu biltzen ditu arte erromanikoaren agerkari anitzei buruz: arkitektura, eskultura, pintura eta arte aplikatuak. Argazkiak lamina askeetan daude, pegatinen moduan, eta dagokien tokian jarri behar dira kromoak balira bezala. Lanaren osagarri, arku eta dekorazio elementuei buruzko bi lamina, hautaturiko leku guztiei buruzko mapa bat eta termino artistikoei buruzko hiztegi bat ere biltzen ditu. Testu hau bereziki egokia da bigarren hezkuntzako ikasleentzat.

5. UNITATE DIDAKTIKOA

BITARTE MEHARREAN SARTURIKO ERRESUMA, HANDIEN GOGOKOA

1. KONTZEPTUEN ESKEMA.

2. LANERAKO PROPOSAMENAK.

- 2.1. Sintesi historikoa: prozedurak, aplikazio praktikoa.
- 2.2. Nafarroako errege-erreginak, nafar jatorria?
- 2.3. Erresumaren egitura eta mugak Berant Erdi Aroan.
- 2.4. Erresumako erakundeak.
- 2.5. Populazioa eta gizartea XIV. mendeko Nafarroan.
- 2.6. Jarduera ekonomikoak.
- 2.7. Eguneroko bizitza Berant Erdi Aroko Nafarroan.
- 2.8. Hiru aukera ikasgelaz kanporako.

3. BALIABIDE DIDAKTIKOAK.

- 3.1. Mapak.
- 3.2. Bilakaera kronologikoa.
- 3.3. Hiztegia.
- 3.4. Zenbait liburu lagungarri.

1. KONTZEPTUEN ESHEMA

7. Frantziako dinastiak eta Erdi Aroko erresumaren amaiera (1234-1525)

- 7.1. Chanpagneko dinastiatik Evreuxko dinastiara.
- 7.2. Guda zibilak eta Gaztelaren konkista.
- 7.3. Erresumako erakundeak.
- 7.4. Gizarte aldaketak.
- 7.5. Arte gotikoa

2. LANERAKO PROPOSAMENAK

2.1. SINTESI HISTORIKOA: PROZEDURAK, APLIKAZIO PRAKTIKOA

Egiaztatu ahal izan duzun bezala, unitate didaktiko guztien hasieran lanerako proposamena ageri da, oro har prozeduren garrantzian eta bereziki ikasteko tekniketan indar berezia jarri nahi duena. Ulertuzko irakurketa, azpimarraketa, eskema eta laburpena dira orain arte ikusitakoak.

Azken bi unitateetan, pisu berezia emanen diogu haiek zuzen erabiltzearen garrantziari, eta horiek erabiltzen saiatuko gara, ez banan-banan baizik eta denak batera.

Aurrekoa aintzat hartuta,

- ❶ Egin ezazu Sintesi Historikoaren 7.1. atalaren ulertuzko irakurketa, lehenbiziko unitate didaktikoan bildutako arauak jarraituz.
- ❷ Azpimarra itzazu testu horretako ideia eta atal garrantzitsuenak, bigarren unitate didaktikoan ikasitako teknika erabiliz.
- ❸ Presta ezazu testuko 7.1. ataleko ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak bilduko dituen eskema bat, hirugarren unitate didaktikoan emandako jarraibideen arabera.
- ☐ ❹ Egin ezazu testuaren laburpena, zeure hitzak erabiliz, laugarren unitate didaktikoan ikasi zenuen bezala.

2.2. NAFARROAKO ERREGE-ERREGINAK, NAFAR JATORRIA?


Lanerako proposamen honetan gogoeta egin nahi da Nafarroan Erdi Aroan zehar izan ziren dinastien izenari eta jatorriari buruz. Horretarako, aurreko unitate didaktikoetan ikasitako datuez, *Sintesi historikoaz* eta unitate didaktiko honi dagokion bilakaera kronologikoaz baliatuta, erantzun ondoko galderai:

- ❶ Oinarrizko kronologia bat.
 - *Aipa ezazu, Nafarroaren kasuan, zein mendek egiten duen Goiz Erdi Aroaren eta Berant Erdi Aroaren arteko muga.*
 - *Beraz, zein mende hartzen ditu Goiz Erdi Aroak?*
 - *Eta Berant Erdi Aroak?*
- ❷ Goiz Erdi Aroan zehar Nafarroan erregetzan egon ziren bi dinastien izenak. Zein lurralderekin lotu behar dira izen horiek?
- ❸ 1234-1274 urteetan Nafarroan erregetzan egon zen dinastiaren izena. Nafarroako Atlaseko dagozkien mapak aztertu ondoren, adieraz ezazu nondik datozen.
- ❹ 1274-1328 urteetan Nafarroan erregetzan egon zen dinastiaren izena. Aipa ezazu aurreko garaiaren aldera dagoen ezberdintasuna.
- ❺ 1328-1425 urteetan Nafarroan erregetzan egon zen dinastiaren izena. Nafarroako Atlaseko dagozkien mapak aztertu ondoren, adieraz ezazu nondik datozen.
- ❻ 1425-1479 urteetan Nafarroan erregetzan egon zen dinastiaren izena. Aipa ezazu aurreko garaiaren aldera dagoen ezberdintasuna.
- ❼ 1479-1512 urteetan Nafarroan erregetzan egon zen dinastiaren izena. Nafarroako Atlaseko dagozkien mapak aztertu ondoren, adieraz ezazu nondik datozen.
- ☐ ❽ Zer alde on eta alde txar izan zituen gure errege-erreginak atzerriko jatorria izateak?
- ❾ *Ikusita Nafarroako erregetzan zein dinastia egon ziren, izanen al zara gauza batzuetan garai hau aurkezteko erabiltzen den izenburuari ongi doakion izenondo bat eransteko? Nafarroa(e)ko eragin esparruan.*

2.3. ERRESUMAREN EGITURA ETA MUGAK BERANT ERDI AROAN

Zure aurrean mapa bat duzu Erdi Aroaren bukaeran Nafarroako erresumak zituen mugak agertzen dituenena. Mapa poliki aztertu eta harekin batera datozen testuak arretaz irakurri ondoren, erantzun ondoko galderari:

NAFARROA XV. MENDEAN. BEHIN BETIKO ANTOLAKETA



Iturria: RAMÍREZ, E., *Historia de Navarra II*, Iruña, 1993, 107. or.

- ❶ *Nafarroako erresumak XIV. mendean behin betiko bereganatu zituen lurraldeak.*
- ❷ *Nafarroako erresumak XV. mendean behin betiko bereganatu zituen lurraldeak.*
- ❸ *XV eta XVIII mendea bitarte Gaztelak aldi baterako Gaztelaren menpe egon ziren lurraldeak.*
- ❹ *XVI. mendean behin betiko Frantziaren esku geratu ziren lurraldeak.*
- ❺ Aipa itzazu erresuma banatuta zegoen oinarrizko barrutien izenak eta adieraz itzazu haiek zituzten eginkizunak.
 - *Aipa itzazu XIII eta XIV mendea bitarte agertu zirenak.*
 - *Erants ezazu XV. mendean sortutakoa.*
 - *Zer izen ematen zaion Pirinioz haratago dagoen lurraldeari? Ba al du inguruabar berezirik?*
- ☐ ❻ Egiaztatu ahal izan duzun bezala, izena bat dator esku artean daukazun proiektuaren izenarekin. Zergatik uste duzu eman zaiola izen hori?


2.4. ERRESUMAKO ERAKUNDEAK

Sintesi historikoaren 7.3. atalak Nafarroako erresuman Berant Erdi Aroan zeuden erakunde nagusiak aztertzen ditu. Horietako batzuk letra beltzez markaturik ageri dira. Haien definizioa, osaketa eta eginkizunak argitzeko, saia zaitetz galdera hauei erantzuten:

- ❶ *Gortea:* – *Definizioa eta ezaugarriak.*
- ❷ *Kontseilua:* – *Osaketa eta eginkizunak.*
- ❸ *Gorteak:* – *Osaketa eta eginkizunak.*
– *Saia zaitetz definitzen.*
- ❹ *Cort:* – *Definizioa eta eginkizunak*
- ❺ *Comptos:* – *Definizioa eta eginkizunak.*
– *Ba al dago gaur egun Nafarroan izen hori bera duen erakunderik?*
Zer eginkizun ditu?
- ❻ *Merinoak:* – *Definizioa eta eginkizunak.*
– *Gogora itzazu zein ziren merindadeak.*
- ❼ *Kontzejuak:* – *Definizioa eta eginkizunak.*
– *Gogora itzazu kontzejuak zituzten herri batzuk.*

- ☐ ⑧ Saia zaitetz aipaturiko erakunde guztiak biltzen dituen organigrama bat egiten. Erdi Arorako erabat zuzena ez bada ere, sailka itzazu erakundeak botere exekutiboan, legengintzazko boterean edo botere judizialean, egiten zuten lanaren arabera. Gogora ezazu teoriar guztiak bete beharreko arau batek gobernatzen zituela. Zer izen zuen arau horrek?

2.5. POPULAZIOA ETA GIZARTEA XIV. MENDEKO NAFARROAN



Iturria: Atlas de Navarra, 51. or.

BIZTANLEAK MERINDADEEN ARABERA

		Jendegunea	Suak
1366	Tuterako Merindadea	28	2.400
	Zangozako Merindadea	343	3.727
	Iruña eta Mendietako merindadea	325	3.708
	Lizarrako Merindadea	192	5.377
1353	Bortuez haraindiko Lurraldeak	92	1.379

100 SU BAINO GEHIAGOKO JENDEGUNEAK (datu guztiak 1366koak dira, Erriberrikoa salbu, 1350ekoa baita)

1. Cascante	102	8. Caseda	101	15. Falces	279
2. Tuterako	961	9. Zangoza	443	16. Azkoién	163
3. Arguedas	120	10. Irunberri	101	17. Lerin	218
4. Caparroso	169	11. Iruña	967	18. Urantzia	132
5. Erriberri	485	12. Gares	107	19. Biana	155
6. Tafalla	161	13. Lizarra	829	20. Laguardia	637
7. Artaxona	201	14. Larraga	189	21. S. Vicente	166

Aurreko orrialdean Nafarroako Atlaseko 51. orrialdetik harturiko mapa bat duzu. Azter ezazu arretaz. Haren bitartez, Nafarroako biztanleriaren eta gizartearen XIV. mendeko banaketa ikasiko dugu.

❶ NAFARROAKO BILZTANLERIA XIV. MENDEAN

Aintzat hartuz Erdi Aroko «su» (bizi den etxea) batean 4,5 biztanle inguru bizi zirela, atera kontuak:

- Erresumako merindadeetako bakoitzean bizi ziren biztanleak.
- Biztanleriaren guztirako datuak eta merindade bakoitzaren ehunekoa.
- Erresumako jendegune nagusiak eta bakoitzaren gutxi gora-beherako biztanleria.
- Km²-ko biztanleen zenbatekoa (guztira 12.000 Km²- inguru zeuden, Arabako Errioxako eta Bortuez haraindiko lurraldeak hartuta).
- XIV. mendaren hasieran biztanleen kopuruak, zalantzarik gabe, 150.000ko zenbatekoa gaingitu zuen. Zer gertatuko zen biztanleriaren horrenbesteko beharakada izateko?


❷ GIZARTE BANAKETA.

Mapak, halaber, koadro batean biltzen du Nafarroako estamentuen gutxi gorabeherako proportzioa XIV. mendearen bigarren aldean. Hura aztertu ondoren, erantzun ondoko galderei:

- Aipa ezazu zein den horietako bakoitzaren berariazko jarduera.
- Aipa itzazu garrantzi numerikoaren arabeko hurrenkeran.
- Aipa itzazu garrantzi sozialaren arabeko hurrenkeran.
- ☐ • Horrelako osaketa izanik, nola sailkatuko zenuke garai hartako gizarte nafarra?

2.6. JARDUERA EKONOMIKOAK: MERKATARITZA

MERKATARITZA TRAFIKOA, XIII-XV MENDEAK



Iturria: CARRASCO, J. eta FLORISTÁN, A. (koord.), *Historia Ilustrada de Navarra*, 1, 248. or.

Aurreko orrialdeko mapa arretaz aztertu ondoren, erantzun ondoko galderei:

❶ BIDESARIAK ETA HAIEN KOKAPENA.

- *Azal ezazu bidesaria zer den.*
- *Aipa itzazu bidesari horiek jasotzeko gune nagusiak.*
- *Horietako gehienak erresumako zein eskualdetan dauden.*

❷ INPORTATURIKO PRODUKTUAK.

- *Zehatz ezazu inportazio hitzak zer esan nahi duen.*
- *Zein lurraldetatik inportatzen diren produktuak Nafarroara.*
- Inportatzen diren produktu nagusiak. Aipa itzazu beste lurraldeetakoekin berdinak direnak.
- Zein sektore ekonomikotan sartuko zenituzke?

❸ EXPORTATURIKO PRODUKTUAK.

- *Zehatz ezazu esportazio hitzak zer esan nahi duen.*
- *Nafarroatik zein lurraldetara esportatzen diren produktuak.*
- Exportatzen diren produktu nagusiak. Aipa itzazu beste lurraldeetakoekin berdinak direnak.
- Zein sektore ekonomikotan sartuko zenituzke?

❹ BERANT ERDI AROKO NAFARROAKO EKONOMIA.

- Eskura dituzun datuetatik abiatuta, aipa itzazu Berant Erdi Aroko Nafarroako ekonomiaren ezaugarriak.
- • Mapek ere, batzuetan, akatsak izaten dituzte. Ikusi al duzu akatsen bat herrien kokapenari dagokionez?

2.7. EGUNEROKO BIZITZA BERANT ERDI AROKO NAFARROAN

«[...] Tenpluak eta azokak hiriko jardueraren bi guneak dira. Famili ospakizunek, zaindarien aldeko jaiek eta egintza zibikoek katedralean edo auzoko eliz-parrokian biltzen zituzten hiritarrak [...]. Asteko azokan, hiritarrek, kanpotik etorritako nekazariak, aitonen semeek eta apaizek trukeak egiten zituzten eta alkatearen aurreko apelazio* auziak edo zaldunen arteko demak bezalako jarduerak ikusten zituzten edo haietan parte hartu. Horretaz gainera, urteko feriak ere izaten ziren, egun batzuk irauten zutenak, eta azoka iraunkorrek ere bai Iruñeko Txapitelan* kasu. Denda finkoak eta tailerrak era badaude; azken horietan jendaurrean egiten ziren lan [...]. Etxeak, solairu bakarrekoak edo bi solairukoak, harriz eta pezoekin eginak ziren. Gehiegi garatu gabea

bada ere, kaleetan estolden sistema ere badago eta iturrien sare bat. Komunak zuloan ziren eraikinen altuerakoak, putzu beltzetan bukatzen zirenak. Higienea ez zen ezagutzen garai hartan. Bainu publikoak ere badaude, erregek alokatuak, oso errentagarri suertatzen zitzaizkienak. Etxe barruan, gela nagusi bat dago, sala, aldi berean sukaldea, jangela eta egongela ere izaten zena. Haren ondoko beste gela bat logelarako erabiltzen zen. Altzarien artean, mahai eraisgarriak edo astoen gainean jarritakoak, armairuak, aulkiak eta kutxak –elika-gaiak eta arropak gordetzeko–. Ohea, lastaira bat besterik ez bazen ere, etxe guztietan izaten zen [...]

Nekazari alderdietako paisaia aldakorra zen eskualdeen arabera. Landalurretan eta arkitekturari gaur Nafarroako iparralde, erdialde eta Erriberaren artean aipa daitezkeen ezberdintasunak egon ziren onduan ere. Nekazari herrietako ekonomia landalurretan, larreetan eta oihanetan oinarritzen da. Balio handiena duten lursailak fruta arboletarako, baratzerako eta ardantzarako erabiltzen zirenak ziren. Abeltzaintzak ere garrantzi handia du, batez ere Nafarroako iparraldean [...]. Soro eta alorrek ematen duten guztia probetxugarri izaten da. 1266an erregeren administratzaileek ardantzak, itxaurrondo baten adarrak, xirmenduak, hildako behien larruak, dirua gordetzeko ahuntz-ileak, hildako asto bat eta hondaturiko garia saldu zituzten. Ureztalurrak zeuden tokietan, ubideen erabilera xehe-mehe erregulatuta zegoen, eta askotan auzo herrien arteko gatazkarako* arrazoi izaten zen [...]. Herrixketako etxeek erregulartasun gutxiagorekin antolatuta egoten ziren. Carmen Jusuék Zangozako merindadean indusi dituen herrietako etxebizitzek planta angeluzuzena zuten, bi gelatan banatuta: sala, aulki jarraiekin, eta logela. Baliabide gehiagoko etxeetan hiru gela izaten ziren. Gehienak solairu bakarrekoak izaten ziren, harriz eginak. Teilatua zurezko eta buztinezko hagez eginak izaten ziren, eta gainetik hartxabalak zituen. Hegoalderagoko Nafarroako herrietan, eraikinak pezo edo harriz eta pezo eginak ziren. Nekazaritza eta abeltzaintza ustiategi batek erantsita behar dituen eraikinak hirian baino gehiago izaten ziren: korraleak, ikuiluak, aletegiak, etxebizitzari erantsiak edo apartexeago. Itxura irregularra ematen zioten nekazari herrietako hirigintzari [...]

Baldintza materialez gainera, bizitzaren erritmoa gerta dakiguke gaur harrigarriena. Bizi esperantza 35 urtekoa izaten zen eta horregatik bizitzaren etapak laburragoak eta trinkoagoak izaten ziren [...]. Lanaldiaren erritmoa urtaroen arabera izaten zen. Jendea eguzkiarekin batera jaiki eta oheratzen zen, beraz, zortzi eta bederatzita lanordu izaten ziren neguan eta hamabi edo hamahiru udan. Kanpai hotsen bidez egiten zen lanerako dei eta egunaren orduak markatzen zituzten [...]. Jaiak oso ugari izaten ziren. Ligurgia-egutegiak antolatzen zuen urtea. Aisialdiak ere erlijio-oinarriak ditu. Jaiegun guztien hasiera elizkizunekin hasten zen. Zaindarien aldeko jaiak eta erromeriak jendearen pozgarri izaten ziren. Ezkontza eta bataioetan ospakizun bereziak egiten ziren [...]. Juglar eta titiriteroen dantza eta espektakulu ibiltariak izanen ziren dibertimendu ohikoak. Modu askotako jokuak izanen ziren, jarraitzaile ugariarekin [...]

GARCÍA ARANCÓN, R., *Historia ilustrada de Navarra 1, 187-190 or.*

Aurreko testuak bidea ematen digu Berant Erdi Aroko nafarren eguneroko bizitza irudikatzen.

Arretaz irakurri ondoren, erantzun ondoko galderei:

- ❶ Bereiz itzazu testuak azpimarratzen dituen bi bizimodu nagusiak.
- ❷ Aipa itzazu hiriko bizimoduaren ezaugarriak.
- ❸ Aipa itzazu nekazari herrietako alderdi azpimarragarrienak.
- ❹ Harritu al zaitu kontakizuneko gauzaren batek? Azaldu ezazu.

2.8. HIRU AUKERA IKASGELAZ KANPORAKO


Ugari dira garai historiko hau hobeki ezagutzeko egin daitezkeen irteerak. Hiru aukeratu ditugu, Nafarroa banatu izan ohi den eskualdeei buruzkoak: Lizarrako merindadean, hiri eta jendegune gotortuak; Artaxonako harresiaren multzo berezia erdialdean; eta Kontuen Ganbara Iruñean.

❶ VILLA GOTORTUAK GAZTELAKO MUGETAN.

Nahiz eta jatorria lehengoko garai batean duten, Vianan eta Laguardian oraindik ikus daitezke gotorlekuen aztarnak eta mendebaldeko mugan, Gaztelaren aurkako defentsan, izan zuten garrantzia.

a) *Viana*

VIANAKO (NAFARROA) ERDI AROKO GOTORLEKUAK



1. San Pedro dorrea.
2. Barbakana.
3. Tahonaren dorrea.
4. San Felices ataria.
5. Danborraren dorrea.
6. Poterna.
7. Karreraren dorrea.
8. Zaldiaren dorrea.

9. Santa Maria ataria.
10. Barbakana.
11. San Llorente dorrea.
12. Poterna.
13. Algarrada dorrea.
14. Poterna.
15. Lizarrako ataria.
16. Barbakana.

17. Usoen dorrea.
18. Gaztelua.
19. Dorrea.
20. Eguterako dorrea.
21. Eguterako ataria.
22. Barbakana.
23. Arranparen dorrea.
24. Darokako dorrea.

Iturria: LABEAGA, J.C., Viana, monumental y artística, Iruña, 1984, 35. or.

Viana hiriak Nafarroako hiri trazaketa bereizgarrienetako bat gorde du. Arkitektoen Elkargoko Kultur Batzordeak zera dio gune historikoaren hondamenari buruzko arreta deia egiteko txosten batean: «Vianak hirigintzazko balio apartekoa du egitate historiko eta egitate fisiko gisa. Hiriaren trazaketa, Erdi Aroan armen plaza batean ohikoa zena, Vianak duen legatu historiko eta artistiko garrantzitsuena da, zalantzarik gabe [...], arkitekturaren aldetiko balio zehatzagoez gainerik, izan ere hiria ulertzeko modu bat baita».

Viana hobekien ezagutzen duen eta hari buruz gehien idatzi duena Juan Cruz Labeaga da. Idatzi dituen liburu ugarien artean ondoko bi hauek azpimarratu nahi izan ditugu:

LABEAGA, J.C., *El castillo y las fortificaciones de Viana*, Temas de Cultura Popular, 358. or. Iruña.

LABEAGA, J.C., *Viana, monumental y artística*, Iruña, 1984, 25-56 or.


Egilearen doktoretza tesiaren I. kapituluaren lehen atala da. Hirigintza eta arte zibila aztertu nahi izan ditu; aipatu orrialdeetan harresia eta mendeetan zehar izan duen bilakaera aztertu ditu.

b) *Laguardia*.

Laguardiako gotorlekuak Vianakoaren antzeko egitura du, baina hobeki kontserbatua. Gaztelaren aurkako mendebaldeko mugako hiri aintzindaria, erresuma horren eskuetan geratu zen 1461etik aurrera.

Ibilbidea oso interesgarria da. Bisita emankorra eta eroso egin ahal izateko behar den informazioa Udaletxean bertan edo Arabako Aldundiko kultur zerbitzuetan eskura daiteke.

📍 ARTAXONAKO HARRESIA



Iturria: GARCÍA GAÍNZA, M.C. eta BESTE BATZUK, *Catálogo Monumental de Navarra, III, Merindad de Olite*, Iruña, 22. or.

Artaxonako harresia arestian aipatu ditugunen antzeko ezaugarriak dituen gotorlekua da, baina aurrekoek ez duten aura erromantikoa du. Nafarroako Monumentuen Katalogoak deskribapen hau ematen du: «Herriaren alderdi altuenenean Erdi Aroko Nafarroako gotorlekuen multzo garrantzitsuenetako bat dago, gutxienez XIV. mendaren hasieratik Harresia izenarekin ezagutzen dena [...]. Gotorlekua XIII. mendekoa dela ematen du, alegia eliza egin zen garaikoa, nahiz eta Vianako Printzea Erakundeak berriki egin duen zaharberritze lanari esker arrunt ukitua eta berreraikia dagoen.

Harresiak gotorleku benetan ikusgarria osatzen du, trazaketa irregularreko itzulinguru bat, giltzurrun baten itxurakoa, bertako topografiaren eraginez. Perimetroan harlandu indartsuak daude, horietako batzuk geroko eraikinetan berrerabilitakoak, erditik irekitako dorre kubiko lauek zainduta, izan ere Frantziako gotorlekuetan ikusten diren antzeko dorreek. Harresiak garai batean izan omen zituen hamalau dorreetatik bederatzi baino ez daude zutik, gainerako beste hiruren zimentuak gorde badira ere. Horma zuzen eta dorre prismatikoen antolamendua garai hartako beste gotorleku batzuetan, Artaxonatik hurbil, erabili zenarekin lotu behar da; esate baterako Urantziakoa (desagertua), Vianakoa, hein batean iraun duena, edo Laguardiakoa (Araba). Azken biak Antso Azkarra errege nafarraren aginduz eraiki ziren.

Zoritxarrez ez dago Artaxonako Harresiari buruzko zabalkunde mailako argitalpenik, liburu erraz baina nahikoa ematen duenik. Bisita liburu honekin presta daiteke:

GARCÍA GAINZA, eta BESTE BATZUK, *Catálogo monumental de Navarra. III. Erriberriko Merindadea*, Iruña, 1985, 20-27 or.

📍 KONTUEN GANBARA

Berant Erdi Aroko etapa honetan aztertu ditugun erakundeetako bat Kontuen Ganbara da. Gogora ezazu haren eginkizuna kontu publikoak aztertzea zela, alegia, errege ogasunaren gastuak eta dirusarrerak, funtzionarioen jarduera kontrolatzeko. 1980an, sistema demokratikoa herri honetara heldu zenean, erakunde hau berrezarri zen, Nafarroako Parlamentuaren menpeko organo tekniko gisa, funtzionamenduaren aldetik independentea, betiere. 1995ean Kontuen Ganbara antzinako harrizko eraikin sendora itzuli zen, 1524an hasi eta 1836an desagertu zen arte Ganbararen egoitza historikoa izan zen etxera.

Kontuen Ganbara, beraz, espazio fisiko bat eta foru erakunde bat da, baina baita ere antzinakoak iraun eta behar berrietara eta gaurko egunak eskatzen dituen eginkizunetara egokitzearen adibide argia. Hortik hura bisitatu eta ezagutzeak duten interesa.


Bisita egoitzan bertan eska daiteke, edo Ganbararen bulegoetara deituz. Hura presatzeko ondoko testua erabil daiteke, 22 orrialdeko liburuxka elebiduna:

Nafarroako Kontuen Ganbara, Iruña, 1995.

3. BALIABIDE DIDAKTIKOAK


3.1. MAPAK

CHAMPAGNEKO DINASTIAREN MENPEKO LURRALDEAK




Iturria: RAMÍREZ, E., *Historia de Navarra II*, Iruña, 31. or.

UNIBERTSITATEEN BESOA 1329-1512



Iturria: CARRASCO, J. y FLORISTÁN, A. (koord.), *Historia Ilustrada de Navarra*, 1, 223. or.

GORTEAK BILTZEN ZIREN TOKIAK 1329-1512



Fuente: CARRASCO, J. y FLORISTÁN, A. (coord.), *Historia Ilustrada de Navarra*, 1, p. 223.

3.2. BILAKAERA KRONOLOGIKOA

- 1234 Antso VII.a Azkarra hil zen. Teobaldo I.a altxatu zuten errege.
- 1253 Teobaldo I.a hil eta Teobaldo II.a altxatu zuten errege.
- 1270 Teobaldo II.a Tunisiako gurutzadara joan zen. Itzultzerakoan Sizilian hil zen.
- 1271 Enrike I.a errege altxatu zuten.
- 1274 Enrike I.a hil zen.
- 1276 Nabarreriako guda hasi zen.
- 1284 Joana I.a Nafarroakoa eta Felipe IV.a Ederra ezkondu ziren. Kapetarren dinastia ezarri zen.
- 1329 Joana II.a eta Felipe III.a Evreux Nafarroara heldu ziren. Evreuxko dinastia ezarri zen.
- 1330 Gorteeek Foru Hobekuntza onetsi zuten.
- 1348 Izurrite beltzaren epidemia.
- 1349 Nafarroako Joana II.a hil zen eta Karlos II.a tronuan eseri zen.
- 1365 Karlos II.ak Kontuen Ganbarako epaitegia ezarri zuen.
- 1366 Erresuma osoko «Suen liburua» egin zen, zergak zirela eta.
- 1387 Nafarroako Karlos II.a hil eta Karlos III.a heldu zen tronora.
- 1407 Erriberriko merindadea sortu zen.
- 1418 Erregek Foru Hobekuntza aldarrikatu zuen Gorteetan.
- 1421 Peñafielen Karlos printzea jaio zen, Joan eta Blankaren oinordekoa.
- 1423 Karlos III.a erregek Vianako Printzerria ezarri zuen
- 1423 Nafarroako burgoak batu ziren «Batasunaren Pribilegioa»ren bitartez.
- 1425 Karlos III.a hil zen. Blanca erreginak eta Joan II.ak ordeztu zuten.
- 1441 Nafarroako Blanka erregina hil zen. Vianako Karlos erregeren ordezkari militar izendatu zuten.
- 1461 Vianako Printzea Bartzelonan hil zen.
- 1481 Frantzisko Febo koroatu zuten.
- 1494 Katalina eta Joan Albretakoa koroatu zituzten.
- 1512 Albako dukeak Nafarroa inbaditu zuen (uztailaren 19an). Iruña errenditu zen (uztailaren 25ean). Nafarroa berreskuratzeko lehen ahalegina.

3.3. HIZTEGIA

- antisemitismo:** juduen arrazaren, haren kultura edo eraginaren aurkako mugimendua.
- apelazio:** epailearen edo epaitegi nagusiaren aurrean errekurritzeko ekintza, beharagokoak emandako epai ez-justua zuzendu edo deuseztu dezan.
- arrandi:** luxua, handiustea.
- borrokalaria:** gudularia, oldarkorra.
- gatazka:** auzia, borroka.
- txapitela:** Iruñeko azoka iraunkorrari ematen zitzaion izena.

3.4. ZENBAIT LIBURU LAGUNGARRI

Bibliografiaren iruzkin labur hau egiterakoan beharrezkoa da haren zergatia gogoraraztea. Kontua ez da aipatu garaiari buruzko monografi edo azterlan ugari eta onak azpimarratzea. Liburu batzuk aukeratu nahi izan ditugu, argi eta garbi zabalkunde mailakoak direnak eta irakasleei beren prestakuntza osatzeko bidea ematen ahal dietenak, edo zabaltzeko jarduerak burutzeko interesa duten ikasleei lan monografiko txikiak egiteko modua ematen dietenak.

RAMÍREZ VAQUERO, E., *Historia de Navarra II*, Iruña, 1993.

Ramírez irakaslearen testua *Historia de Navarra* lana banatuta dagoen bost liburukietako bigarrena da. Nabarmendu beharreko kalitate ugari ditu: garaia ongi mugatuta dago eta irakaslea gure adituen arteko onenetakoa da garai horri buruz; testua erakargarria da eta ikuspegi politikoa aise gainditzen du batzuetan erresumen eta nafarren bizimoduari buruzko planteamendu orokorra egiteko; testuak eta grafikoak zuzen hautaturik daude; aurkezpena zaindua da. Hori guztia testu zehatz eta zabalkunde mailako batean.

Agian, Berant Erdi Aroko erresumaren bizimoduari buruzko zabalkunde mailako sintesi onena izanen da.

CARRASCO PÉREZ, J. (koord.), *Historia Ilustrada de Navarra 1. Edades Antigua y Media*, Iruña, 1993, 145-320 or.

Hain ezaguna egin den lan horren lehenbiziko liburukiaren 10. kapitulutik 20. kapitulura Berant Erdi Aroari buruzkoak dira funtsean. Gehien bat historialari gazteek, A.J. Martín Duque eta J. Carrascoren eskolakoek, idatzitakoak dira eta oso baliagarri suertatzen dira alderdi jakin batzuetan sakontzeko edo ezagutzak zabaltzeko lan txikiak egiteko. Liburuaren egikera, argazki, testu, grafiko, mapa iruzkindu eta data historikoak biltzen dituenak, eta haien erabilpen praktikoa -unitate didaktikoetan maiz erabiltzen eta aipatzen dira- garai hartako historia jendearen esku jartzeko interesaren pizgarri suertatzen dira.

FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, L. J. (zuzend.), *Sedes reales de Navarra*, Iruña, 1990.

Foru Administrazioak, Lehendakaritza Departamentuaren bitartez, duela zenbait urtetik hona, formatu handiko eta luxuzko aurkezpena duten liburu instituzionalen sail bat argitaratu du. Orain aipatzen duguna horietako bat da. Hiru atal ditu: lehenbizikoak Nafarroako erregetza aztertzen du; bigarrenak, errege-egoitzak; eta hirugarrenak, erregeen panteoiak.

Testuak, oro har, maila onekoak dira; argazkiak zinez ikusgarriak dira askotan; tresna grafikoak benetako alardea dira. Beraz, liburu interesgarria da gai jakin batean sakondu nahi bada, edo erregetzaren alderdi batzuk aztertu nahi badira, ikurrak esate baterako. Edonola ere, liburutegian izanez gero, orrialdeak aletze hutsa gozagarri suertatzen da, ikasleek ikusi ahal izanen duten bezala.

JUSUÉ SIMONENA, C. eta RAMÍREZ VAQUERO, E., *La moneda en Navarra*, Iruña, 1987.

Nahiz eta bereziki Berant Erdi Aroari buruzko liburua ez den, Jusué eta Ramírez irakasleen liburu hau aipatu nahi izan dugu hemen, ikasleentzat numismatikarekin loturiko kontuek izaten duten interesarengatik. Ezagutzak jendearen eskuetan jartzeko interes argiarekin egina bada ere, ez zaio zehaztasunik falta, «Panorama» bildumako liburuetan gertatu ohi den bezala. Testuak Erdi Aroko txanponari buruzko kapitulu zabala biltzen du, genero horretan zale direnen eta ikusmina dutenen gozagarri izanen dena, segur izan.

OCHOA DE OLZA EGUIRÁUN, E. eta RAMOS AGUIRRE, M., *Usos heráldicos en Navarra*, Iruña, 1990.

Aurreko testurako aipatu ditugun ezaugarriak liburu honi buruz ere esan daitezke. Heraldika gora doan gaia da; testu hau, berriz, bide egokia da mundu konplexu eta gaizki ezagututako batean sartzeko. Segur gaude hura irakurtzeak pozik utziko dituela genero horren zaleak, eremu horretan izan ohi diren akats handiak argitzeko balioko duela eta zaletasun berriak sortaraziko dituela heraldika ikasten hasi berrien artean.

6. UNITATE DIDAKTIKOA

FRANTZIAREN ERAGIN ESPARRUAN: GOTIKOA

1. KONTZEPTUEN ESKEMA.

2. LANERAKO PROPOSAMENAK.

- 2.1. Sintesi historikoa: prozedurak, aplikazio praktikoa.
- 2.1. Gotikoa Nafarroan: ikuspegi orokorra.
- 2.3. Arkitektura gotikoaren ezaugarriak.
- 2.4. Tenplu gotikoaren egitura. Tuterako katedraleko planta.
- 2.5. Eskultura: bi aro, bi pentsakera, bi estilo.
- 2.6. Erretaulak eta Hormak: pintura gotikoa.
- 2.7. Nafarroako gotikoari buruzko laburpen-gida.
- 2.8. Hiru aukera ikasgelaz kanporako.

3. BALIABIDE DIDAKTIKOAK.

- 3.1. Mapak.
- 3.2. Hiztegia.
- 3.3. Zenbait liburu lagungarri.

1. KONTZEPTUEN ESKEMA

Sintesi historikoa Bigarren hezkuntzako lehen zikloari dagokio; azken bi orrialdeetan Nafarroan diren estilo gotikoaren ezaugarriak eta lan aipagarrienak aipatzen dira. Nahiz eta oso usua izan, oinarritzko sintesi bat da, García Gaínza irakaslearen testu luzeaz osa daitekeena. Hori dela eta, kontzeptuen eskemak ezin ditu bildu, aurreko unitate didaktiko guztietan gertatu den bezala, aztertzen ari garen garaiari dagozkion epigrafe guztiak. Hala eta guztiz ere, agerkari artistikoak testuinguru historiko, sozial eta kulturalen kokatu nahian, berriz ere gogoratuko ditugu 7. kapituluko edukietan, alegia, Berant Erdi Aroari buruzkoetan.

7. Frantziako dinastiak eta Erdi Aroko erresumaren bukaera (1234-1525)

- 7.1. Chanpagneko dinastiatik Evreuxko dinastiara.
- 7.2. Gerra zibilak eta Gaztelaren konkista.
- 7.3. Erresumako erakundeak.
- 7.4. Aldaketa sozialak.
- 7.5. Arte gotikoa.

2. LANERAKO PROPOSAMENAK

2.1. SINTESI HISTORIKOA: PROZEDURAK, APLIKAZIO PRAKTIKOA

Aurreko unitate didaktikoan aipatzen genuen bezala, gure lehen proposamen honen bidez, ikasturtean zehar landutako ikasteko tekniketan trebatzeko aukera eman nahi izan dugu.

Beraz, 5. unitate didaktikoan erabilitakoaren antzeko irizpidea erabiliz:

- ❶ *Sintesi historikoaren 7.5. atalaren ulertuzko irakurketa egin, lehenbiziko unitatean bilduriko araei jarraituz.*
- ❷ *Azpimarra itzazu testu horren ideia eta atal nagusiak, bigarren unitate didaktikoan aipaturiko teknika erabiliz.*
- ❸ *Egin ezazu eskema bat 7.5. ataleko testuaren ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bilduko dituen, hirugarren unitate didaktikoan emandako jarraibideei jarraituz.*
- ☐ ❹ *Idatz ezazu testuaren laburpen bat zeure hitzak erabiliz, laugarren unitate didaktikoan egin zenuen bezala.*

2.2. GOTIKOA NAFARROAN: IKUSPEGI OROKORRA

«Gotikoaren garai zabala hasten denean muturreko aldaketa bat gertatzen da giro kultural eta artistikoan; giro horrek ezaugarri bereziak izanen ditu Nafarroan, Penintsulako gainerako erresumez beste era batera.

Frantziako eragina etengabea eta zuzena izanen da une honetatik aurrera, izan ere Antso Azkarra-
ren heriotza eta gero Frantziako dinastiak hasiko baitira Nafarroan; horrek berekin ekarriko du erresuma
Europako politika konplexuan sartzea eta baita Europako kulturara eta artera zabaltzea ere. Ez da harri-
tzekoa artearen mezenak errege eta apezpiku frantsesak izanik, arte fina gustukoa izatea, eta Frantziatik
eta Flandesetik artegile, arkitektu, irudi egile, margolari eta zilargin* uholdea etortzea hona. Frantziako
formekin batera, Ingalaterrako artearen ekarpenak ere heldu ziren, izan ere logikoa da hori kontuan har-
tzen bada ingelesek Akitania menderatzen zutela, eta Nafarroako muga-mugan zeudela. Hori ikusirik,
aise ulertuko da garai hartan Nafarroa irekita izatea abangoardiako forma artistikoetara eta bere lurretan
gertatzea estilo gotikoa Penintsula mailan sartzeko lehen entseiuak. Horrela, Nafarroak arkitektura zister-
tar goiztiar eta indartsua du Fitero, La Oliva eta Iruñeko monasterioetan, eta eraikuntza-ahalegin oso
goiztiarrak Tuterako katedralan edo Orreagako elizan, azken hori Frantziako Irlako estilo gotiko garbian
egina. Nafarroako elizetan eragin handia izan zuen eredu frantsesa Toulouseko katedralakoa izan zen,
izan ere haren nabe bakar izugarriak Erriberriko Santa Maria Errealaren nabe zabalen oihartzun goiztiarra
baitu, edo Artaxonako Harresikoan, Lizarrako Hilobi Saindukoan edo Iruñeko San Zerningoan, azken hori
izen bereko burgoaren bihotza izan zena.

Halabaina, zalantzarik gabe, XIV. mendea eta nagusiki Karlos II.aren eta Karlos III.aren erregealdiak
izan ziren Nafarroako artearen goren-goreneko aldia*, urrezko garaia; garai horrekin lotu behar dira
Uxueko Santutegiko eta Iruñeko Katedralaren Klaustroko lanak. Lehen esan bagenuen penagarria izan
zela Nabarriariako gerran katedralako klaustro erromanikoa suntsitu izana, orain poztu eginen gara gaur
daukaguna, bere garaian ere gotiko «fin eta aberats» esan ziotena, gotiko frantses estiloko Espainiako
klaustorik ederrenetakoa delako, eta harrigarriena ere badena, baita Frantziako ederrenetako bat ere.
Eta hala da: XV. mendearen bukaeran egindako leihotako trazeria* ederrek, narratiba aberatseko kapitul
historiatuek, landareetan antzeman daitekeen aniztasun eta tratamendu ederrak, eta gablete* zulodu-
neko klaustrogainekoak* aparteko obra dela adierazten dute. Horri gehitu behar zaizkio klaustroko are-
toak, jangela, sukaldea eta batez ere Barbazana esaten zaion kaperera, kanpo aldetik Roda Pasealekuan an-
tzeman daitekeena, bere gorputz alakatua*, pinakulu* ederrekin bukatua, agertzen dituen, eta
Burgosko Kondestablearen kaperaren parean amaierako gotikoaren kaperera alakatu aberatsen aurrekari
ederra izan daitekeena. Klaustroak, beste aldetik, eskultura gotikoaren fruiturik aukeratuena eskaintzen
ditu, eskola frantses ezberdinetan inspiratua; jatorri oso anitz eta urruneko gaiak irudikatu ziren bertan.
«Puerta del Amparo» izanarekin ezagutzen denean, agerian da Strasburgoko barrokismoa*, eta Ate Ede-
rra esaten zaionean, berriz, Reimseko gotiko puruaren klasizismoa* antzeman daiteke.

Margo-lanei dagokienez, alde batetik Nafarroan estilo erromaniko berantiarreko lan gutxi badaude
ere, hormetako margolan gotikoen ugaria azpimarratu behar da. Horien artean, zaharkituenetatik* hasi
–Erriberri, Artaxona, Artaitz– eta Iruñeko katedralako klaustroko gotiko puruko lanetarako adibideak dau-
de; azken horietatik Jantokiko hormakoa da maisulanik aipagarriena: Erdian Gurutziltzatua ageri du, Juan
Oliverrek sinatua eta 1330. urtean. Estilo lineala du, uhindura ugarirekin eta suabea, aberatsa koloretan:
aipatu maisuaren estiloa Aviñongo talde frankogotikoaren estiloarekin lotzen du. Oliverren lan ederrak
eskola sortu zuen Nafarroan; Nafarroako Museoan gorde diren hormetako margolan gotikoen multzoa
Espainiako multzorik garrantzitsuena da. Klaustroak XIV. mendeko Nafarroako arkitektura, eskultura eta
pinturaren goreneko aldi hori ederki laburtzen badu, Janin de Lome eskultore frantsesaren lana –Karlos
III.ak ekarrarazi zuen Nafarroara 1411n Iruñeko Katedralako bere hilobia –Borgoñako estiloaren* lehenbi-

ziko inportazioa da Penintsula osoan– egin zezan, Felipe Ausartaren Dijongo hilobia bukatu eta bi urte baizik pasa ez direnean; aipatu hori Karlos III.a Aitonon semearen hilobiaren eredia izan zen.

Baina ez dugu arkitektura militarra ahaztu behar. Nafarroako gotikoaren barrenean, gazteluek, Cisnerosen suntsipen agindua gainditu zutenek, nortasun handia dute. Tafallako gaztelua –Erreginarenean do- rrea artean zutik zegoen joan den mendean– eta Erriberrikoa Karlos III.ak zabaldu eta birmoldatu zituen. Bigarrenaren murrerak eta dorreek plazak eta kaleak mende hartzen dituzte eta gaztelu-jauregiaren eta Erdi Aroko hiriaren multzo ederrenetako bat da. Haren dorre eta behatokitik antzeman daitezkeen gustu frantsesa hegoalde islamizatutik heldu eta kasetoidura* eta igeltsu lanetan ikus daitezkeen modu exoti- koekin nahasten da. Luxua eta fintasuna harrigarriak ere suertatzen zaizkio gaurko ikusleari: barneko lo- rategiak zituen, terrazak osatuz, non leoiak eta txoriak edukitzeko kaiolak eta kalifa baten gortean ego- nen ziren fintasun musikalak kokatzen baitziren. Defentsarako duten garrantziarengatik, aipatzekoak dira Marcillako, Cortesko, Zangozako eta Xabierko gazteluak (azken hori oso aldatua dago), ezertan ahaztu gabe Erresumako geografian aurki daitezkeen gotorleku-dorreak eta jauregiak.

Jarduera artistikoaren beheraldia XV. mendearekin etorri zen; orduan, Aragoako eragina antzema- ten hasi zen Hegoaldean, Tuterako Katedraleko Villaespesaren Hilobian eta nazioarteko estiloko* eta esti- lo hispanoflamenkoko* tauletan margoturiko erretauletan.

Hala ere, ordurako, Erdi Aroko mendeek Nafarroan utziak zituzten beren aztarna artistikoak, guk le- gatu gisa jaso ditugun hiribildu eta herrien hirigintzan eta nortasun sendoko monumentuetan antzeman daitezkeenak».

GARCÍA GAINZA, M.C., «El arte navarro en la Edad Media: románico y gótico», *Diario de Navarra*, 1979ko apirilak 24.

Aurreko testuak, ezagutzak zabalatzeko asmoz eginiko laburpen ederra denak, *Sin- tesi historikoan* bildutakoa baino ikuspegi zabalagoa eskaintzen du. Testuaren irakurketa errazteko, izan ere termino ugari dituelako, azter ezazu unitate honen bukaeran jarri di- zugun hiztegia.

❶ *Azpimarra itzazu ideia nagusiak.*

❷ *Egin ezazu testuaren edukiari buruzko laburpena.*

❸ *Zailtasunik baduzu, erantzun galdera hauei:*

- *Erligio-arkitektura:*

- *XIII. mendea, Frantziako aztarnak: Orreaga, Tuterak, nabe bakarreko elizak.*

- *XIV. mendea, esliloaren eklosioa*: katedrala eta haren egoitzak, Uxue.*

- *XV. mendea, estiloen bitarteko aldia.*

- *Eskultura:*


- *XIII eta XIV. mendeak, Frantziako eragina: Iruñeko katedralaren atariak eta klaus- troa.*

- *XV. mendea, Borgoñako eragina: Lome eta haren eskola.*

- *Hormetako margolanak:*
 - XIII. mendea, bitarteko aldia: *Artaitz, Artaxona eta Erriberri.*
 - XIV. mendea, goren aldia: *Juan Oliver.*
 - XV. mendea, azken gotikoa: *Galipentzu eta Olleta.*
- *Arkitektura zibila:*
 - *Errege-erreginentzako Gortea: Erriberriko gaztelu-jauregia.*
 - *Erresumako gazteluak.*
- *Berant Erdi Aroko hirigintza.*

2.3. ARKITEKTURA GOTIKOAREN EZAUGARRIAK

Ondokoak dira arkitektura gotikoaren ezaugarriak:




Arku zorrotza (1). Giltzarri batean angelua egiten duten bi kurba zatik osaturikoa.

Iturria: ITÚRBIDE, J. eta FELONES, R., Navarra, historia y arte, Iruña, 1982, 117. or.




Gurutze ganga (2). Elkarrekin gurutzatzen diren bi arku zorrotzek egiten dutena. Haren ertzak nerbioek indartuta daude (a). Nerbioen arteko tarteei plementu (b) esaten zaie.


Iturria: ITÚRBIDE, J. eta FELONES, R., Navarra, historia y arte, Iruña, 1982, 118. or.



Gangak zailtzen joaten dira *izar ganga* (3) osatu arte; hartan, askoz ere nerbio gehiago daude.




Iturria: ITÚRBIDE, J. eta FELONES, R., *Navarra, historia y arte*, Iruña, 1982, 118. or.



Egitura arkitektonikoa (4). Nerbioek gangaren bultzada puntu jakin batzuetan kontzentratzeko bidea ematen dute: *arkuak* (b) dira puntu horiek, barruko aldean *zutabeetan* (b) eta kanpoko aldean *kontrahormetan* (c) bermatzen direnak.


Bultzada hori *arbotanteen* (d) bitartez transmititzen da.

Iturria: ITÚRBIDE, J. eta FELONES, R., *Navarra, historia y arte*, Iruña, 1982, 118. or.



Baoak (5). Berme puntuak zutabe eta arbotanteetan kontzentratzearen ondorioz, hormak zulatu eta haien ordean baoak jar daitezke: *beirateek* (a) argi maza-tua iragateko bidea ematen dute. Baoa zirkularra denean *arrosetoia* (b) esaten zaio.

Iturria: ITÚRBIDE, J. eta FELONES, R., *Navarra, historia y arte*, Iruña, 1982, 119. or.




Ataria (6). Erromanikoak zitu-
tuen atal berak ditu gotikoak,
nahiz eta Gotikoak dekorazio
ugariagoa edukitzen duen eta ta-
maina handiagokoa izaten den.

Iturria: ITÚRBIDE, J. eta FELONES, R., *Navarra, historia y arte*, Iruña, 1982, 119. or.

Arkitektura erromanikoari buruz egin genuen bezala, gotikoari dagokiona garatuko dugu orain. Proposamenarekin batera jarri ditugun testu eta grafikoek estiloaren elementu bereizgarrienak jaso nahi dituzte. Saia zaitez haiek ezagutzen eta eraikin jakin bati aplikatzen.

- ❶ Turismo bulegoetan Nafarroako arte gotikoari buruz dauden triptiko eta liburuxka ugari-
rien artean, ebaki ezazu argazki edo grafiko bana goian aipaturiko elementuak azaltzeko.
- ❷ Egin ezazu aukeraturiko eraikinetan ageri diren elementuei buruzko deskribapen
labur bat.
- ☐ ❸ Eskura dauden argazki guztien artean, hauta ezazu elementu guztiak batera ho-
bekien biltzen dituen. Justifika ezazu zure aukera.

2.4. TENPLU GOTIKOAREN EGITURA. TUTERAKO KATEDRALEKO PLANTA



Iturria: URANGA, J.E., eta IÑIGUEZ, F., *Arte medieval navarro*, IV, 74. or.

Tuterako katedraleko eraikinen planta ikusten ari zara, gaur agertzen den bezala.

❶ *Aipa itzazu ikusten dituzun eraikinen multzoaren funtsezko atalak.*

❷ *Marra lodi batez, inguratu ezazu katedral gotikoaren jatorrizko trazaketa.*

❸ Egin ezazu eraikinaren plantari buruzko deskribapen labur bat. Koka ezazu kronologikoki Gotikoaren garaia barruan.

☐ ❹ Multzo osoan hiru elementu badaude jatorrizko katedralean ez zeudenak. Aipa itzazu eta saia zaitetz noizkoak diren esaten. Ezagutzen al duzu estilo gotikoaren eskuinaldean agertzen denaren antza duen beste multzorik?

2.5. ESKULTURA: BI ARO, BI PENTSAKERA, BI ESTILO

«Formazko alderdiak aztertzeke orduan, beharrezkoa dirudi erromanikoko irudiak aipatzea, abiapuntua eta gotikoak ekarri zituen aldaketak ezagutu ahal izateko.

Andre Mariari buruzko irudigintzan –bai eta figurazio arteetan, oro har–, erromanikotik gotikorako aldaketaren ezaugarria **gora doan naturalismoa** da, alderdi guztietan ikus daitekeena, irudien jarreretatik hasi eta trazu fisikoetaraino, janzkera* bera ere ahaztu gabe.

Erromanikoaren garaian, Andre Mariaren eta Jesus haurraren **irudiak** tente zeuden, eta gehienetan erabat frontalak ziren, aurreko aldetik ikusteko egindakoak; gainera, bietako bakoitza isolatua agertzen da eta bere mundu propioan sartua. Gotikoan, jarrera askeago eta naturalago egiten dira, batez ere Jesus haurraren kasuan, izan ere kasu askotan frontalitatea hautsi eta bere amarengana itzultzen delako; horrek bidea ematen du Mariaren eta Jesus haurraren arteko harremanak irudikatzeke, begirada eta keinuen bitartez: bukatu da garai erromanikoan zegoen isolamendua hautsi da.

Trazu fisikoei dagokienez, erromanikoan maiz ikusten da irudiak, batez ere Andre Mariaren irudiak, proporziorik gabekoak direla, buru handiegiak dituztela gorputzarekin alderatuz gero: hori ere gotikoan desagertuko da. Gainera, erromanikoan aurpegikera serio eta adierazpenik gabeak ziren; gotikoan, berriz, irriak ageri dira: ahaleginak egiten dira, eta baita askotan lortu ere, irudiek sentimenduren bat adierazteko.

Janzkerari dagokionez, gotikoan badaude beste inon ageri ez diren Andre Mariaren jantzi batzuk, esate baterako abitua eta zaia; kapelua kentzea edo kapelua, beloa edo mantua ez diren gainerako elementuen desagertzea ere gotikoaren berezko ezaugarriak dira. Jesus haurraren kasuan Gotikoaren berezko ezaugarriak dira tunika desagertzea eta hura estaltzeko amaren beloaren edo mantuaren mutur bat erabiltzea eta kordazko kapa agertzea.

Hala ere, erabiltzen diren jantziak baino gehiago, haiek **erabiltzeko moduan** antzeman daiteke erromanikoko Andre Marien janzkeraren naturalismo ezaren eta Andre Mari gotikoen naturalismoaren arteko ezberdintasuna. Hala da, erromanikoan jantziak gorputzari itsasten zaizkio –batez ere hankei– oso modu behartuan, formak gehiegi nabarmenduz, eta gainera izurdura erabat irrealak eginez: izurrak erabat simetrikoak eta linealak dira, eta bolumenik gabeak. Gotikoan jantziek naturaltasunez egokitzen zaizkio gorputzari, oihalen pisu eta ehundurari jarraituz; izurrak modu errealistan banatzen dira irudian, eta bolumena hartzen dute.

Azkenik, erromanikoaren garaian, Mariak beti koroa du eta Jesus haurrak ere gehienetan. Gotikoan, nahiz eta gehien bat Andre Mariak koroa eramaten jarraitzen duen, badaude kororik eramaten ez duten iru-

diak; Jesus haurraren kasuan, berriz, gutxitan ikusten da koroa. Bi irudiek eskuetan eramaten dituzten **atributuei** dagokienez, erromanikoan ez dute animaziorik: esfera edo liburua dira; gotikoan, berriz, naturaren mundutik harturiko atributuak ageri dira: loreak edo txoriak, kasu».

FERNÁNDEZ LADREDA, C., *La sonrisa gótica*, en «El Arte en Navarra 1», Iruña, 1994, 227 or.

Aurreko orrialdeko testuan argi eta garbi bereizten dira irudi erromanikoak eta gotikoak. Testua arretaz irakurri ondoren, egin itzazu ondoko ariketak:

- ❶ *Eskura dituzun liburuxka, triptiko edo gainerako langaietatik, hauta itzazu erromanikoa eta gotikoa islatzen duten bi irudi eta itsas itzazu zure lan koadernoan.*
- ❷ *Azpimarra ezazu irudi erromanikoa eta irudi gotikoa bereizten dituen funtsezko ezaugarria, Fernández Ladreda irakaslearen testuri jarraituz.*
- ❸ Saia zaitez hautaturiko irudien artean dauden ezberdintasunak aipatzen, ondoko arlo hauen arabera:
 - irudiaren itxura.
 - trazu fisikoak.
 - janzkera.
 - jantzia erabiltzeko modua.
 - buruko eta eskuetako atributuak.
- ☐ ❹ Aipa itzazu erromanikoaren eta gotikoaren garaietatik Nafarroan gorde diren irudi azpimarragarrienetako batzuk.
- ☐ ❺ Andre Mariaren irudiez gainera, aipa itzazu eskultura gotikoaren beste adibide batzuk Nafarroan.


2.6. ERRETAULAK ETA HORMAK: PINTURA GOTIKOA

ELIZA GOTIKOA. XIII, XIV ETA XV. MENDEAK

TAULA GAINEKO PINTUREN BIDEZKO DEKORAZIOA

Elizak apaintzeko ez daude soilik eskulturak, margolanak ere dekorazioaren atal bat ziren. Hemen ikusten dituzun taulak gotikoaren garaian margotu ziren, XIII, XIV eta XV. mendeetan. Garai hartan zura erabiltzen zen margolanen euskarri. Taularen gaineko margolanek nolabaiteko garapena izan zuten erromanikoaren garaian, baina gotikoan iritsi ziren goren puntura, taula bat baino gehiago erabiliz erretaula osatzeko.

Erretaula hauek saindu baten omenetan egiten ziren; haren irudia erdiko kalean jartzen zen. Bi aldeetako kaleetan, haren bizitzari buruzko pasadizoak jartzen ziren, eta batez ere haren martirioari buruzkoak, halakorik egonez gero.



Taulen muntaketa

Taularen gainean margotu ahal izateko, taula inprimazio batez prestatzen zen. Igeltso eskualdi bat baino gehiago ematen zitzaion kolarekin nahastuta, izan ere zurak horrenbeste ez zurgatzeko. Garai hartan tenperak erabiltzen ziren margotzeko: hau da, pigmentuak kola urarekin eta arrautzaren gorringoarekin nahasten ziren. Margo mota horrek alde on batzuk baditu: oso iraunkorra da, azkar lehortzen da eta ukituak ematen ahal zaizkio lehorra dagoenean ere.



Inprimazioa nola aplikatzen den.

Iturria: HURTADO, M.A., La vida en Navarra, Prehistoria, Época romana, Edad Media, Iruña, 10. or.

Aurreko testua arretaz irakurri eta grafikoak aztertu ondoren, egin itzazu ondoko jarduerak:

- ❶ *Eskura dauzkazun langaien artean, aukera ezazu gotikoaren garaiko erretaula* bat. Itsas ezazu zure lan koadernoan. Jar ezazu haren titulua, egilea –ezagutzen bada– eta gutxi gora-beherako kronologia.*
- ❷ Azter itzazu labur obraren ezaugarriak, sintesian eta aurreko proposamenetan ikasitakoa gogoratu.
- ☐ ❸ Zehaztu, modua baduzu, zein eskola artistikori dagokion. Zure erantzunari buruzko arrazoiak eman.

HORMEN GAINEKO PINTURAREN BIDEZKO DEKORAZIOA

Herri eta hirietako ahalmen ekonomikoek horretarako bidea ematen bazuten, Nafarroako eliza gotikoak hormetan margolanak eginez apaintzen ziren. Horrekin, kolorea eman nahi izaten zieten tenpluei, beirate handirik ezean. Margolan horiek gutxitan kontserbatu dira sortu ziren elizetan, izan ere horietako asko eta asko erauzi eta Nafarroako Museora eraman baitziren. Hori dela eta, museoko aretoetan Nafarroako toki askotako lanak ikusi ahal izanen dituzu: esate baterako, Iruñeko katedralekoak eta Erriberri, Artaxona, Galipentzu, Olleta eta Artaizko elizetakoak.



Lan hauetako batzuk egiteko, freskoaren teknika erabiltzen zen. Freskoaren teknikan, pigmentuak kare uretan disolbatu eta horman egindako luzituan margotzen da, artean luzitua lehortu gabe dagoenean: hortik heldu zaio izena. Euskarria heze egotean, koloreak paretako koloreekin nahasten dira eta iraunkor bihurtzen dira. Beste batzuetan, pintura horiek tenperekin egin ziren horma lehortuaren gainean.

Hormaren gaineko pintura nola egiten zen

Iturria: HURTADO, M.A., La vida en Navarra, Prehistoria, Época romana, Edad Media, Iruña, 11. or.

Hautaturiko testua aurrekoaren liburu beretik atera dugu. Arretaz irakurri ondoren, egin itzazu ondoko ariketak:

- ❶ *Behar den aukeraketa egin ondoren, jar ezazu koadernoan Nafarroan kontserbatzen diren margolanetan famatuena eta kalitate handiena duena. Esan ezazu zein diren haren tituluak, egilea eta kronologia zehatza, izan ere kasu honetan jakina delako.*
- ❷ Azter itzazu laburki lanaren ezaugarriak.
- ☐ ❸ Zehatz ezazu, ahal baduzu, zein eskola artistikotakoa den. Eman itzazu erantzun horren aldeko argudioak.
- ☐ ❹ Aipa itzazu Nafarroan gorde diren hormetako margolanak, mende bakoitzeko bat, gutxienez.

2.7. NAFARROAKO GOTIKOARI BURUZKO LABURPEN-GIDA

Erromanikoaren garaian egin genuen bezala, Nafarroako gotikoa modu teorikoan ikas daiteke, eraikin eta ezaugarri nagusiak gogoratuz, edo modu praktikoago batean, argazki edo marrazkien bidez artelanak aukeratuz. Proposamen honetan ere, helburu hori hiru zailtasun mailatan aurkeztu dugu:

- ❶ *Zure lan koadernoan, orrialde bikoitz batean, jaso itzazu gotikoaren garaiari dagozkion lan artistikoak. Jar itzazu multzotan, eta bakoitzaren azpian idatz itzazu lanaren izena, egilea –ezagutzen bada– eta gutxi gora-beherako kronologia.*
- ❷ Nahi baduzu, gehiago zehatz daiteke. Hauta eta bereiz itzazu ondoko multzoak:
 - XIII. mendea:
 - erlijio-arkitekturaren adibide bat.
 - arkitektura zibilaren adibide bat.
 - Andre Mariaren irudi bereizgarri bat.
 - bestelako eskultura bat.
 - horman eta taula gainean egindako margolan bat.
 - XIV. mendea:
 - erlijio-arkitekturaren adibide bat.
 - arkitektura zibilaren adibide bat.
 - Andre Mariaren irudi bereizgarri bat.

- hilobi bat
- horman egindako margolan bat edo erretaula bat.
- XV. mendea:
 - erlijio-arkitekturaren adibide bat.
 - arkitektura zibilaren adibide bat.
 - eskultura bat.
 - margolan bat.

☐ ③ García Gaínza irakaslearen testuan, 2. proposamenean aztertutakoan, banaketa konplexuago eta osoagoa egiten da garai honi buruz. Irizpide horri jarraituz, hauta itzazu aipaturiko lan nagusiak.

2.8. HIRU AUKERA IKASGELAZ KANPORAKO

Nafarroak aukera ematen du arte gotikoaren lehen mailako agerkariak ezagutzeko, ia geografia bera bezain anitzak baitira. Beti bezala, proposatzen direnen arteko bat aukeratzeko eta kalitatea eta aniztasun geografikoa batzeko askoz, Nafarroako hiru eskualde handiak hartzen dituzten hiru ibilbide prestatu ditugu.

① ORREAGA

Leku gutxi daude Orreaga bezain erakargarriak historiaren, kulturaren eta paisaiaren aldetik. Hori dela eta, ezinbestekoa da hura bisitatzea arrazoi askorengatik: oihartzun epiko eta lirikoak ditu, erromesen ospitalea ere bai, lehen mailako gune artistikoa da bai eta botere politiko eta erlijio-boterea biltzen zituen tokia ere, besteak beste.

Zorionez, bisita prestatzeko eta emankorra izan dadin, aparteko gida bat daukagu, osoa eta eguneratua, bi aditu nafarrek, orrialde hauetan jada aipatu ditugunak, idatzita: Fermín Miranda eta Eloísa Ramírez.

Orreagari buruzko gidaren lehenbiziko atalak ondokoak aztertzen ditu: eskualdea, erromesen ospitalearen hasiera, goren aldia izan zen mendea, erresumako bizitza politikoan izan zuen eragina, mugako ospitalea izanik XV. mendetik XVIII. mendera bitartean bizi izan zituen gora-beherak, garai modernoetan irauteko izan dituen zailtasunak eta gaurko egoera. Mapa, grafiko eta argazki oso baliagarriak ditu, testu zehatz baina zabal-kunde mailakoaren osagarri. Liburu hau nahikoa izan daiteke ongi zuzendutako bisita baterako.

Hauxe da haren aipamen bibliografikoa: MIRANDA, F. eta RAMÍREZ, E., *Roncesvalles*, León, 1995.

② IRUÑA: NAFARROAKO GOTIKOAREN MEKA

Irakasle eta ikasleei jarduera praktikoak, ahal dela aurretiaz kontrastatuak, proposatzeko ideiarri jarraituz, «Tierra Estella» BHIko UBIko Artearen Historiako ikasleek egindako lan irteera baten gidoia eskaintzen dizugu. Denbora errealak ditu, batere arazorik gabe egiteko modukoa da eta patxadaz egin daitezkeen bisita emankorra da.

- Helburuak:
 - Nafarroako pintura gotikoaren ezaugarriak ezagutu eta baloratzea, Nafarroako Museoan dauden adibideetatik abiatuta.
 - Iruñeko katedrala, estilo horretako arkitektura lan garrantzitsuena, espazioan eta denboran kokatzea, eta estiloaren ezaugarriak ezagutzea.
 - Nafarroako eskultura gotikoaren adibide azpimarragarrienak ezagutzea: Andre Mariaren irudiak eta Carlos III.aren eta haren emazte Leonorren hilibia.
 - Saiatzea arte aplikatuak modu orokorrago batez ezagutzen, Elizbarrutiko Museoa bisitatuz.

- Edukiak.

Nafarroako Museoari eta Iruñeko katedralari buruzko lanak asko ugaltu dira kopuruan eta kalitatean azken urte hauetan. Hona interesgarrienak, bisita azkar prestatzeko,:

- Nafarroako Museoa:
 - *Museo de Navarra, Iruña, 1989.*
 - *El arte y los artistas en Navarra en los últimos siglos de la Edad Media. Guía didáctica, Iruña, 1993.*
 - HURTADO, M.A., *La Edad Media en Navarra: cristianos y musulmanes. Guía didáctica, Iruña, u.g.*
 - HURTADO, M.A., *La vida en Navarra. Prehistoria. Época romana. Edad Media. Guía didáctica, Iruña, u.g.*

- Iruñeko katedrala:
 - DEL BURGO, M.A., *La catedral de Pamplona, León, 1977.*
 - FERNÁNDEZ LADREDA, C., *La catedral de Pamplona, «El Arte en Navarra 1», Iruña, 1994, 145-160 or.*

- Jarduerak.


Museora heltzerakoan, ikasleek «La vida en Navarra. Prehistoria, Época romana. Edad Media» gida didaktikoa jasoko dute. Horrek bidea emanen die bisita beren aldetik egiteko arte gotikoko aretoetan barna, eta zenbait ariketa egiteko.

Katedralerako eta elizbarrutiko museorako bisita aldez aurretik hitzartu behar da. Gaur egun langile espezializatuak dituzte, eta bisita gidatuak egiten dira katedrala osorik bisitatzeko.


- Egutegia.

10:00	Nafarroako Museorako bisita.
11:30	Ogitartekoa jan eta Iruñeko katedralera.
12:00	Katedrala eta Elizbarrutiko Museoa bisitatu.
13:30	Bisita bukatzeko gutxi gora-beherako ordua.

③ GAZTELUAK ETA JAUREGIAK: ERIBERRI ETA MARCILLA.



Iturria: JUSUÉ, C. eta RAMÍREZ, E., Olite, Iruña, 1990, 90 or.



Iturria: JUSUÉ, C. eta RAMÍREZ, E., Olite, Iruña, 1990, 90 or.

«Nafarroako gaztelu eta jauregi gotikoak aztertzea bi eraikin mota horien artean ezberdintasun argiak ezartzea bezain zaila da. Hitz horien Erdi Aroko erabilera gaur egunekoaz bestelakoa zen, batez ere jauregiei dagokienez. Guk hitz horrekin izendatzen ditugu errege edo pertsonaia handiak bizi diren etxe jeneralean arranditsuak. Haien eraikuntza bereziki duina da, formazko edertasun eta fintasun "plus" batek markatua, defentsarako eraikin batean ikus daitekeena gaindituz. Jauregia hitzak ez zuen horrelako oihartzunik Erdi Aroko hizkuntzan. Nafarroako dokumentazioan agertzen den erabileran, etxe partikular baten gela edo gela nagusiak aipatzeko erabiltzen da, arrandi berezirik gabe. Gazteluei dagokienez, orduan eta gaur egun ere gotorlekuak izan ziren, harresiez inguraturik eta eraso zein defentsarako baliabideak zituzten. Hortik arazoak heldu dira Erriberri bezalakoak sailkatzeko. Gaztelua bada, zalantzarik gabe, harresiez inguraturik eta dorre handien bitartez antolatua baitago; baina jauregia ere bazen, erregearen egoitza bereziki arranditsua zelako. Gaztelu-jauregia esanen diogu?».

MARTÍNEZ DE AGUIRRE, J., *Castillos y palacios góticos en Navarra*, «El Arte en Navarra 1», 178-179 or.

Lerroalde hauek oso argigarriak dira eta sarrera ona izan daitezke Berant Erdi Aroko Nafarroako adibide azpimarragarrietako bi bisitatzeko.

❶ ERRIBERRIKO GAZTELU-JAUREGIA.

Nafarroako gotiko estiloko adibide ederren eta baliotsuenera bisita egiteko eta bisita hori Erriberriko gune historikoan zehar ibilbide bat eginez osatzeko, ondoko testuak erabil daitezke prestaketa lanetan:

JUSUÉ, C. eta RAMÍREZ, E., *Olite*, Iruña, 1990. Erriberri ederki ezagutzen duten bi emakume adituk egindako lan fina, «Panorama» bildumari duintasun are handiagoa ematen diona.

MARTÍNEZ DE AGUIRRE, *Castillos y palacios góticos en Navarra*, «El Arte en Navarra 1», Iruña, 177-192 or.

❷ MARCILLAKO GAZTELUA.


Marcillako Gaztelua, aurri penagarri bat izateko gero eta hurbilago dagoena, Berant Erdi Aroko gaztelu aipagarrienetako bat da. Azpimarratzekoak dira haren tamaina eta adreiluz egina izatea, izan ere adreilua gutxitan erabili baitzen Nafarroako Erdi Aroan erakin handiak egiteko.

Hura berreskuratu eta erabiltzeari buruzko ideia erakargarriak liburu honetan aurki daitezke: *El Castillo de Marcilla. Ideas para su recuperación*, Iruña, 1993.

3. BALIABIDE DIDAKTIKOAK

3.1. MAPAK


GOTIKOA NAFARROAN



- | | |
|---|---|
| Protogotikoa | Klaustro gotikoak |
| Monumentu erromanikoen zabalkuntza XII eta XIV mendeetan. | Gazteluak eta dorreak |
| XIII eta XIV. mendeetako eliza gotikoak | Eskultura monumentala |
| XV. mendeko eliza gotikoak | Nafarroako Museoa gorde den hormetako margolan gotikoen jatorria. |

Iturria: Atlas de Navarra, 50 or.

XIV ETA XV. MENDEETAN OBRAK EGIN ZIREN NAFARROAKO
ERREGE GAZTELU NAGUSIAK



Iturria: GARCÍA GAÍNZA, M.C. (zuzend.), El arte en Navarra, 1, Iruña, 1994, 178. or.

3.2. HIZTEGIA

alakatu:	zortzi angelu berdin eta zortzi alde dituen irudia.
barrokismo:	edozein estilo artistikotan, apaindura ugari dagoen aldia. Estiloaren bukaera aldean eman ohi da.
Borgoñako estilo:	Gotiko estiloaren eskola, Frantziako Borgoña eskualdean sortua. Hauek dira haren ezaugarriak: jantzi zabal eta kartoi itxurakoak eta errealismo nabaria pertsonaien aurpegietan.
eklosio:	agerkari bat-batekoa eta ugaria.
erretaula:	pinturek, eskulturek edo biek osaturiko artelana, eliza baten aldarearen atzean apaingarri egon ohi dena.
estilo hispano-flamenkoko:	XV. mendaren bigarren erdian eta XVI. mendearen hasieran garaturiko Gotikoaren pintura-estiloa. Flandesen zenbait hamarkada lehenago erabili zuten estiloaren eragina da haren ezaugarria.
gablete:	arkupeen gainean jartzen den errematea, erpinean angelu zorrotz bat sortzen dituzten bi lerrok osatuak; gotikoaren ezaugarria da.
goren-gorenko aldia:	testuan, aldi edo une bereziki garrantzitsua esan nahi du.
janzkera:	testuan, irudien jantzien azterketa historikoa.
kasetoidura:	agerian dagoen zurezko sapaia, buruz bera jarritako artesa baten irudia izan ohi duena.
klasizismo:	estilo guztietan ematen den aldia, non estiloaren ezaugarriak nabariago egiten diren.
klaustrogaineko:	klaustroaren gainean dagoen galeria.
nazioarteko estiloko:	Gotikoaren pintura-estiloa, XIV. mendearen bukaeran eta XV. mendearen hasieran garatu zena. Flandesen zenbait hamarkada lehenago erabili zuten estiloaren eragina da haren ezaugarria.
pinakulu:	altuera handiko lan batean irteten den errematea.
trazeria:	dekorazio arkitektonikoa, irudi geometrikoen konbinazioek osatua. Batez ere, arku zorrotz gotikoan egiten diren zuloak, oro har harrizkoak eta batzuetan zurezkoak.
zaharkitu:	testuan, estilo baten, kasu honetan gotikoaren, garapenaren lehenbiziko faseari dagokio.
zilargin:	batez ere zilarra lantzen duen pertsona.

3.3. ZENBAIT LIBURU LAGUNGARRI

Gotikoaren garaiari buruzko monografia ugari eta bikainak daude Nafarroan. Hala ere, gure bibliografi orientabidearen izaera aintzat harturik, hiru lan aipatuko ditugu, bete-betean zabalkunde mailakoak direnak eta garaia hobeki ezagutzen eta sakontzeko lan monografiko txikiak egiten lagunduko digutenak.

Navarra a través del arte, Iruña, 1978.

210 diapositiben bilduma bat da, Nafarroako Foru Diputazioak argitaratua. Haietatik 61.etik 124.era gotikoari buruzkoak dira.

Lan hori berehala eguneratu beharko litzatekeen arren, ikusirik argazki askoren euskarria eta kalitate eskasa, gaur egun kalean dagoen diapositiben bilduma bakarra da garai guztiak ordenaturik azaltzen dituen; beraz, ezinbestekoa da Nafarroako arteari buruzko edozein azalpenetan.

Museo de Navarra, Iruña, 1989, 60-131 or.

Nafarroako Museoak pintura gotikoari buruzko bilduma bikaina du, eskultura eta urregintza lanen adibide interesgarriak edukitzeaz gainera. Horrela ageri da 1986-1989 urteetan egindako birmoldaketa lanen ondotik egindako katalogo-gidan.

Erdi Aroari buruzko sarrera labur eta eraginkorrak, gure aditueta handienetako bat den M.C. Lacarrak egindakoak, eta obra aipagarrienen argazki eta fitxen hautaketa egokiak ezinbestekoa egiten dute liburu hau museoa bisitatu nahi bada, edo haren fondoan norainokoari buruzko ikuspegi bat edukitzeko besterik ez bada ere.

GARCÍA GAINZA, M.C. (zuzend.) *El Arte en Navarra 1*, Iruña, 1994, 129-256 or.

Interes handiko lana dela azaltzeko aski da kapituluak -Orreaga, Iruñeko katedrala, hilobi gotikoak, gaztelu eta jauregi gotikoak, gotikoaren hormetako margolanak, erretaula gotikoa, irribarre gotikoa: Andre Mariak eta sainduak, Erdi Aroko erlikitegiak- eta egileak -J.M. Omeñaca, C. Fernández-Ladreda, S. de Silva, J. Martínez de Aguirre eta M. Orbe- aipatzea.

Zalantzarik gabe libururik interesgarriena da Gotikoaren garaia ezagutzen hasteko eta estilo horrek Nafarroan utzi zizkigun lan garrantzitsuenez gozatzeko.